

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**EAEko Erakunde-mailako Administrazio eta
Erakunde Instrumentalak**

**Administración Institucional y Entes
Instrumentales de la CAE**

2022







AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURTZAPENAK	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA	11
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	11
II.2 Kontuei buruzko iritzia	11
III. IRITZIAREN OINARRIA	12
III.1 Legea betetzeari buruzko iritziaren oinarria	12
III.2 Kontuei buruzko iritziaren oinarria	13
IV. FUNTSEZKO GAIK EDO ALDERDI ESANGURATSUAK	15
V. KUDEAKETA-ORGANOEN/ADMINISTRATZAILEEN/GOBERNU- ETA ZUZENDARITZA-ORGANOEN ERANTZUKIZUNA	16
VI. HKEE-REN ERANTZUKIZUNA	16
VII. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	17
VII.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	17
VII.2 Langileria	17
VII.3 Kontratazioa	19
VII.4 Dirulaguntzak	24
VII.5 Beste batzuk	25
ERANSKINAK	
A.1 Urteko kontuak	27
A.2 Alderdi orokorrak eta araudi ezargarria	32
A.3 Langileria	36
A.4 Kontratazioa	40
A.5 Dirulaguntzak	48
ALEGAZIOAK	51





ABREVIATURAS.....	93
I. INTRODUCCIÓN.....	95
II. OPINIÓN	99
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	99
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales	99
III. FUNDAMENTO DE LA OPINIÓN	100
III.1 Fundamento de la opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	100
III.2 Fundamento de la opinión sobre las cuentas anuales.....	101
IV. CUESTIONES CLAVE O ASPECTOS RELEVANTES	103
V. RESPONSABILIDAD DE LOS ÓRGANOS DE GESTIÓN / PERSONAS ADMINISTRADORAS / ÓRGANOS DE GOBIERNO Y DIRECCIÓN.....	104
VI. RESPONSABILIDAD DEL TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS PÚBLICAS	104
VII. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	105
VII.1 Presupuesto y Contabilidad	105
VII.2 Personal	105
VII.3 Contratación	107
VII.4 Subvenciones	112
VII.5 Otros	113
ANEXOS	
A.1 Cuentas anuales	115
A.2 Aspectos generales y normativa aplicable	120
A.3 Personal	124
A.4 Contratación	128
A.5 Subvenciones	136
ALEGACIONES.....	139

Vitoria-Gasteizen, 2024 urriaren 24a
Vitoria-Gasteiz, a 24 del octubre de 2024





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

20/2021	Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa.
ABBP	Administrazioko Baldintza Berezien Plegua.
BEEP	Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana.
BOE	Babes Ofizialeko Etxebizitza.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
EEAA	Erakunde autonomoak.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
EKKLTB	2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.
HKEE	Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
KEB	Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea.
LPZ	Lanpostuen zerrenda.
ZPEP	Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa.





I. SARRERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta 2022rako Lanerako Programan erabakitakoari jarraikiz, EAEko erakunde-mailako administrazioaren eta erakunde instrumentalen 2022ko ekitaldiko fiskalizazio-txosten hau mamitu du.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: ezargarria den araudia honako alor hauetan betetzen dela egiaztatzea: aurrekontua, zorpetzea, eragiketa finantzarioak, pertsonala, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak, dirulaguntzak eta laguntza publikoak ematea eta zuzenbide publikoko diru-sarrerak.
- Kontularitzakoak: urteko kontuak aplikatzekoak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.

Lanaren zabalak ez du jaso gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlanik. Nolanahi den ere, aurkitu diren akatsak «Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

EAEko erakunde-mailako administrazioa honako erakunde hauek osatzen dute:

Erakunde autonomoak

- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia (PLEA).
- Lehiaren Euskal Agintaritza (LEA).
- Emakumearen Euskal Erakundea (Emakunde).
- Estatistikaren Euskal Erakundea (Eustat).
- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea eta Euskaltegiak Arautzekoa (Habe).
- Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua (Gogora).
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP).
- Kontsumobide.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.
- Laneko Segurtasun eta Osasuneko Euskal Erakundea (Osalan).

Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoak

- Osakidetza.
- Energiaren Euskal Erakundea (EEE).
- Euskal Irrati Telebista (EITB).
- SPRI-Enpresa Garapeneko Euskal Agentzia.
- Finantzen Euskal Institutua.
- Euskal Trenbide Sarea (ETS).
- Uraren Euskal Agentzia (URA).





- Gizarteratzearen Euskal Agentzia (Aukerak).
- Euskadiko Kirol Portuak (EKP).
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (GLEA).
- Etxepare Euskal Institutua.
- Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia.

EAEko erakunde-mailako administrazioa honako erakunde hauek osatzen dute:

Sozietate publikoak

EEE Taldea

- Energia eta Meatzeen Aurrezte eta Hazkuntzarako Aztertegia SAU (CADEM).
- Euskadiko Hidrokarburoen Sozietatea SAU (SHESA).
- Harana-Kontrasta Hidroelektrika SA (HHK).
- Biscay Marine Energy Platform SA (BIMEP).

EITB Taldea

- EITB Media SAU.

SPRI Taldea

- Teknologi Elkartea SA.
- Arabako Teknologi Elkartea SA.
- Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea SA.
- Arabako Eraberrikuntza Industrialdea SA.
- Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa SA IKEKS.
- Euskadiko Nazioartekotze Agentzia SA.
- USA Basque Trade and Investment Inc.
- Singapore Basque Trade and Investment Ltd.
- Basque Trade e Investimento do Brasil SA.
- Sprilur SA.
- Ibaizabal Behekaldeko Industrialdea SA.
- Arabako Industrialdea SA.
- Arratiako Industrialdea SA.
- Busturialdeko Industrialdea SA.
- Deba Bailarako Industrialdea SA.
- Goierri Beheko Industrialdea SA.
- Bidasoa Oarsoko Industrialdea SA.
- Bizkaia Sortaldeko Industrialdea SA.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Urolako Industrialdea SA.
- Beterri-Kostako Industrialdea SA.
- Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra SA.
Eusko Trenbideak taldea
- Eusko Trenbideak SA.
- Euskotren Participaciones SA.
Gainerako sozietateak
- Osatek SA.
- Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia SA.
- IHOBE SA Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoa.
- Euskadiko Orkestra SA.
- Alokabide SA.
- Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte SA (EJIE).
- Euskadiko Etxebizitza eta Lurzorua SA (VISESA).
- Itelazpi SA.
- Neiker, Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Institutua SA (Neiker).
- Finkatze Kapitala Finkatuz SA.
- Zumaiaiko Kirol Portua SA.

Euskal Sektore Publikoa osatzen duten fundazioak

- Erika Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunarako Euskal Fundazioa-(Erika).
- Basque Team Fundazioa (Basque Team).
- Hazi Fundazioa (Hazi).
- Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa (EGO).
- Euskal Herriko Goi mailako Musika Ikastegiaren Fundazio Pribatua (Musikene).
- Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna / B+I+O Euskal Fundazioa (BIOEF).





EAEko sektore publikoko partzuergoak

- Haurreskolak Partzuergoa.
- Basque Research and Technology Alliance euskal partzuergo zientifiko-teknologikoa (BRTA).

Fiskalizazio-lan honek, 2022ko abenduaren 31n 67 erakunde besarkatu ditu (ikus A.2). HKEEk beste txosten bat egin du Osakidetza eta Osatek Saren kontuen gainean.

10 erakunde autonomoek izan ezik, EAEko administrazio instituzionala eta erakunde instrumentalak osatzen dituzten gainerako erakundeek urteko kontuen auditoretza eginga dute, 52 erakundetan kanpoko auditoreek eginga eta 5 erakundetan KEBeko auditoreek. Gainera, aurrekontua eta legezkotasuna betetzeari dagokionez adostutako prozedurako txostenak egin dira: 52 erakundetan kanpoko auditoreek eta 3 erakundetan Kontrol Ekonomikoko Bulegoak.

Jada auditaturiko erakunde horietan, gure lana izan da auditoretzako txostenak berrikustea eta horretarako, egoki iritzitako proba osagarriak eta auditoretzako beste zenbait prozedura gauzatu ditugu.

Erakunde autonomoetan, barne-kontrolako organoak (KEB) egindako txostenak aztertu ditugu, HKEEk aztertutako espediente eta arloei dagokienez.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 13. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, lan honen behin-behineko emaitzak 2024ko uztailaren Ekonomia Kontrolako Bulegoari eta fiskalizatutako entitateen zuzendaritza guztiei helarazi zitzaizkien, egindako fiskalizazioari dagokionez interesdunek egoki iritzitako alegazioak egin eta agiriak aurkez zitzaizkien.

Alegazio guztiak aztertu eta baloratu dira, eta txosteneko testua ezabatu edo aldatu egin da komenigarri iritzi zaionean, eta bere horretan eutsi zaio txostenean deskribatutako egoera berresten duten azalpenak direla uste izan bada, edo justifikazioekin bat ez badatoz edo adierazitako adierazpenak dokumentu bidez justifikatzen ez badira. Alegazio horiek txosten honi txertatu zaizkio.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure ustez, Iritziaren oinarria izeneko atalean azaldutako ez-betetzeak alde batera utzita, EAEko erakunde-mailako administrazioa eta erakunde instrumentalak osatzen dituzten erakundeek zuzentasunez bete dute 2022ko ekitaldian ekonomiaren eta finantzaren jardura arautzen duen lege araudia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Gure ustez, segidako Iritziaren oinarria atalean deskribatutako auziek izan ditzaketen ondorioak eta balizko ondorioak alde batera, EAEko erakunde-mailako administrazioa eta erakunde instrumentalak osatzen dituzten erakundeen urteko kontuek, alderdi esanguratsu guztietan, 2022ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza-egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion haren eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, han jasotako kontularitzako eta aurrekontuko printzipio eta irizpideen arabera.





III. IRITZIAREN OINARRIA

Gure lana Fiskalizazioaren oinarritzko printzipioen eta sektore publikora egokitutako Auditoretzako nazioarteko arauen arabera egin dugu.

Arau horien ondorioz gureak diren erantzukizunak aurrerago deskribatu ditugu HKEEren Erantzukizunak atalean.

Fiskalizatutako erakundeeetako independenteak gara, otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta fiskalizazio publikoko jardura arautzen duen araudian eskatutakoaren arabera gure fiskalizazioari aplikagarriak zaizkion etikako eta independentzia babesteko eskakizunei jarraikiz.

Gure ustez, eskuratu dugun auditoretzako ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen du legezkotasuna betetzeari buruzko iritzia eta urteko kontuei buruzkoa emateko, biak ere salbuespendunak.

III.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIAREN OINARRIA

1. BRTA partzuergoak eta ETS, Aukerak, Unibasq, EEE eta EITB zuzenbide pribatuko erakunde publikoek ez dute 2022ko ekitaldian LPZrik eta horrek Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45. artikulua urratzen du.
2. EITB Media SAUk aldi baterako 118 kontratu mugagabe bihurtzea onartu du 2022an, 20/2021 Legean aurreikusitako aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetan barne hartu gabe eta aurretiazko ebazpen judizialik izan gabe.
3. EKPk kontratu mugagabe bat formalizatu du langile batekin, kanpoko enpresa batekin hautaketa-prozesu bat egin ondoren; ordea, ez da prozesu horren berri agiri bidez jaso.
4. 2022ko urriaren 18ko eta 2023ko urtarrilaren 31ko eta martxoaren 7ko Gobernu Kontseiluek, EKKLTBren 24.4 artikuluan aurreikusitako salbuespenezko prozeduraren bidez, 2022ko ekitaldiari dagozkion obligazio kontabilizatuak ordaintzeko baimena eman dute, 848.468 euro guztira; ordea, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ordainketa horien kontrako txostena egin zuen. Ez-betetzeak honako hauek izan dira: prestazioak alde aurretik fiskalizatu gabe egitea, kreditu-erreserbarik gabe, kontratazio-araudia alde batera utzita, dagokion kontratu-espedientea izapidetu gabe eta kontratazio-araudian ezarritakoaren arabera legozkiokoen printzipioak kontuan hartu gabe (ikus A.4).
5. Lanbide erakunde autonomoak ez du EBAOn argitaratu komunikabide eta komunikazio-euskarri desberdinetan publizitate-espazioak planifikatzeko eta erosteko zerbitzuaren lizentzia, 437.550 euroren gehieneko prezioarekin esleitua (ikus A.4).
6. EKPk, 2022an zehar, zuzenean esleitu ditu erregaien hornidura, aseguruak eta telefonia-zerbitzua, 1,5 milioi euroan, 105.687 euroan eta 30.090 euroan, hurrenez hurren, dagozkien esleipen-prozedurak izapidetu gabe. Kontratu horien zenbatekoa aintzat hartuta, erregai-horniduraren kasuan, erregulazio harmonizatuari lotutako kontratu irekia egin beharko zatekeen, eta ireki sinplifikatuak, gutxienez, gainerako kasuetan (ikus A.4).
7. Bi zerbitzu-kontratu, bata Euskadiko Orkestra SAK esleitua eta bestea EJIE SAK esleitua, gauzatzen jarraitu dute 2022an, hurrenez hurren 2019ko abenduan eta 2021eko



abenduan mugaeguneratu ondoren. 2022an, mugaeguneratutako kontratuen egikaritza 60.692 euro eta 5,6 milioi eurorena izan da, hurrenez hurren (ikus A.4).

8. Eusko Jaurlaritzak Itelazpi SA, Neiker SA, EITB Media SAU sozietateak eta EKP zuzenbide pribatuko erakunde publikoa energia elektriko hornitzeko egindako kontratazio zentralizatuaren ondoriozko gastuak 879.080, 398.075, 851.727 eta 91.114 eurotan gaudit du, hurrenez hurren, kontratuaren gehieneko zenbatekoa, espediente horri egin dakizkiokeen kontratu-aldaketak aplikatu ondoren (ikus A.4).

III.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIAREN OINARRIA

1. PLEA eta Osalan erakunde autonomoek ez dute balantzeko ibilgetuaren elementuen banakako zerrendarik, honako partida hauei dagokienez: instalazio teknikoak, altzariak, erabilera-lagapenak, garraio-elementuak eta abar; Haurreskolak Partzuergoaren kasuan, berriz, ez dago balantzeko ibilgetu materiala osatzen duten elementuen zerrendarik. Ondorioz, ezin da egiaztatu balantzearen saldoa osatzen duten elementuak 2022ko abenduaren 31n existitzen diren eta erabiltzeko egoera egokian dauden, ez 2022ko ekitaldiko amortizaziorako zuzkidura zehatza den (415.613 euro erakunde autonomoetan eta 207.476 euro partzuergoan), ez eta erakunde horiek eratu zirenetik 2021eko ekitaldira arte erakunde autonomoetan eta Haurreskolak Partzuergoan egindako zuzkidurak ere (2,3 eta 8,7 milioi euro, hurrenez hurren). Zuzkidura horiek guztiak gutxi gorabehera kalkulatu dira.
2. Haurreskolak Partzuergoaren urteko kontuek ez dituzte islatzen Haurreskolek beren jarduera garatzeko Partzuergoko udalen jabetzapeko instalazioen lagapenen ondoriozko ondasunen erabilera-eskubideak, ez eta Eusko Jaurlaritzak lagatako lokal baten erabileraren ondoriozkoak ere, zeinetan Ejren bulego nagusiak bertan baitaude. Era berean, Musikene Fundazioak Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoa den eraikin batean gauzatzen du bere jarduera, dagokion erabilera-lagapena formalizatu gabe eta haren arrazoizko balioa ezagutu gabe; beraz, haren urteko kontuek ere ez dute inolako zenbatekorik jasotzen kontzeptu horrengatik. Ondorioz, ezin dugu zehaztu ondasun eta eskubide horien kontabilitate-erregistroak 2022ko ekitaldiko urteko kontuetan izan dezakeen eragina.
3. ETSk ez dauka atxikitako elementuen, trenbide-azpiegiturei lotutako elementuen eta trenbide-jabari publikoko ondasunen banakako zerrendarik, Eusko Trenbideak SAUk eta EAEk atxikipen-erregimenean esleitutakoak, hurrenez hurren. Ondorioz, ezin da egiaztatu balantzean jasotako tren-azpiegituren kostua eta amortizazioa (haien kontabilitate-balio garbia 53,9 milioi eurorena da 2022ko abenduaren 31n), ezta trenbideko jabari publikoko ondasunen balioespenak 2022ko abenduaren 31ko urteko kontuetan izan lezakeen eragina ere.
4. URAk ez du hasierako atxikipenaren xede diren ondasunen banakako baloraziorik, eta ondasun horiek ez amortizatzea erabaki du. Ondorioz, ezin da egiaztatu balantzeko ibilgetu materialean jasotako balioa, zeina 2022ko abenduaren 31n 11,8 milioi eurokoa baita.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

5. Itelazpi SAK 14,9 milioi euro transferitu dizkio laguntzak eman dituen administrazio bakoitzari, Europako Batzordeak 2021eko ekainaren 10ean emandako 2021/2034 (EB) Erabakia betez. Erabaki horren bidez, sozietateak aurreko ekitaldietan jasotako laguntza jakin batzuk berreskuratzeko eskatzen da. Zenbateko hori balantzearen "Epe luzeko inbertsio finantzarioak" epigrafean erregistratuta dago. Txosten hau egin den egunean, gai hori ebazpen judizialaren zain dago, eta, beraz, ez dakigu zer kopuru berreskuratuko den, ez eta hori berreskuratzeko aurreikusitako epea zein den ere.
6. EKPreko urteko kontuetan ez dira jasotzen kirol-portuetako zerbitzu publikoari atxikitako ondasunak eta eskubideak, EAEko Administrazio Orokorraren jabetzako direnak, ez baitago ondasun eta eskubide horien balioetsitako zerrendarik. Ondorioz, ezin dugu zehaztu ondasun eta eskubide horien kontabilitate-erregistroak 2022ko ekitaldiko urteko kontuetan izan dezakeen eragina.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. FUNTSEZKO GAIK EDO ALDERDI GARRANTZITSUAK

52 erakunderen urteko kontuak kanpoko auditoreek auditatu dituzte, eta beste 5enak KEBek. Urteko kontuen auditoretza-txostenek (guztiak EAEko sektore publikoaren 2022ko urteko kontuei atxikiak) funtsezko gaien edo alderdi garrantzitsuen paragrafo bat barne hartzen dute, hala badagokio, (ikus auditoretza-txostenak Euskadi.eus webguneko gardentasunaren/informazio ekonomiko eta finantzarioaren atarian: <https://www.gardena.euskadi.eus/informazioa-gardena/-/euskal-gardentasun-ekonomikoa-eta-finantzarioa/>.)

Erakunde guztietan, kanpoko auditoretzarik egin ez zaien 10 erakunde autonomoak barne, aurreko ataletan deskribatutako auziak alde batera, ondorioztatu dugu ez dagoela gure txostenean jakinarazi beharrekoa den auditoretzan aintzat hartzen den bestelako arrisku esanguratsurik.





V. KUDEAKETA-ORGANOEN, ADMINISTRATZAILEEN ETA GOBERNU- ETA ZUZENDARITZA-ORGANOEN ERANTZUKIZUNA

Erakunde autonomo, partzuergoen zuzendaritza, sozietateen administrazio-kontseilu, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako administratzaile eta fundazioen zuzendaritzen kasuan, Ekonomia eta Ogasun Sailak urteko kontuak egiteko erantzukizuna du, EAEko Administrazio Orokorraren erakundeko ondarearen, finantza-egoeraren, emaitzen eta aurrekontuaren exekuzioaren irudi zuzena adierazteko, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoaren arau-esparruaren arabera (zeina memoriako 2. oharrean identifikatu baita); baita urteko kontuak iruzurratik edo akatsagatik oker materialik gabe prestatu ahal izateko beharrezkotzat jotako barne-kontrolari jarraikiz.

Partzuergoen batzar nagusiek, sozietateen akziodunen batzarrek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoen administrazio kontseiluek/kontseilu errektoreak/zuzendaritza kontseiluek eta fundazioen patronatuek urteko kontuak onartzeko erantzukizuna dute.

EAEko 2022. urteko aurrekontu orokorren likidazioa Eusko Legebiltzarrak aztertzeke zain dago.

Gainera, erakundearen kudeaketa- eta gobernu-organoek bermatu behar dute ekitaldian zehar egindako jarduerak, aurrekontuko eta finantzako eragiketak eta urteko kontuetan jasotako informazioa bat datozela aplikatzekoak zaizkien arauekin; berebat, egoki iritzitako barne-kontrolako sistema bat ezarri behar dute, gauzatutako jarduerak legeko ez-betetzerekin ez duela bermatzeko.

VI. HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburua da arrazoizko segurtasuna izatea adierazteko finantza-egoerek, oro har, ez dutela iruzur edo errore baten ondoriozko oker materialik eta kontu horietan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa zaien araudiarekin, gure iritzia jasoko duen fiskalizazio-txosten bat egiteko helburuarekin.

Arrazoizko ziurtasuna izateak ziurtasun maila handia dagoela esan nahi du, baina ez du bermatzen kanpo kontrolako organoak arautzen dituen araudiaren arabera egindako fiskalizazioak beti akats materiala aurkituko duenik, halakorik dagoenean. Akatsak iruzur edo errore baten ondorio izan daitezke eta/edo legea ez betetzearen ondorio, eta materialtzat jotzen dira Epaitegi honen irizpideak aplikatuta, baldin eta arrazoiz aurreikus badaiteke txostenen erabiltzaileen erabakietan eragina izango dutela.





VII. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasota daude, alde batetik, ekonomia eta finantza jardura zuzentzen duten printzipioak betetzean eragin nabarmenik ez duten akatsak; eta, bestetik, kudeaketa hobetzeko agerian jarri diren prozedurazko alderdiak.

VII.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- IVAP, Osalan, Emakunde eta Kontsumobide erakunde autonomoen 2022ko ekitaldiko aurrekontuen aurreproiektuak, EJri bidaltzen zaizkionak, ez dituzte onartu erakunde bakoitzeko organo eskudunek. Kontsumobideren kasuan, hura sortzeko legearen arabera, Zuzendaritza Kontseilua, gainera, urteko kontuak onartzeko elkartuko da.
- Hazi fundazioaren aurrekontuek eta likidazioak ez dute jasotzen gerorako konpromisoen egoera-orririk, zeinetan jasotzen baitira GOE "Gastronomy Open Exosystem" ekimena garatzeko hitzarmenetik eratorritako 400.000 euroren obligazioak (2023ko abenduaren 31ra arteko indarraldia du hitzarmen horrek).
- PLEA erakunde autonomoaren, Finantzen Euskal Institutua zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren eta EJIE, VISESA, EITB Media eta Ihobe sozietate publikoen aurrekontuen likidazioan jasotako konpromiso-kredituen egoera-orrietan ez dago hurrengo ekitaldietarako konprometitutako krediturik, 280.000 eta 715.462 euroak eta 1,5, 6,9, 5,8 eta 3,5 milioi eurorenak, hurrenez hurren.
- Neikerrek, GLEA eta EGOk gainditu egin dituzte murrizgarriak diren partiden aurrekontu-zuzkidurak, dagozkien aurrekontu-aldaketak izapidetu gabe.

VII.2 PERTSONALA

- Emakunde erakunde autonomoko lanpostuaren zerrendetan, lan-kontratudun langileentzat gordetako lanpostu 1 dago, eta, enplegu publikoaren araudian xedatutakoaren arabera, lanpostu hori karrerako funtzionarioentzat gordeta egon beharko luke.
- EGO eta Hazi fundazioetako aurrekontu-plantillek ez dute barne hartzen 2020ko eta 2019ko ekitaldietatik, hurrenez hurren, okupatutako lanpostu bana.
- Ez dago jasota Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren nahitaezko txostena, Lehen lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren 2022ko abenduaren 5eko Aginduari buruzkoa, zeinaren bidez onartzen baitira EAeko Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileetako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri orokorrak eta espezifikoak, ez eta PLEA erakunde autonomoko lan-kontratudun langileen 77 plazen deialdiei buruzkoa ere
- 2022ko abenduaren 31n, Hazi fundazioan eta VISESA sozietatean 10 eta 1 plaza daude, hurrenez hurren, aurreko urteetako kontratu mugagabe ez-finkoa duten pertsonak okupatuta, eta plaza horiek ez dira sartu 20/2021 Legean aurreikusitako aldi baterako





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuetan. Gomendagarria da kontratu horien egoera erregularizatzea.

- GLEA eta Unibasq zuzenbide pribatuko erakunde publikoek egindako aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuetako lan-eskaintza publikoak 2022ko ekainaren 1a eta gero onartu eta argitaratu dira, araudi aplikagarriak ezarritako mugaegunaren ostean.
- Neiker SAK eta Alokabide SAK obra edo zerbitzu jakin baterako 3 urtetik gorako antzinatasuna duten aldi baterako 3 eta 5 kontratu dituzte 2022ko abenduaren 31n. Gomendagarria litzateke, sektore publikoan behin-behinekotasun tasa murrizteko, lanpostu horien egiturazko izaera aztertzea.
- Musikene eta EGO fundazioen, URA, EKP eta EITB zuzenbide pribatuko erakunde publikoen, eta Eusko Trenbidea SAU eta EITB Media, SAUren organo eskudunek berriaz onartu behar dute urteko ordainsarien igoera.
- Hazi fundazioak 2022an egindako hautaketa-prozesu baten deialdiaren oinarrietan, zeinaren ondorioz aldi baterako beharretarako lan-poltsa bat sortu baitzen, aplikatutako gutxieneko balorazio-atalaseak argitaratu behar ziratekeen.
- EEE taldeko sozietate diren EEEK, SHESAk eta BIMEPEk beren langileekin 2018an sinatutako hitzarmena, zeina 2022ko ekitaldian indarrean baitzegoen, ez da erregistratu Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan, eta, beraz, ez da aldizkari ofizialean argitaratu.
- Itelazpi SA, Ihobe SA, ETS, Finantzen Euskal Institutua, EITB, EEE, BIMEP SA, Teknologia Parkea SA eta Arabako Teknologia Parkea SAN kontratu mugagabeko langileak hautatzeko prozedura hobetzeko, komenigarria litzateke prozesuaren faseetan aurkeztutako hautagaitza guztiak ezesteko arrazoiak agiri bidez jasota uzteko betebeharra barne hartzea.





VII.3 KONTRATAZIOA

Kontratazioa aztertzean honako alderdi hauek bereizi ditugu (ikus A.4):

- 49,9 milioi euroan esleitutako PLEA erakunde autonomoaren 3 espedienteetan (1etik 3ra bitarteko zk.), Haurreskolak partzuergoaren (18 zk.), Hazi fundazioko 5 espedienteetan (19tik 23ra bitarteko zk.), BIOEF fundazioko 2 espedienteetan (26 eta 27 zk.) eta sozietate publikoen eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoen 15 espedientetan (42, 48, 52tik 56ra eta 59tik 66ra bitarteko zk.), zerbitzu juridikoak ez du jasota utzi administrazio-klausula berezien pleguetako klausula espezifikoen berrikuspen aldekoa. Gainera, Hazi eta BIOEF fundazioen eta Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkearen SA espedienteetan, egindako ABBPen berrikuspena ere jaso beharko litzateke.
- Ihobe SArene espediente batean (62. zk.), guztira 661.555 euroan loteka esleitutakoan, zuzendari nagusiak onartu ditu espedientea abiaraztea eta haren gastua; ordea, balio zenbatetsia aintzat hartuta, Administrazio Kontseiluko presidenteak egin beharko zukeen hori.
- Guztira 1,1 milioi euroan esleitutako PLEA erakunde autonomoaren 3 espedienteren AKPPetan aurreikusitako aldaketek (1etik 3ra) ez dituzte betetzen modu argi, zehatz, zalantzarik gabe aurreikusgarriak, eta objektiboki egiaztagarriak izateko baldintzak.
- 16,7 milioi euroan esleitutako 19 espedientetan (1, 3, 10, 12, 14, 19tik 21era, 24, 26tik 30era, 35, 37, 59, 62 eta 63 zk.), administrazio-baldintza berezien pleguek ez dituzte banakatzen kostu zuzenak, zeharkakoak, behin-behineko beste gastu batzuk eta, hala badagokio, soldaten kostua. Azken gabezia hori 13,4 milioi euroan esleitutako beste 10 espedientetan gertatzen da (4, 7, 17, 18, 36, 61, 64, 65, 70 eta 78. zk.), eta, beraz, horietan guztietan ez da justifikatzen lizitazioaren oinarritzko aurrekontua merkatuko prezioetara egokituta dagoenik.
- 24,4 milioi euroan esleitutako 15 kontraturen (22, 23, 28, 29, 31-39, 72 eta 79 zk.) administrazio-klausula berezien agirietan ez da jasotzen nola zehaztu eskaintza bat anormaltasun-presuntzioan dagoen. Gainera, 36,9 milioi euroan esleitutako beste 16 espedientetan (4, 8tik 10era, 17, 19tik 21era, 26, 30, 40, 43, 45etik 47ra eta 78 zk.), administrazio-baldintza berezien pleguetan ere ez da jasotzen, lizitatzaille bakarria aurkeztzen denean, eskaintzak balio anormalak edo neurritz kanpokoak dituen baloratzeko modurik.
- Itelazpi SAK 3,3 milioi euroan esleitutako zerbitzu-kontratu baten administrazio-baldintza berezien pleguak (78. zk.) Estatuko KPlari lotutako prezioak berrikusteko klausula bat jasotzen du, nahiz eta araudiak, duen izaeragatik, ez duen aurreikusten aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspenik, ezta prezioen indize orokorreko lotura ere. Bestalde, 8,5 milioi euroan esleitutako Eusko Trenbideak SAUren beste espediente batean (44. zk.), administrazio-baldintza berezien pleguak prezioak eguneratzea aurreikusten du, zigorrik ez jartzearekin eta ezarritako lan-programa betetzearekin lotuta; horiek, baina ez dira errendimendu-helburutzat hartzen, SPKLren 102.6 artikuluaaren arabera.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- 22,8 milioi euroan esleitutako 16 kontraturen (7, 8, 11, 18, 21, 22, 26, 27, 48, 50-53, 57, 58 eta 63 zk.) ABBPetan ez da jasotzen enpresa sortu berrien kaudimen teknikoa egiaztatzeko modua. Gainera, 9,9 milioi euroan esleitutako beste 4 espedientetan (40, 45, 47 eta 72 zk.), pleguek ez dute inolako bitartekorik ezartzen kaudimen tekniko edo ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko, eta horietako bitan eta beste batean (38, 40 eta 72 zk.), kaudimen teknikoa egiaztatzeko bitarteko batzuk ez daude araudian jasota. Beste batean (43 zenbakia), 19,2 milioi euroan esleitua, kaudimen teknikoaren barruan sartuko litzatekeen kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eskatzen da.
- Xedea lotetan banatu duten 6 espedientetan (10, 22, 44 eta 47 zk.), 19,7 milioi euroan esleituak, bai kaudimen teknikoa, bai kaudimen ekonomiko eta finantzarioa ezarri dira, ez lote bakoitzaren balioa aintzat hartuta, baizik eta multzoaren balioa aintzat hartuta.
- EJIE SAK 15,8 milioi euroan esleitutako hornidura-kontratu batean (73 zk.), lote bakoitzerako eskatutako kaudimen ekonomikoa berbera izan da; ordea, lote horietako 3rentzat neurritz kanpoko da, eta zenbatekoa ez dago behar bezala justifikatuta espedientean.
- Proposamenak aurkezteko epea araudian ezarritakoa baino laburragoa da, Hazi fundazioak izapidetutako kontratu batean eta EJIE sozietate publikoak izapidetutako beste batean (23. eta 72. zk.), guztira 2,5 milioi euroan esleituak.
- 4,8 milioi euroan esleitutako 4 kontratutan (4, 13, 20 eta 38 zk.), administrazio-baldintza berezien pleguetan balio-judizio baten mende dauden adjudikazio-irizpideen definizioa generikoa da, balioztatu beharreko alderdi zehatzak eta horien haztapena ez baitira zehazten edo behar beste zehazten. Gainera, horietako 3tan eta beste 2 gehiagotan (4, 13, 15., 20 eta 25 zk.), txosten teknikoa generikoa da eta ez ditu behar bezala justifikatzen esleitutako puntuazioak.
- 6 milioi euroan esleitutako 4 espedienteren (1, 17, 24 eta 51 zk.) txosten teknikoek azpi-irizpideak balioztatzen dituzte, eta horien haztapena ez da zehazten edo ez da ABBPetan sartzen. Gainera, 30,8 milioi euroren zenbatekoa egin duten 4 espedientetan (41, 42, 44 eta 64 zk.), txosten teknikoak, balio-iritzari lotutako irizpideak balioztatzen dituenak, ez ditu justifikatzen aurkeztutako eskaintzei esleitutako puntuazioak.
- Habe erakunde autonomoaren zerbitzu-kontratuaren ABBPn (7. zk.), 112.304 euroan esleitutakoan, kaudimen-irizpideak jasotzen dira.
- Erregulazio harmonizatuko 8 espedientetan, HAZI fundazioko 2 espedientetan (19 eta 20 zk.) eta EJIE sozietate publikoko 6 espedientetan (68tik 73ra zk.), guztira 53 milioi euroan esleituak, aktan jaso beharko lirateke kontratazio-mahaiak egindako jarduketa guztietan hartutako erabakiak.
- Erregulazio harmonizatuko 9 espedientetan, 55 milioi euroan esleitutakoak, (59, 61, 62, 68tik 73ra bitarteko zk.) eratutako kontratazio-mahaietako kide juridikoaren eta/edo ekonomiko eta aurrekontukoaren eginkizunak ez daude argi ezarrita aktetan. Gainera, beste 2 espedientetan (65 eta 66 zk.), 2,3 milioi euroan esleituak, kontratazio-mahaia ez dago behar bezala eratuta A gutun-azala irekitzean, idazkaria bakarrik bertaratu baita.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- 147,5 milioi euroan esleitutako 44 espedientetan (4tik 8ra, 10etik 10era, 16tik 27ra, 41, 42, 48tik 66ra, 74tik 77ra eta 81 zk.), jasota utzi beharko litzateke kontratazio-mahaiak edo dagokion teknikariak egiaztatu duela kaudimen-baldintzak betetzen direla kontratuak esleitzeko proposamenaren ondoren.
- Ez da eskatu 1,7 milioi euroan esleitutako 2 kontratutan aurkeztutako eskaintzen justifikaziorik (bata PLEaren hornidurakoa eta bestea Lanbideren zerbitzuetakoa (3. eta 15. zk.), nahiz eta, administrazio-klausula berezien arabera, anormalki baxutzat jotzekoak diren.
- 138,6 milioi euroren zenbatekoa egin duten 21 kontraturen esleipena (11, 14, 31tik 33ra, 38tik 40ra, 49tik 53ra, 58, 65, 69, 71, 74tik 77rako zk.) proposamenak ireki zirenetik gehieneko epea gaindituta egin da, eta horietako 4tan eta beste batean (11, 32, 49, 50 eta 55 zk.) kontratua formalizatu da esleipenaren jakinarazpenetik ezarritako epea gaindituta. Bestalde, 3,9 milioi euroan esleitutako kontratazio-arloko errekurtsio berezia jaso dezaketen beste 11 kontratutan (2, 3, 19tik 22ra, 57, 58, 62, 63 eta 80 zk.), esleipena jakinarazi zenetik 15 egun baliodun igaro baino lehen formalizatu da kontratua.
- Eusko Trenbideak erakundearen hornidura-kontratu baten eta Basquetourreko zerbitzu-kontratu baten behin betiko bermea, 4,4 milioi euroena (45. zk., 1. lotea, eta 60 zk.), atzerapenez eta kontratua formalizatu ondoren eratu dira. Itelazpi enpresaren zerbitzu-kontratu batean (7. zk.) ez da aurkeztu, esleipena egin ondoren, aseguru-polizaren frogagiririk, karatulako 24. klausularen arabera.
- Obra eta zerbitzuetako 56 kontratu esleitzeko ebazpenetan (1, 2, 4tik 21era, 24, 26tik 30era, 32tik 37ra, 41etik 43ra, 48, 51tik 54ra, 57, 59tik 63ra, 65, 66, 68, 69, 74tik 79ra zk.), guztira 194,1 milioi euroan, kontratuaren xede den jardura egiten duten langileei aplikatu beharreko enpresa esleipendunaren hitzarmen kolektiboa adierazi beharko litzateke.
- 3 milioi euroan esleitutako 8 kontraturen (18-23 zenbakiak, 60 eta 66 zk.) esleipenaren jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez egin behar da, epeak zenbatzeko ondorioetarako, eta ez da nahikoa kontratatzailearen profilean argitaratzea.
- Kontratatzailearen profilean ez dira argitaratu 67 kontratu (4tik 6ra bitartekoak, 8tik 15era bitartekoak, 18, 19, 21etik 47ra bitartekoak, 49tik 55era bitartekoak, 59tik 64ra bitartekoak, 66tik 77ra bitartekoak, 80 eta 81 zk.), 259,2 milioi euroren zenbatekoan, ordea, horien formalizazioa argitaratu da, horietako 3tan izan ezik (5, 8 eta 41 zk.). 19,9 milioi euroko erregulazio harmonizatuko 11 kontraturen kasuan (13-15, 25, 36, 37, 39, 41, 55, 56 eta 68 zk.), formalizazio hori ere ez da argitaratu EBAOn.
- 1,1 milioi euroan esleitutako 3 espedientetan (bat Hazikoa eta beste bi Musikenerenak (22, 24 eta 25 zk.), kalitate-prezio erlazio onena aurkeztu duen lizitatzailari aurretiko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko egindako dokumentazio-errekerimendua esleipen-ebazpenaren ondoren egiten zaio.
- 1,1 milioi euroan esleitutako 3 espedientetan ez da formalizatu aldaketa arautzen duen kontratua (16, 33 eta 51 zk.), eta horietako batean (16 zk.) ez da eskatu berme osagarria gordailutzea.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- 29,3 milioi euroan esleitutako espediente baten (76 zk.) zuinketa egiaztatzeko akta kontratua formalizatu zenetik alderdien artean ezarritako epea igaro ondoren formalizatu da. 540.888 euroan esleitutako beste espediente batean (32 zk.), zuinketa egiaztatzeko akta kontratua formalizatu aurrekoa da, eta akta horretatik aurrera hasi zen obra gauzatzen.
- Hasieran 6 asteko iraupena zuen zerbitzu-kontratu bat (8 zk.), Gogora Institutuak 142.118 euroan esleitutakoa, aurreikusitako epea baino 5 hilabete gehiago luzatu da, eta kontratazio-organoak ez du onartu hura luzatzea, ezta kreditua berregokitzea ere, dagokion konpromiso-kreditua onartuta.
- Kontsumobidek oroharreko prezioan 466.500 euroan esleitutako zerbitzu-kontratu baten (10 zk.) 1. lotea gauzatzea ez da iristen preskripzio teknikoen agirian ezarritako prestakuntza-esperientzien eta hezkuntza-proiektuen gutxienekora. Gomendagarria litzateke prezioa unitateko prezioen arabera ezartzea.
- ETSk obra-kontratu bat (51 zk.) aldatzea onartu du, administrazio-klausula berezien agirian aurreikusi ez diren eta gerora sortu diren arrazoiengatik, eta esleitutako zenbatekoa % 19,4 handitu du. Proiektuaren aurretiko definizio desegokiaren ondorio da aldaketa hori, eta, beraz, aldaketa justifikatzen duten arrazoiak ez dira gerora sortutako inguruabarren ondorio.

Beste batzuk

- 2022ko ekitaldian, 34 erakundek ez dute egin edo argitaratu kontratatzailearen profilean Urteko Kontratazio Plana. Plan horietan, gutxienez, erregulazio harmonizatuko kontratuak sartu behar dira. Hala ere, komeni da ekitaldian egitea aurreikusi ziren kontratu guztiak argitaratzea, gardentasun handiagoaren mesedetan eta ETEen lehia errazteko.
- BRTA partzuergoak ez ditu kontratu txikiak 2022ko ekitaldian kontratatzailearen profilean argitaratu.
- Kontratatzailearen profilean argitaratu behar ziren EJIE, SA bitarteko propioari egindako enkarguak, zeinak Osalan eta Emakunde erakunde autonomoek, Hazi eta BIOEF fundazioek, Haurreskolak partzuergoak eta ETS eta GLEA zuzenbide pribatuko erakunde publikoek onartu baitzituzten, bai eta ETSk Itelazpi SAri egindako enkargu bat ere, 1,2 milioi eurokoa (ikus A.4).
- 2022ko ekitaldian zehar, Osalan, Gogora eta Kontsumobide erakunde autonomoek, Hazi, EGO eta Basque Team fundazioek eta EKP zuzenbide pribatuko erakunde publikoak hainbat zerbitzu adjudikatu eta/edo izapidetu dituzte kontratu txiki gisa, 491.041 euroren zenbatekoan guztira; alabaina, zerbitzu horien zenbatekoa, izaera eta/edo jarraitutasuna direla-eta, dagokion esleipen-prozeduraren bidez izapidetu beharko ziratekeen (ikus A.4).
- Euskadiko Orkestra SAK ez du formalizatu denboraldiko irudia diseinatzeko eta inprimatzeko zerbitzuen kontratuan aurreikusitako luzapena. 2022an egindako gastua 59.290 eurorena izan da (ikus A.4).





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Guztira 2,9 milioi euro egin dituzten EKP zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren obra baten harrera-akta eta Neiker sozietate publikoaren beste 2 aurreikusitako amaiera-epea baino hilabete baino gehiagoko atzerapenarekin formalizatu dira, onartutako epearen luzapena kontuan hartuta (ikus A.4).
- Ez da formalizatu URAk 2022ko ekainean onartutako 336.276 euroko aldaketa, Usurbilgo Aginagako saneamenduko 2. proiektu berrituaren kontratuari buruzkoa (ikus A.4).
- Etxepare Institutuak 2022an egindako bidaiia-agentzien zerbitzuari dagokion gastua, 2020an esleitu zena, espedientearen luzapenean onartutako zenbatekoa baino 62.727 euro handiagoa (% 35,2) izan da (ikus A.4).
- IVAPek HABEri egindako kudeaketa-mandatuaren urteko diru-zuzkidura 3,8 milioi eurokoa izan zen, 2020/2021 ikasturteko datuak oinarri hartuta. Kudeaketa-mandatu horren bidez, ikastaroak antolatu ziren, bai aurrez aurrekoak bai autoikaskuntzakoak, administrazio publikoen zerbitzuko langileentzat. Urteko likidazioan ez dago jasota fakturatutako zenbatekoa benetan egindako gastuei dagokienik (ikus A.4).



VII.4 DIRULAGUNTZAK (ikus A.5)

Lehiari lotutako dirulaguntzak

- PLEA erakunde autonomoak eta Hazi Fundazioak ez dute dirulaguntzen plan estrategikorik, eta ez dute azalpen-memoriarik egin helburuak, gauzatze-kostuak eta finantzaketa-iturriak jasotzeko. Era berean, PLEA erakunde autonomoak ez du, ekitaldia amaitzean, gauzatutako dirulaguntzen programen ebaluaziorik egin, lortutako emaitzak, horien erabilgarritasuna eta gizarte-eragina eta programa horiek mantendu edo kentzearen egokitasuna aztertzeko.
- Habek izapidetutako dirulaguntza batean, zeina jarraitutasunez ematen baita (4 zk.) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ez da argitaratu emakida-proposamena egingo duen organoaren osaera.
- Kontsumobidek emandako laguntza-lerro batean (9 zk.), epaimahai kalifikatzaileak zehazten du balorazio-irizpideen puntuen esleipena. Deialdiaren oinarriek beharrezko informazio guztia jaso behar dute, eskatzaileek prozesuaren baldintza guztiak aldeztu aurretik ezagutu ditzaten. Gainera, oinarrietan aurreikusitako gehieneko epetik 3 hilabete baino gehiago igaro ondoren ebatzi da deialdia.
- 4 dirulaguntzatan (3, 5, 22 eta 24 zk.) ez da justifikatzen laguntzen eskatzaileei emandako puntuazioen esleipena, oinarrietan jasotako irizpideak aplikatuta. Gainera, dirulaguntza horien 2 erakunde onuradunei (3 eta 5 zk.), emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren egiaztatgiriak aurkeztu arren, ez zaie eskatu diruz lagundutako proiektuaren guztizko zenbatekoa justifikatzeko.





VII.5 BESTE BATZUK

- 2022ko ekitaldian zehar merkataritzako eragiketen batez besteko ordainketa epeak 30 eguneko gehieneko epea gainditu du -merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako borrokan neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeak agindutakoa- Eustat, Kontsumobide eta Lanbide erakunde autonomoetan, BRTA Partzuergoan, EITB eta Aukerak zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan.
- 2022an, erakunde autonomoek, partzuergoek, fundazioek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek 11,7, 1,1, 2,5, 113,5 eta 81,2 milioi euro ordaindu dituzte, hurrenez hurren, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurrien araudiak ezarritako 30 eguneko gehieneko epea gaindituta.
- Gardentasunari buruzko Legea betetzeari dagokionez, BRTA partzuergoak Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformarako esteka bat baino ez du argitaratzen bere webgunean, eta Zumaia Kirol Portua sozietate publikoak ez du web-orririk, eta ez da EJRen webgunean argitaratzen eskatutako informazio guztia.
- Gomendagarria litzateke funtsak erabiltzeko baimendutako sinadurak mankomunatuak izatea Haurreskolak eta BRTA partzuergoen diruzaintza-kontu nagusietan, Hazi, EGO eta Musikene fundazioen diruzaintza-kontuetan, EEE, Aukerak, EKP, GLEA, Etxepare, Unibasq eta SPRI zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan, eta Harana-Kontrasta (EEE taldea), Euskadiko Orkestra, Alokabide eta Zumaia Kirol Portua sozietate publikoetan.







Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERANSKINAK

A.1 URTEKO KONTUAK

Fiskalizaziogai diren urteko kontuak argitaratuta daude Euskadi.eus webguneko gardentasun ataria/informazio ekonomikoa eta finantzarioa: <https://www.gardena.euskadi.eus/informazioa-gardena/-/euskal-gardentasun-ekonomikoa-eta-finantzarioa/> Horien guztien laburpen bat egingo dugu segidan.

A.1.1 ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA PARTZUERGOAK

AURREKONTU KORRONTEAREN LIKIDAZIOAREN LABURPENA-SARRERAK
(ESKUBIDE KONTABILIZATUAK) 2022

Euroak milakotan

ENTIDAD	HASIER. AURREK.	B-BET. AURREK.	3. KAP.	4. KAP.	5. KAP.	6. KAP.	7. KAP.	8. KAP.
PLEA	24.995	24.995	244	22.299	-	-	-	-
LEA.....	1.777	1.777	371	1.351	-	-	-	1
Emakunde.....	7.809	7.809	5	7.445	-	-	-	1
Eustat	15.531	15.531	56	14.540	-	-	60	1
Habe	56.262	56.262	7.695	45.819	-	-	700	3
Gogora.....	4.922	5.071	26	2.773	-	-	140	-
IVAP	20.822	20.822	3.047	16.767	-	-	-	6
Kontsumobide.....	7.275	7.275	838	6.042	-	-	-	1
Lanbide	908.453	1.150.954	60.167	939.717	1	-	17.154	26
Osalan	17.259	17.259	28	14.992	-	-	12	8
ERAK. AUT. GUZTIRA	1.065.105	1.307.755	72.477	1.071.745	1	-	18.066	47
Haurreskolak.....	65.700	65.700	7.735	59.002	-	-	-	-
BRTA.....	1.599	1.599	495	1.035	-	-	-	-
PARTZUERGOAK GUZTIRA	67.299	67.299	8.230	60.037	-	-	-	-





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTU KORRONTEAREN LIKIDAZIOAREN LABURPENA-GASTUAK

(OBLIGAZIO KONTABILIZATUAK) 2022

Euroak milakotan

ENTIDAD	HASIER. AURREK.	B-BET. AURREK.	1. KAP.	2. KAP.	3. KAP.	4. KAP.	6. KAP.	7. KAP.	8. KAP.
PLEA	24.995	24.995	15.484	5.844	-	716	515	-	-
LEA.....	1.777	1.777	1.120	297	-	1	5	-	24
Emakunde.....	7.809	7.809	2.471	2.857	-	2.242	-	-	-
Eustat	15.531	15.531	9.936	3.426	-	5	287	-	-
Habe	56.262	56.262	4.310	8.162	-	39.859	186	109	-
Gogora.....	4.992	5.071	766	610	-	837	60	-	-
IVAP	20.822	20.822	8.192	8.322	-	1.743	6	-	-
Kontsumobide.....	7.275	7.275	3.727	1.880	-	1.386	24	2	-
Lanbide	908.453	1.150.954	59.314	27.537	3	929.924	8.183	4.028	3
Osalan	17.259	17.259	10.924	3.087	1	1.242	231	-	6
ERAK. AUT. GUZTIRA	1.065.175	1.307.755	116.244	62.022	4	977.955	9.497	4.139	33
Haurreskolak.....	65.700	65.700	61.066	1.280	-	-	515	-	-
BRTA.....	1.599	1.599	352	1.051	-	-	4	-	-
PARTZUERGOAK GUZTIRA	67.299	67.299	61.418	2.331	-	-	519	-	-

2022KO AURREKONTU-EMAITZAREN LIKIDAZIOAREN LABURPENA ETA

DIRUZAINZA GELDIKINA 2022KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

ERAKUNDEA	AURREK. EMAITZA KORR.	AURR.EKIT.. AURREK. EMAITZA	EKIT. AURREK. EMAITZA	DIRUZ. GELDIK.	LOTUTAKO DIRUZ GELDIK.	ZALANTZ. .KOBRA. ESKUB.	DIRUZ. GELDIKIN ERABILG.
PLEA	(16)	-	(16)	8.535	-	-	8.535
LEA.....	276	(8)	268	10.312	-	(805)	9.507
Emakunde.....	(119)	-	(119)	1.829	-	-	1.829
Eustat	1.003	-	1.003	5.278	-	-	5.278
Habe	1.591	-	1.591	5.698	-	(3)	5.695
Gogora.....	666	-	666	1.505	-	-	1.505
IVAP	1.557	(1)	1.556	14.828	-	(3)	14.825
Kontsumobide.....	(138)	(72)	(210)	3.986	-	(130)	3.856
Lanbide	(11.927)	(10.470)	(22.397)	315.881	(37.412)	(38.385)	240.084
Osalan	(451)	-	(451)	8.570	-	-	8.570
ERAK. AUT. GUZTIRA	(7.558)	(10.551)	(18.109)	376.422	(37.412)	(39.326)	299.684
Haurreskolak.....	3.876	-	3.876	14.412	-	(225)	14.187
BRTA.....	124	-	124	1.055	-	-	1.055
PARTZUERGOAK GUZTIRA	4.000	-	4.000	15.467	-	(225)	15.242





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BALANTZEEN LABURPENA 2022KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

AKTIBO				PASIBO			OND.GARB
	EZ-	.AKTIBO	AKTIBOA	ONDARE	EZ-	PASIBO	ETA PASIB.
ERAKUNDEA	KORRONTEA	KORRONTEA	GUZTIRA	GARBIA	KORRONTEA	KORRONTEA	GUZTIRA
PLEA	8.336	11.568	19.904	16.871	-	3.033	19.904
LEA.....	230	9.684	9.914	9.737	-	177	9.914
Emakunde.....	428	3.732	4.160	2.258	-	1.902	4.160
Eustat	433	7.399	7.832	5.711	-	2.121	7.832
Habe	2.384	9.782	12.166	7.772	307	4.087	12.166
Gogora.....	2.330	1.905	4.235	3.836	-	399	4.235
IVAP	1.039	16.105	17.144	15.864	-	1.280	17.144
Kontsumobide.....	774	4.905	5.679	4.629	-	1.050	5.679
Lanbide	35.477	390.496	425.973	312.717	255	113.001	425.973
Osalan	5.047	11.555	16.602	13.616	-	2.986	16.602
ERAK. AUT. GUZTIRA	56.478	467.131	523.609	393.011	562	130.036	523.609
Haurreskolak.....	764	17.710	18.474	14.939	-	3.535	18.474
BRTA.....	145	1.286	1.431	1.243	-	188	1.431
PARTZUERGOAK GUZTIRA	909	18.996	19.905	16.182	-	3.723	19.905

2022KO GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUEN LABURPENA

Euroak milakotan

ERAKUNDEA	KUDEAKETA		ARRUNTEKO		KUDEAK.		EKITALD.
	ARRUNTEKO SARRERAK	HORNI-KUNTZA	PERTSON. GASTUAK	BESTE GTU. BATZUK	GAINER. SARRERAK	GAINER. GASTUAK	
PLEA	22.542	-	(15.484)	(5.844)	-	(1.242)	(28)
LEA.....	1.714	-	(1.120)	(298)	-	(13)	283
Emakunde.....	7.446	-	(2.471)	(2.857)	5	(2.269)	(146)
Eustat	14.656	-	(9.936)	(3.425)	-	(175)	1.120
Habe	54.422	-	(4.310)	(8.678)	1	(40.084)	1.351
Gogora.....	2.913	-	(766)	(610)	26	(916)	647
IVAP	19.797	-	(8.192)	(8.299)	-	(1.803)	1.503
Kontsumobide.....	6.773	-	(3.727)	(1.880)	103	(1.594)	(325)
Lanbide	957.724	-	(59.314)	(27.373)	60.494	(957.315)	(25.784)
Osalan	15.078	-	(10.924)	(3.088)	-	(1.459)	(393)
ERAK. AUT. GUZTIRA	1.103.065	-	(116.244)	(62.352)	60.629	(1.006.870)	(21.772)
Haurreskolak.....	66.735	-	(61.065)	(1.280)	2	(361)	4.031
BRTA.....	1.471	-	(352)	(1.061)	-	(31)	27
PARTZUERGOAK							
GUZTIRA	68.206	-	(61.417)	(2.341)	2	(392)	4.058





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.1.2 FUNDAZIOAK, TALDEAK, ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA SOZietateak

BALANTZEEN LABURPEN 2022KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	AKTIBO				PASIBO		OND.GARB.
	EZ-	AKTIBO	AKTIBOA	ONDARE	EZ-	PASIBO	ETA PASIB.
ERAKUNDEA	KORRONTEA	KORRONTEA	GUZT.	GARB.	KORRONT.	KORRONTEA	GUZTIRA
Elika	8	397	405	282	17	106	405
Basque Team.....	30	676	706	594	-	112	706
Hazi	5.082	17.833	22.915	7.604	530	14.781	22.915
EGO.....	27	447	474	382	-	92	474
Musikene	2.387	2.745	5.132	2.908	-	2.224	5.132
BIOEF	231	10.574	10.805	975	11	9.819	10.805
FUNDAZIOAK GUZTIRA	7.765	32.672	40.437	12.745	558	27.134	40.437
EEE Taldea.....	156.300	359.340	515.640	231.121	65.136	219.383	515.640
EITB taldea	51.112	53.814	104.926	77.709	-	27.217	104.926
SPRI Taldea.....	338.697	558.713	897.410	802.441	28.032	66.937	897.410
Eusko Trenbideak SAU	334.445	54.121	388.566	271.190	92.369	25.007	388.566
Euskotren Particip. SA .	-	357	357	356	-	1	357
Finantzen Euskal Instit.	503.889	183.092	686.981	463.976	186.723	36.282	686.981
ETS.....	1.304.428	168.639	1.473.067	1.092.504	331.364	49.199	1.473.067
URA	214.918	39.441	254.359	238.384	-	15.975	254.359
Aukerak.....	21	3.298	3.319	-	-	3.319	3.319
EKP	11.725	14.854	26.579	23.449	1.366	1.764	26.579
GLEA	2.368	5.877	8.245	2.407	-	5.838	8.245
Ettxepare	299	965	1.264	250	-	1.014	1.264
Unibasq.....	608	276	884	573	7	304	884
TALDEEZ KANPOKO							
ZPEP GUZTIRA	2.038.256	416.442	2.454.698	1.821.543	519.460	113.695	2.454.698
Basquetour SA.....	513	3.483	3.996	536	-	3.460	3.996
Ihobe SA.....	3.234	8.598	11.832	3.173	9	8.650	11.832
Euskadiko Orkestra SA	748	2.139	2.887	1.186	-	1.701	2.887
Alokabide SA	359.681	3.559	363.240	324.127	25.242	13.871	363.240
EJIE SA	13.776	53.967	67.743	17.850	730	49.163	67.743
VISESA.....	35.124	287.283	322.407	103.042	17.441	201.924	322.407
Itelazpi SA.....	29.997	12.184	42.181	40.874	518	789	42.181
Neiker SA.....	5.360	6.999	12.359	4.500	1.427	6.432	12.359
Finkatze Kapitala.							
Finkatuz SA.....	100.266	162.598	262.864	262.671	-	193	262.864
Zumaiako Kirol Portua SA	1.918	2.373	4.291	3.746	384	161	4.291
TALDEEZ KANPOKO							
SOZIET. GUZTIRA	550.617	543.183	1.093.800	761.705	45.751	286.344	1.093.800





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2022KO GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUEN LABURPENA

Euroak milakotan

	NEGOZIO						
	ZIFRAREN			USTIAP.			
	ZENBATEKO	HORNI-	PERTSON.	BST. GTU.	GAINERAKO	GAINER.	EKITALD
ERAKUNDEA	GARBIA (*)	DURAK	GASTUAK	BATZUK	SARRERAK	GASTUAK	EMAITZA
Elika	1.052	-	(638)	(377)	-	-	37
Basque Team.....	2.135	-	(192)	(757)	24	(1.101)	109
Hazi	19.204	(1.615)	(11.894)	(11.844)	6.577	(382)	46
EGO	327	-	(144)	(223)	49	(7)	2
Musikene	10.653	-	(9.651)	(1.106)	1.395	(229)	1.062
BIOEF	5.239	(88)	(3.308)	(1.383)	176	(775)	(139)
FUNDAZIOAK GUZTIRA	38.610	(1.703)	(25.827)	(15.690)	8.221	(2.494)	1.117
EEE Taldea.....	47.916	(2.729)	(10.148)	(109.713)	127.045	(17.639)	34.732
EITB taldea	13.306	(54.646)	(75.827)	(35.233)	155.799	(8.582)	(5.183)
SPRI Taldea.....	43.114	(53.796)	(19.578)	(73.451)	115.581	(15.514)	(3.644)
Eusko Trenbideak SAU	27.561	(5.957)	(70.188)	(45.059)	112.695	(18.624)	428
Euskotren Particip. SA	-	-	-	(31)	186	-	155
Finantzen Euskal Instit.	5.021	-	(764)	(960)	-	(548)	2.749
ETS.....	64.445	(46.902)	(18.418)	(33.187)	80.569	(47.686)	(1.179)
URA	7.849	(14.557)	(11.134)	(8.797)	33.588	(6.949)	-
Aukerak.....	7.283	(1.741)	(3.481)	(2.443)	385	(3)	-
EKP	5.664	(1.197)	(659)	(2.831)	379	(754)	602
GLEA	-	(239)	(2.223)	(47.091)	49.643	(110)	(20)
Etxepare	-	-	(926)	(2.569)	3.541	(46)	-
Unibasq.....	-	-	(701)	(610)	1.339	(42)	(14)
TALDEEZ KANPOKO							
ZPEP GUZTIRA	90.262	(64.636)	(38.306)	(98.488)	169.444	(56.138)	2.138
Basquetour SA.....	-	-	(1.404)	(7.856)	9.215	(26)	(70)
Ihobe SA.....	31	-	(3.989)	(10.326)	14.379	(95)	-
Euskadiko Orkestra SA	1.544	-	(7.767)	(2.264)	8.538	(127)	(76)
Alokabide SA	35.908	(55.319)	(6.891)	(10.750)	42.514	(7.869)	(2.407)
EJIE SA	171.101	(94.903)	(15.338)	(54.960)	653	(6.553)	0
VISESA.....	47.973	(34.665)	(6.080)	(4.767)	16.004	(17.504)	961
Itelazpi SA.....	12.581	(2.676)	(1.345)	(7.255)	365	(2.336)	(666)
Neiker SA.....	1.047	(1.145)	(9.910)	(3.372)	14.353	(982)	(9)
Finkatze Kapit. Finkatuz SA	-	-	-	(215)	-	-	(215)
Zumaiako Kirol Portua SA	-	-	-	(88)	594	(413)	93
TALDEEZ KANPOKO							
SOZIET. GUZTIRA	270.185	(188.708)	(52.724)	(101.853)	106.615	(35.905)	(2.389)

(*) Fundazioen kasuan jarduera propioak eragindako sarrerak dira.





A.2 ALDERDI OROKORRAK ETA APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

Jarraian, erakunde mota eta jarduera nagusia zehazten dira, bai eta, auditoretza-txostena izanez gero, iritzia nolakoa izan den ere, hau da, aldatu gabea edo aldekoa den edo salbuespenak dituen iritzia den:





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ENTITATEA	MOTA	JARDUERA
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	Erakunde autonomoa	Segurtasun publikoaren arloko prestakuntza, hautaketa, ikerketa eta berrikuntza, bai Ertzaintzari dagozkion arloetan, bai babes zibilari eta larrialdiei dagozkienetan ere.
Lehiaren euskal agintaritza	Erakunde autonomoa	Euskadiko jardura ekonomikoen lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea.
Emakumearen Euskal Erakundea	Erakunde autonomoa	Euskadin emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzeko behar den jardura garatzea.
Estatistikaren Euskal Erakundea	Erakunde autonomoa	Euskadiko estatistika-informazio ofiziala garatu, ekoiztu eta zabaltzea.
Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea eta Euskaltegiak Arautzekoa	Erakunde autonomoa	Helduen alfabetatzea eta euskalduntzea sustatzea.
Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua	Erakunde autonomoa	Euskal gizartearen askatasunaren aldeko borrokaren, giza eskubideen bermearren eta bizikidetzaren demokratikoaren oroimenean funtsezkoak diren balio etikoei eta printzipio demokratikoei buruzko politika publikoa diseinatzeko, sustatzeko, garatzeko eta gauzatzen parte hartzea.
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea	Erakunde autonomoa	Euskal herri-administrazioetako langileak hautatu eta etengabe prestatzea, administrazioan euskararen erabileraren normalizazioa bultzatzea, itzulpen ofiziala eta terminologia juridiko-administratiboa.
Kontsumobide	Erakunde autonomoa	Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko politikak definitzea, planifikatzea, bultzatzea eta gauzatzea.
Lanbide, euskal enplegu zerbitzua	Erakunde autonomoa	Enplegu-politikak kudeatzea eta lan-arloko legeria betearaztea.
Laneko Segurtasun eta Osasuneko Euskal Erakundea	Erakunde autonomoa	Laneko ingurumenak bere dituen arriskuen kausak murrizteko politikak kudeatzea.
Haurreskolak (2)	Partzuergoa	Haur-eskolen eta hiru urtetik beherakoen asistentzia- eta hezkuntza-arretaren kudeaketa integrala.
Basque Research and Technology Alliance (1)	Partzuergoa	Partzuergoko eragileen gaitasun zientifiko-teknologikoak antolatzea, haien jardura zientifiko-teknologikoaren koordinazioaren, plangintzaren eta jarraipenaren bidez, Euskadin eta nazioartean erreferente izateko.
ELIKA-Nekazaritza Elikagaien Segurtasuneko Euskal Erakundea (1)	Fundazioa	Nekazaritzako elikagaien segurtasunaren arloko informazioa, aholkularitza eta sustapena.
Basque Team Fundazioa (1)	Fundazioa	Goi-mailako euskal kirolaren garapen egokia bultzatzea, bai eta euskal kirolariak goi-mailako emaitzak lortzea ere.
Hazi Fundazioa (1)	Fundazioa	Lehen sektorearen, landa- eta itsasertz-ingurunearen eta nekazaritzako elikagaien





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

		industriaren lehiakortasuna, jasangarritasuna eta berrikuntza bultzatzea, sustatzea eta garatzea.
Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa (1)	Fundazioa	Euskal gazteen artean musika-balioak sustatzea, musika-jardun profesionalaren aurreko prestakuntza babestuz.
Euskal Herriko Goi mailako Musika Ikastegiaren Fundazio Pribatua (2)	Fundazioa	Goi-mailako musikaren irakaskuntzarekin eta Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiarekin lotutako ekimenak eta jarduerak kudeatzea, sustatzea eta babestea, irabazi-asmorik gabe.
Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna / B+I+O Euskal Fundazioa (1)	Fundazioa	Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-sisteman berrikuntza eta ikerketa sustatzea.
Energiaren Euskal Entea-(1)	ZPEP+ 4 sozietate	Energiaren arloko jarduerak planifikatzea, koordinatzea eta kontrolatzea.
Euskal Irrati Telebista (EITB) (1)	ZPEP+ 1 sozietate	Irrati- eta telebista-medioak.
SPRI – Enpresa garapeneko euskal agentzia (1 eta 2)	ZPEP+ 9 sozietate	Ekonomia sustatzeko politikaren baliabidea. Lurzorua eta industria-eraikinak sustatzea eta prestatzea.
	Spirlur eta 11 Industrialde (12 sozietate)	
Eusko Trenbideak Taldea (1 eta 2)	Eusko Trenbideak SAU eta Euskotren Participaciones SA (2 sozietate)	Trenbide-garraioko zerbitzuak ematea eta trenbideko garraioaren esparruan balore higigarriak, higiezinak eta partaidetza sozialak eskuratzea, lagatzea, edukitzea, gozatzea, administrazioa, kudeatzea eta negoziatzea.
Finantzen Euskal Institutua (1)	ZPEP	Finantza-politikaren eta kreditu publikoko politikaren baliabidea.
Euskal Trenbide Sarea (2)	ZPEP	Trenbide-azpiegituren eraikuntza eta kudeaketa.
Uraren Euskal Agentzia (2)	ZPEP	Uraren politikaren baliabidea.
Gizarteratzeko Euskal Agentzia (1)	ZPEP	Euskadiko espetxeetan barneratuta dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea erraztea.
Euskadiko Kirol Portuak (2)	ZPEP	Kirol-portuen plangintza, sustapena, garapena eta ustiapena.
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia-Elankidetz (1)	ZPEP	Garapenerako lankidetzak-politika planifikatzea, koordinatzea, kudeatzea eta gauzatzea.
Ettxepare Euskal Institutua (1)	ZPEP	Euskara eta euskal kultura sustatzea, hedatzea eta proiektatzea.
Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia (1)	ZPEP	Euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea ebaluatu, egiaztatu eta ziurtatzea.
Basquetour, Turismoaren Euskal Agentzia SA (1)	Sozietatea	Euskadi sustatzeko sustapen-, merkaturatze- eta publizitate-ekintzak gauzatzea.
IHOBE SA Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoa (1)	Sozietatea	Ingurumen-politikak eta jasangarritasunaren kultura garatzen laguntzea, batik bat klima-aldaketaren, biodibertsitatearen, lurzuaren eta airearen kalitatearen, hondakinen, ekoizpen eta kontsumo jasangarriaren eta hiri-ingurumenaren arloan.
Euskadiko Orkestra SA (1)	Sozietatea	Artea eta musika-jarduera sustatzea eta hedatzea.
Alokabide SA (1)	Sozietatea	Alokairuan jartzeko etxebizitzak sustatu eta birgaitzea.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Eusko Jaurilaritzaren Informatika Elkarte SA (1)	Sozietatea	Informatika zerbitzuak ematea
Euskadiko Etxebizitza eta Lurzorua SA (1)	Sozietatea	Etxebizitzak sustatu eta birgaitzea
Itelazpi SA (2)	Sozietatea	Telekomunikazio-sistemak eta -azpiegiturak kudeatzea, ezartzea, ustiatzea eta mantentzea.
Neiker, Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Institutua SA (1)	Sozietatea	Nekazaritza-, ur-, ingurumen- eta nekazaritza-, arrantza- eta elikadura-zientzietako ikerketa.
Finkatze Kapitala Finkatuz SA (1)	Sozietatea	EAEko enpresa handietan epe luzerako finantza-partaidetzak eskuratzea, besterenganatzea eta kudeatzea, enpresa horiek EAEn jarrai dezaten eta EAEko produkzio-sare osoaren bultzatzaile izan daitezen.
Zumaiako Kirol Portua SA (1)	Sozietatea	Zumaiako kirol-portua sustatu eta garatzea.

(1) Iritzi aldatu gabea edo aldekoa.

(2) Salbuespenak dituen iritzia. SPRI taldea, honako hauez osatua: Arabako Industrialdea SA eta Bizkaia Sortaldeko Industrialdea SA; Eusko Trenbideak, beste hauez osatua: Eusko Trenbideak SAU.

Ekitaldian, aplikatzekoa den araudi nagusia honako hau da:

- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 8/1996 Legea, 1996ko azaroaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko finantzei buruzkoa.
- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onesten duena.
- 2/2007 Legegintzako Dekretua, 2007ko azaroaren 6koa, Euskadiko Ondarearen Legearen testu bategina onesten duena.
- Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 733/2010 Agindua, martxoaren 25ekoa, inguruabar jakinetan jarduten duten enpresa publikoen kontularitzako alderdiak onartzen dituena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu araubidearen gaitan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartu eta EAEn Fundazio eta Partzuergoei ezargarria zaien aurrekontuko araubidea arautzen duena.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoa.
- 2012ko ekainaren 25eko agindua, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontabilitate Publikoaren Plana onesten duena.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, EAEko sektore publikoko kontratazioaren araubideari buruzkoa.
- 2/2017 Legegintzako Dekretua, urriaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.
- 1/2021 Errege Dekretua, urtarrilaren 12koa, honako hauek aldatzen dituena: Kontabilitate Plan Orokorra, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onartua; Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitate Plan Orokorra, azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretuaren bidez onartua; Urteko Kontu Bateratuak Formulatzeko Arauak, irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretuaren bidez onartuak; eta Kontabilitate Plan Orokorra irabazi-asmorik gabeko erakundeei egokitzeko arauak, urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuaren bidez onartuak.
- 11/2021 Legea, abenduaren 23koa, 2022ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.
- 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoari buruzkoa.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.

A.3 PERTSONALA

Hona hemen 2022 eta 2021eko ekitaldietan langileria-gastuen eta plantillaren xehakapena:





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan/Pertsona kop.

ENTITATEA	PERTSONALEKO GASTUAK		PLANTILLA ERREALA		GOI KARGUDUNAK	
	2022	2021	2022	2021	2022	2021
PLEA	15.484	14.562	130	134	2	2
LEA.....	1.120	1.100	10	11	4	4
Emakunde.....	2.471	2.372	36	36	2	2
Eustat	9.936	9.353	112	109	1	1
Habe	4.310	4.217	69	68	1	1
Gogora.....	766	640	12	9	1	1
IVAP	8.192	7.730	138	131	1	1
Kontsumobide.....	3.727	3.552	59	61	1	1
Lanbide	59.314	53.592	1.109	1.027	5	5
Osalan	10.924	10.666	184	180	1	1
ERAK. AUT. GUZTIRA	116.244	107.784	1.859	1.766	19	19
Haurreskolak.....	61.066	55.760	1.261	1.381	1	1
BRTA.....	352	338	4	3	1	1
PARTZUERGOAK GUZTIRA	61.418	56.098	1.265	1.384	2	2
Hazi	11.893	11.603	182	185	1	1
Elika.....	638	583	10	9	1	1
Musikene	9.651	9.341	182	182	2	2
BIOEF.....	3.308	3.401	58	67	2	2
EGO.....	144	122	3	2	-	-
Basque Team.....	192	187	3	3	-	-
FUNDAZIOAK GUZTIRA	25.826	25.237	438	448	6	6
EEE TALDEA.....	10.148	9.717	74(*)	77(*)	1(*)	1(*)
GRUPO EITB.....	75.827	71.703	1.176	1.177	4	3
SPRI TALDEA.....	19.578	17.757	257(*)	248(*)	5(*)	5(*)
Eusko Trenbideak SAU.....	70.188	63.644	1.261	1.216	1	1
Finantzen Euskal Institutua	764	476	10	10	1	1
ETS.....	18.418	17.562	277	289	1	1
URA	11.134	10.381	181	169	4	4
GLEA	2.223	2.028	36	35	1	1
Aukerak.....	3.481	40	17	7	1	1
Unibasq.....	156	155	10	10	1	1
Ettxepare	926	939	10	10	3	3
EKP	659	498	10	7	1	1
TALDEEZ KANPOKO ZPEP GUZTIRA.....	37.761	32.079	551	537	13	13
Basquetour SA.....	1.404	1.272	16	16	1	1
Itelazpi SA.....	1.345	1.292	17	16	1	1
Ihobe SA.....	3.989	3.567	69	54	-	1
Euskadiko Orkestra SA	7.767	7.663	105	100	1	1
Alokabide SA	6.891	6.479	131	126	1	1
VIRESA.....	6.080	5.702	88	85	1	1
Neiker SA.....	9.910	9.572	177	185	1	1
EJIE SA	15.338	14.732	232	225	1	1
TALDEEZ KANPOKO SOZIET. GUZTIRA	52.724	50.279	835	807	7	8

(*) % 50etik gorako partaidetza duten sozietateen plantilla baizik ez da barne hartu.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Ordainsariak

EEEko eta haren mendeko sozietateetako langileei 2021eko ekitaldian ordaindutako ordainsariak % 3,5eko igoera izan dute 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, EAEko 2022rako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen otsailaren 11ko 1/2021 Legean eta Jaurilaritzaren 2022ko otsailaren 22ko eta 2022ko azaroaren 22ko Kontseiluaren erabakietan xedatutakoaren arabera.

Aldi baterako enplegua finkatzeko eta egonkortzek prozesua

Hona hemen erakunde eta prozesu bakoitzaren araberrako xehakapena:

				Plaza kopurua
ENTITATEA	ARRUNTA	BEREZIA	SALBUESPEN.	GUZTIRA
PLEA	-	-	77(*)	77
LEA	-	2	2	4
Emakunde	-	1	23	24
Eustat	-	29	50	79
Habe	-	23	12	35
Gogora	-	6	3	9
Ivap	-	18	77	95
Kontsumobide	-	19	20	39
Lanbide	-	134	366	500
Osalan	-	34	86	120
ERAK. AUT. GUZTIRA	-	266	716	982
Haurreskolak	-	-	370(*)	370
PARTZUERGOAK GUZTIRA	-	-	370	370
BIOEF	-	1	29	30
FUNDAZIOAK GUZTIRA	-	1	29	30
Finantzen Euskal Institutua (*)	-	5	-	5
URA (*)	-	-	94	94
GLEA	-	-	4	4
Unibasq (*)	-	-	2	2
Etxepare Euskal Institutua (*)	-	-	4	4
Eusko Trenbideak-				
Ferrocarriles Vascos, SAU (*)	-	91	68	159
EITB taldea (*)	29	46	176	251
SOZIET. ETA ZPEPak GUZTIRA	29	142	348	519

(*) Lan kontratupeko langileenak dira.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Erakunde autonomoetako enplegua finkatzeko prozesu berezien eta salbuespenezko prozesuen deialdiak EAEko Administrazio Orokorrak egin ditu 2022ko ekitaldian. 20/2021 Legearen irizpideak betetzen dituzten eta deitzeke geratu ziren 2022. urtea baino lehenagoko ekitaldietan eskainitako plazak 2022ko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuetan sartu dira. Guztira 982 plaza deitu dira; horietatik 905 funtzionarioak dira eta 77 PLEAko lan-kontratudun langileak.

PLEAren kasuan, Segurtasun Saileko Giza Baliabideen zuzendariaren eta PLEAko zuzendari nagusiaren 2022ko maiatzaren 18ko Ebazpenaren bidez, Segurtasun Saileko eta PLEAko lanpostuen behin betiko barne-hornidurarako lehiaketaren deialdia egin zen. Eskainitako lanpostuak esleitu ondoren, 2023ko urtarrilaren 26an, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salak epaia eman zuen, prozesuaren zuzenbidearekin bat ez zetorrena. Hori dela eta, epaia betez eta Giza Baliabideen zuzendariaren eta PLEAko zuzendariaren 2023ko otsailaren 28ko Ebazpenaren bidez, barne-hornidurarako lehiaketa izapidetzearen ondorioz izandako lanpostuen behin betiko esleipenak ondorioz gabe uztea ebatzi zen, eta prozeduran atzera egin zen, epaiak deklaraturako arau-hausteak egin ziren unera.

2022ko abenduaren 31n, aztertutako erakundeek enplegua finkatzeko egindako prozesuen deialdietako bat ere ez da ebatzi, Finantzen Euskal Institutua zuzenbide pribatuko erakunde publikoan izan ezik.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.4 KONTRATAZIOA

2022an esleitutako 81 kontratu aztertu dira, guztira 271,7 milioi euroren zenbatekoarekin.

Euroak milakotan					
ERAKUNDEA/ XEDEA	KONTRATU MOTA	ESLEIPENA PROZED. ZENBAT.	EXEK. 2022	AKATSAK A B C	
PLEA					
1. Mantentze-lan integrala (9 lote)	Zerb.	SARA	374(*)	123	A1,3,4,13 B4
2. Azpieg. eta ebentoak alok., munt., desmunt. eta instal.....	Zerb.	Irekia	90(*)	45	A1,3 B2,4
3. C gasolioa hornitzea berogailu eta ur berorako.....	Horn.	SARA	660(*)	113	A1,3,4,18 B2
Emakunde					
4. Publizitate-tarteak planifikatzea eta erostea.....	Zerb.	Irekia	218(*)	218	A4,5,12,17 B4,7
Eustat					
5. “Gastu familiarrari buruzko inkesta” prest., bildu, kodetu, grab. eta baliozk.....	Zerb.	SARA	423	-	A17 B4,7
6. Biztanleria Jarduera erlazioari eta Bizitza laborala kontziliatzeari buruzko inkestaren inform. jaso eta oinarritzko trat.	Zerb.	SARA	490	-	A17 B4,7
Habe					
7. Euskarako probetarako azterketak inprimatzea eta digitalizatzea	Zerb.	Irekia	112(*)	56	A4,7,14,17 B4
Gogora					
8. Erakusketa-proiektuaren oinarritzko proiektua idaztea eta egikar. eta obra zuzend.....	Zerb.	Pub./g neg.	142	84	A5,7,17 B4,7 C3
IVAP					
9. Itzulpenak eta lotutako beste lan batzuk egitea (3 lote).....	Zerb.	SARA	399(*)	80	A5 B4,7
Kontsumobide					
10. Kontsumo gaietan hezk. prestak. eta sentzibil. programa (2 lote)	Zerb.	SARA	564	564	A4,5,9,17 B4,7 C4
Lanbide					
11. Zallan enplegu bulego baterako areto berrian obra osoa	Obra	Irekia	435	335	A7 B1,4,7
12. Enplegurako orient., ekintzailatza, laguntza eta berrikuntza zentrorako proiektua idaztea eta eraikina osorik eraberritzeko zuzendaritza	Zerb.	Irekia	110	66	A4 B4,7
13. Espedienteen mant. ebolutiboa eta izapidetze digitalaren euskarria	Zerb.	SARA	898(*)	898	A12 B4,7,8
14. Antolaketa-eraldaketa identifikatzeko, definitzeko, garatzeko eta ezartzen laguntzeko aholkularitza espezializatua	Zerb.	SARA	1.300	186	A4 B1,4,7,8
15. Eraldaketa digitaleko proiektuen bulego estrategikoa	Zerb.	SARA	999(*)	999	A12,18 B4,7,8
Osalan					
16. Arabako lurralde-zentroaren lokal berria eraberritzea	Obra	Ireki sinplif.	691	691	A17 B4
Espediente aldatua			12	6	C1
17. Osalanentzako bidaia eta ekitaldietara joatea	Zerb.	SARA	320	102	A4,5,13,17 B4,6
ERAK. AUT. GUZTIRA			8.237	4.566	
Haurreskolak					
18. "Laneko Medikuntza" osasuna zaintzeko prebentzio-zerb.....	Zerb.	Irekia	51(*)	16	A1,4,7,17 B4,5,7
PARTZUERGOAK GUZTIRA			51	16	

.../...





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

ERAKUNDEA/ XEDEA	KONTRATU MOTA	ESLEIPENA PROZED. ZENBAT.	EXEK. 2022	AKATSAK A B C
Hazi				
19. Publizitate kanpainak planifikatzea eta kudeatzea 2022.....	Zerb.	SARA	847(*)	- A1,4,5,15,17 B2,4,5,7
20. "PAC sistema" plataformaren mantentze-lanetarako laguntza teknikoak	Zerb.	SARA	235(*)	143 A1,4,5,12,15,17 B2,4,5
21. Abeltzaintzako enplegurako prestakuntza-zerbitzua:				
Abeltzain Eskola	Zerb.	Irekia	242(*)	24 A1,4,5,7,17 B2,4,5,7
22. Inprimaketako funtzio anitzeko ekipoak eskuratzea (2 lote).....	Horn.	Ireki sinplif.	168(*)	70 A1,5,7,9,17 B2,5,7,9
23. Finantza-errentamenduko (renting) 6 ibilgailu hornitzea	Horn.	Ireki sinplifi.	140(*)	10 A1,5,11,17 B5,7
Musikene				
24. Donostiako Europa plazako eraikina garbitzeko zerbitzua.....	Zerb.	SARA	160	64 A4,13,17 B4,7,9
25. Pianoak eskuratzea (4 lote).....	Horn.	SARA	782	782 A12,17 B7,8,9
BIOEF				
26. Aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesuan laguntza teknikoak	Zerb.	Irekia	119(*)	- A1,4,5,7,17 B4,7
27. Hainbat elkarteren 2022-2024 ekitaldietako auditorietza-zerbitzua (esparru-akordioa)	Zerb.	Irekia	87	- A1,4,7,17 B4,7
FUNDAZIOAK GUZTIRA			2.780	1.093
EITB				
28. Sistemen euskarri eta aplikazioen mantentze-zerbitzua (4 lote) .	Zerb.	SARA	1.939	369(**) A4,5 B4,7
29. Next Generat EU funtsak eta beste laguntza batzuk lortzeko eta kudeatzeko laguntza	Zerb.	SARA	365(*)	5(**) A4,5 B4,7
30. Antigenoen test azkarak eta PCR testak egitea (4 lote)	Zerb.	SARA	320	-(**) A4,5 B4,7
31. 11 ibilgailu partikula, C02 eta bestelako gas maila baxudun ibilgailu hornitzea	Horn.	SARA	334(*)	71(**) A5 B1,7
EITB Media				
32. Iruñako EITBren egoitzaren barnealdea eraberritzea	Obra	Ireki sinplif.	541(*)	389 A5 B1,4,7 C2
33. Miramonen 21-22-26 platoetako klimatizazio-sistema eraberritzea.....	Obra	Ireki sinplif.	795(*)	648 A5 B1,4,7
Espediente aldatua	-	-	77	47 C1
34. Instalazio geotermikoa EITBren egoitzan, Miramonen (***).....	Obra	Ireki sinplif.	1.387	- A5 B4,7
35. Entzumen-desgaitasuna duten ikusleentzat bikoizketa, azpitit. (3 lote)	Zerb.	SARA	5.782(*)	260 A4,5 B4,7
36. Hondakinen gaikako kudeaketan garbiketa eta laguntza.....	Zerb.	SARA	3.823(*)	- A4,5 B4,7,8
37. "Over The Top" motako plataforma bat garatzea eta kudeatzea	Zerb.	SARA	2.191(*)	220 A4,5 B4,7,8
38. Kamera-kateak, optikoak eta teleobjektiboak HD/4K UHD (3 lote) hornitzea.....	Horn.	SARA	3.486(*)	- A5,8,12 B1,7
39. Ingurumen-irizpideak dituzten ordenagailuen hornidura	Horn.	SARA	751(*)	200 A5 B1,7,8
40. Miramonen, 22 platoko argiztapen-esekidurako sistemaren kontrola berritzea "HOIST" bidez.....	Horn.	SARA	475(*)	- A5,8 B1,7
EITB TALDEA GUZTIRA			22.266	2.209

.../...





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

ERAKUNDEA/ XEDEA	KONTRATU MOTA	ESLEIPENA PROZED. ZENBAT.	EXEK. 2022	AKATSAK A B C	
SPRI					
41. EAEko enpresetan konpetentzia digital profesionalen sistema bat ezartzeko zerbitzuak emateko esparru-akordioa.....					
	Zerb.	SARA	1.210(*)	1.189	A13,17 B4,7,8
Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea SA					
42. Abanto-Zierbenako Maria Telkes eraikina egiteko proiektua	Obra	SARA	21.013	2.951	A1,13,17 B4,7
SPRI TALDEA GUZTIRA			22.223	4.140	
Eusko Trenbideak SA					
43. Trenbideko bidaiarien material mugikorraren mantentze-lana	Zerb.	Irekia	19.245	7.540	A5,8 B4,7
44. Euskotrenen garbiketa-zerbitzua (3 lote)	Zerb.	Irekia	8.461(*)	286	A6,9,13 B7
45. S900eko trenetan P3 azterketak egiteko ordezkio piezak (2 lote)					
	Horn.	Irekia	4.250(*)	884	A5,8,9 B3,7
46. Autobus, lokomotor eta Burdinbidearen Museoko erregaia (2 lote)					
	Horn.	Irekia	3.416(*)	4.110	A5,9 B7
47. 900 serieko B3 berrikuspenetarako ordezkio piezen sortak (2 lote)	Horn.	Irekia	2.805(*)	500	A5,8,9 B7
EUSKO-TRENBIDEAK TALDEA GUZTIRA			38.177	13.320	
Finantzen Euskal Institutua					
48. Bilboko Burtsako 3. solairua eraberritzea.....	Obra	Ireki sinplifi.	786	70	A1,7,17 B4
GET					
49. Bilbo-Donostia trenbideko Eibar-Azitain tartea estaltzea (***).....	Obra	SARA	17.605	54	A17 B1,7
50. Zumaian, Urola ibaiaren gaineko zubia konpondu eta sendotzea	Obra	Irekia	5.019	-	A7,17 B1,7
51. Eubako trenbide-pasagunea kentzeko zubibidea eraikitzea	Obra	Irekia	5.168	1.451	A7,13,17 B1,4,7
Espediente aldatua			1.004		C1,5
URA					
52. Gasteizko Batan eta Zapardiel ibaien uholdeen aurkako defentsa	Obra	Irekia	5.434	2.984	A1,7,17 B1,4,7
53. Nerbioi ibaiaren uholdeen aurkako babesa Laudion.....	Obra	Irekia	4.238	1.007	A1,7,17 B1,4,7
54. Uholdeen prebentzioa Oria ibaiaren arroan, Beasainen	Obra	SARA	6.145	-	A1,17 B4,7
Aukerak					
55. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako espetxeetako ekonomatu eta kafetegirako produktuak.	Horn.	SARA	790	372	A1,17 B1,7,8
56. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako espetxeetako elikadurarako lehengaiak. (25 lote).....	Horn.	SARA	2.632	-	A1,17 B,8
EKP					
57. Bermeoko portuan petrolio-instalazioa osorik eraberritzea eta lurrazaleko uren kolektorera konektatzea	Obra	Ireki sinplif.	415	-	A7,17 B2,4
58. PDPrako kudeaketa-sistema integratua garatzeko laguntza-teknikoa	Zerb.	Ireki sinplif.	122	41	A7,17 B1,2
TALDEEZ KANPOKO ZPEP GUZTIRA			49.358	5.979	

.../...





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

ERAKUNDEA/ XEDEA	KONTRATU MOTA	ESLEIPENA PROZED. ZENBAT.	EXEK. 2022	AKATSAK A B C
Basquetour				
59. Euskadiren standa FITURen eta beste balizko azoka batzuetara egokitzea	Zerb.	SARA	514	127 A1,4,16,17 B4,7
60. "UMBRA LIGHT FESTIVAL VITORIA-GASTEIZ 2023" ekitaldia antolatzeke publikitate edo babesletza	Zerb.	Pub./g neg.	182	91 A1,17 B3,4,5,7
61. Euskadi Basque Country 2022-2023 destinoa online eta offline sustatzeko kanpainak planifikatzea eta kudeatzea (2 lote)	Zerb.	SARA	1.936	- A1,4,16,17 B4,7
IHOBE				
62. Laguntza programetan esped. kudeatu, izapidetu eta berrikusteko laguntza (3 lote)	Zerb.	SARA	662	173 A1,2,4,16,17 B2,4,7
63. Basque Circular Summit 2022 kongresuaren komunikazio-kabinetea eta idazkaritza tekniko (2 lote)	Zerb.	Irekia	225	241 A1,4,7,17 B2,4,7
Euskadiko Orkestra SA				
64. Euskadiko Orkestra SAREN autobus-garraioa	Zerb.	Irekia	74(*)	4 A1,4,13,17 B7
Alokabide				
65. Bezeroen, hornitzaileen, instituzioen eta, oro har, herritarren call centera	Zerb.	SARA	1.107	408 A1,4,16,17 B1,4
66. SALESFORCE software-plataformaren garapen ebolutiboa, euskarria, mantentzea eta lizentziamendua	Mistoa	SARA	1.170(*)	337 A1,16,17 B4,5,7
EJIE				
67. Zaintza- eta kontrol-etxea, jantokia eta inguruko urbaniz. eraik. .	Obra	Irekia	1.495	- B7
68. Batera zerbitzurako ekipamendu informatikoaren euskarria eta mantentze-lana	Zerb.	SARA	4.508	2.342 A15,16 B4,7,8
69. Zerbitzu anitzeko sarerako datuen transmisioa	Zerb.	SARA	24.951	2.697 A15,16 B1,4,7
70. Erabiltzaileentzako arreta eta laguntza (Service Desk) 2022	Zerb.	SARA	2.498	- A4,15,16 B7
71. RedHat 2022-24 harpidetzen mantentze-lanen eta laguntza teknikoko moduluen hornidura	Horn.	SARA	1.724	575 A15,16 B1,7
72. 2022rako SAP lizentziak eskuratz. eta mantentzeko horn. (2 lote)	Horn.	SARA	2.401	2.401 A5,8,11,15,16 B7
73. BATERAraiko ekipamendu informatikoaren hornidura errentamendu-modalitatean (renting) (5 lote)	Horn.	SARA	15.791	94 A10,15,16 B7
Espediente aldatua			34	
Luzapena			258	
VISESA				
74. Salburuan atxikitako 166 BOE, eranskinak eta urbaniz. eraikitzea (***)	Obra	SARA	15.853	2.665 A17 B1,4,7
75. BOEak, eta eranskinak eraikitzea eta urbanizazioa: 108 etxebizitza Barakaldon eta 68 Getxon (2 lote) (***)	Obra	SARA	18.947	491 A17 B1,4,7
76. BOEak, eta eranskinak eraikitzea eta urbanizazioa: 180 etxebizitza Sestaon eta 58 Getxon (2 lote) (***)	Obra	SARA	29.279	233 A17 B1,4,7 C2
77. Laguntza programetan esped. kudeatu, izapidetu eta berrikusteko laguntza (***)	Zerb.	SARA	1.034(*)	129 A17 B1,4,7
Itelazpi				
78. Garraio-sistemen mantentze-lana	Zerb.	SARA	3.303(*)	- A4,5,6 B4
79. Telekomunikazioetako zentro eta zerbitzu berezietan espazioak kudeatzeko laguntza	Zerb.	SARA	315	161 A5 B3,4

.../...





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

ERAKUNDEA/ XEDEA	KONTRATU MOTA	ESLEIPENA PROZED. ZENBAT.	EXEK. 2022	AKATSAK A B C
Neiker				
80. Informatikako ekipamenduaren hornid. eta instalazioa.....	Horn.	Irekia 250(*)	94	B2,7
81. Gas konprimituen hornid. Derioko eta Arkauteko zentroetan.....	Horn.	Irekia 123	12	A17 B7
TALDEEZ KANPOKO SOZIETATEAK GUZTIRA		128.634	13.275	
GUZTIRA		271.726	44.598	

Kontratu mota: Zerb.: Zerbitzuak. Horn.: hornidura.

Prozedura: Pub./g neg.: Publikotasunik gabeko negoziatua. Ireki sinplif.: Ireki sinplifikatua.

SARA: Arautze harmonizatuari lotua.

(*) Aleko prezioetan esleitua. Lizitazio-aurrekontua barne hartu dugu.

(**) Baterako egikaritzea (Erakundea eta Sozietatea).

(***) Europar Batasuneko Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak (BEEP) finantzatua - Next Generation UE.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

AKATSAK	ESPEDIENTE KOP.	ADJUDIKAZIOA
A PRESTAKUNTZA		
1. Zerbitzu juridikoek ez dute karatularen eta/edo administrazio-baldintza berezien pleguaren gainean aldeko berrikuspenik egin.	26	49.921
2. Eskumena ez duen organoak espediente eta gastua onartzea	1	662
3. ABBPn aurreikusitako aldaketak, zehaztu gabe	3	1.124
4. ABBP zuzeneko, zeharkako, behin-behineko eta soldatuko kostuak banakatu gabe.	29	30.138
5. ABBP ezohiko eskaintzak kalkulatzeko modua zehaztu gabe	31	61.318
6. Prezioak KPlari lotuta baimendu gabe berrikustea, edo prezioak errendimenduaren helburua aintzat hartu gabe eguneratzea.	2	11.764
7. ABBPk ez du barne hartzen enpresa sortu berriek gaitasun tekn. egiaztatu behar izatea	16	22.763
8. ABBPk ez du ezartzen kaudimena egiaztatze modurik, edo eskatzen den kaudimen teknikoa ez dago araudian aurreikusita, edo kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eskatzen dute, zeina teknikoa baita	6	32.662
9. Kaudimen teknikoa eta ekonomikoa eta finantzarioa, lote bakoitzerako ezarri gabe..	6	19.664
10. Neurritz kanpoko kaudimen ekonomikoa.....	1	15.791
11. Proposamenak aurkezteko epea legezkua baino laburragoa	2	2.541
12. Esleipen-irizpide orokorrak eta/edo txosten teknikoak, behar bezala justifikatu gabe	6	6.618
13. Txosten teknikoak administrazio-baldintza berezien pleguan jasota ez dauden edo justifikatu gabe dauden azpi-irizpideak balioztatzen ditu	8	36.780
14. ABBPk kaudimen irizpidea barne hartzen du	1	112
15. Kontratazio-mahaia ez du jardura guztietan hartutako erabakien berri ematen.....	8	52.955
16. Ez da ezarri kontratazio-mahaiko edo kide juridiko edo ekonomikorik edo mahaia ez da behar bezala eratu	11	57.262
17. Kontratazio-mahaia ez du esleipena egin aurretik kaudimena bete dela jasota utzi.	44	147.474
18. Eskaintza neurritz kanpo baxuegietan ez da justifikaziorik eskatu	2	1.659
B ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA		
1. Kontratuaren esleipen edo formalizazioak gehieneko epea gainditu du.....	22	139.388
2. Kontratua legezko epea baino lehen formalizatu da	11	3.916
3. Behin betiko bermea eratzean atzerapena edo eskatutako aseguru-polizarik aurkeztu gabe	3	4.747
4. Esleipen-ebazpenetan hitzarmen kolektiboa sartu gabe.....	56	194.089
5. Esleipenaren jakinarazpena ez da bitarteko elektronikoen bidez egin	8	3.035
6. Kontratua esleitu eta sinatu da KEBk fiskalizatu gabe	1	320
7. Kontratua ez da kontratatzailearen profilean argitaratu	67	259.179
8. Kontratua formalizatu da EBAOn argitaratu gabe.....	11	19.884
9. Dokumentazioa esleipena egin ondoren aurkeztea	3	1.110
C EXEKUZIOA ETA AMAIERA		
1. Administrazio-dokumentuan formalizatu gabeko aldaketa	3	1.093
2. Zuinketa egiaztatze akta egitean atzerapena edo kontratu aurretik formalizatua ...	2	29.820
3. Exekuzioak ezarritako epea gainditu du, epea luzatu gabe eta konpromiso-kreditua berregokitu gabe	1	142
4. 1. lotea exekutatuta baldintza teknikoaren agirian ezarritako gutxienera iritsi gabe.	1	466
5. Aldaketa, proiektuaren aurretiko definizio desegokiagatik	1	1.004





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Erakundeek 2022ko ekitaldian egindako gainerako gastuak berrikustean, honako hau ikusi dugu:

		Euroak milakotan	
ERAKUNDEA/KONTZEPTUA	2022ko Gastua		Akatsa
ERAKUNDE AUTONOMOAK			
Lanbide: Hainbat komunikabideetan publiz. guneak planif. eta erosteko zerb.....	187		A1
Osalan: Platearekin inf. sistema integratzeko zerbitzua, EJIE SAri esleitua	147		A2
Emakunde: JABETUZ aplikazioa, EJIE SARI esleitua.	47		A2
Osalan: Zaintza zerbitzua	18		A3
Gogora: Bulegoak garbitzeko zerbitzua	16		A3
Kontsumobide: 3 egoitzatako garbiketa-zerbitzuak.....	23		A3
Kontsumobide: TUR tarifari buruzko hainbat hedabideetan publiz. (3 kontratu) ..	54		A3
IVAP: ikastaroak antolatzeke mandatua HABEri.....	3.800		A4
PARTZUERGOAK			
Haurreskolak: Sistemak garatu eta ezartzeko EJIEri enkargua	471		A2
FUNDAZIOAK			
Hazi: EJIE SARI egindako enkarguak (3 enkargu)	255		A2
BIOEF: EJIE SARI enkargua: zerbitzu errepikariak emateko.....	90		A2
Hazi: Abadiño eta Donostiako garbiketa-gastuak.....	20		A3
Basque Team: Kirol-ekitaldien estaldura	49		A3
EGO: Joan-etorrien gastuak eta mantentze-lana	51		A3
ZPEP ETA SOZETATEAK			
ETS: EJIE SARI telefonia- eta mugikor-zerbitzuak enkargatzea.....	43		A2
ETS: TETRA zerbitzuetarako Itelazpi SARI egindako enkargua,	45		A2
GLEA Zerbitzuetarako eta aplikazioak garatz. EJIE SARI egindako enkargua ...	135		A2
EKP: Portuetako azpiegiturak konpontzea.....	51		A3
EKP: Altzairu herdoilgaitzeko lanak	53		A3
EKP: Garabien konponketak eta mantentze-lanak.....	54		A3
EKP: Marineltzarekin lotutako aholkularitza-zerbitzuak.....	33		A3
EKP: Lege-aholkularitzako zerbitzuak	28		A3
EKP: Ibilgailuen alokairua.....	25		A3
EKP: Donostia, Getaria eta Mutrikun garbiketa-gastuak	16		A3
EKP: Erregai-hornidura	1.501		A5
EKP: Aseguru-gastuak	106		A5
EKP: Telefonia-gastuak.....	30		A5
Euskadiko Orkestra SA: Autobus bidezko garraio-zerbitzua	61		A6
EJIE SA: Laguntza teknikoko zerbitzu profesionalak	5.579		A6
Itelazpi SA Energia elektrikoaren hornidura	879		A7
Neiker SA: Argindarra hornitzea	398		A7
EITB Media SAU: Argindarra hornitzea	852		A7
EKP: Argindarra hornitzea.....	91		A7
Euskadiko Orkestra SA: Denboraldiko irudia disein. eta inprimatzeko zerbitz. ..	59		A8
EKP: Lekeitioko portuko pantalan-obra.....	2.317		A9
NEIKER SA: Eraikina eraberritzeko obra, jantoki gisa jartzeko	370		A9
NEIKER SA: Beheko solairuko zati baten barne-erreforma, bulego gisa jartzeko	195		A9
URA: Usurbilgo Aginagako saneamenduko 2. proiektu berria.....	1.945		A10
Ettxepare: Bidaia agentzien zerbitzuak.....	63		A11





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AKATSAK

A1	Lizitazioa EBAOn argitaratu gabe. 437.550 euroan esleitutako gastua.
A2	Bitarteko propioari egindako enkargua kontratatzailearen profilean argitaratu gabe. Guztira 1,2 milioi euro.
A3	Azken urteetan kontratu txiki gisa edo zuzenean izapidetutakoak. Guztira: 491.041 euro.
A4	Mandatuaren zenbatekoa egindako benetako gastuari egokitu gabe. Zenbatekoa, 3,8 milioi euro.
A5	Zuzenean esleitutako gastuak, publizitateren prozedurak izapidetu gabe. Guztira 1,6 milioi euro.
A6	Luzapenak amaitu ondoren ere gauzatzen jarraitzen duten kontratu amaituak. Guztira 5,6 milioi euro.
A7	Esleitutakoaren gaineko gehiegizko gastua, aldaketak barne. Guztira 2,2 milioi euro.
A8	Isilbidezko luzapena, onartu gabea. Zenbatekoa, 59.290 euro.
A9	Harrera-aktan atzerapena. Esleitutako zenbatekoa guztira 2,9 milioi euro.
A10	Kontratu batean 336.276 euroko kontratu-aldaketa formalizatu gabe.
A11	Luzatutako zenbatekoaren gaineko gehiegizko exekuzioa. Zenbatekoa, 62.727 euro.

Baliozkotutako espedienteak

Jaurilaritzaren Kontseiluak bere gain hartu du Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txosten negatiboa zuten 5 kontratazio espedienteren eta kudeqaketa-mandatu baten aldeko fiskalizazio juridikoa eta ekonomikoa. Honako erakunde autonomo, kontzeptu eta kopuru hauei dagozkie:

Euroak milakotan	
ERAKUNDE AUTONOMOA/KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Lanbide: Miribillako bulegoko lanak	166
Lanbide: Miribillako bulegoko lanen obra-zuz. eta seg. eta osasuna.....	23
Lanbide: Laudioko enplegu-bulego berrian lanak.....	147
IVAP: EHUari kudeaketa-mandatuak	111
PLEA: Garbiketa zerbitzua	399
Kontsumobide: Energia elektrikoaren hornidura	2
GUZTIRA	848

Gastu hauek honako hauei dagozkie: 2 zerbitzu-kontraturik, 422.377 eurorenak; 2 obra kontraturik, 313.474 eurorenak; horniduren 1 kontraturik, 1.535 eurorena; eta 1 hitzarmenik, 111.082 eurorena. Gainera, 111.082 euro mandatua onartu aurretik ordaindu ziren.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.5 DIRULAGUNTZAK

Hona hemen 2022ko ekitaldian aztertutako dirulaguntzen xehakapena:

Euroak milakotan				
ERAKUNDEA/ AZALPENA	PROZED.	GASTUA 2022	KONPR. KRED.	AKATS.
ERAK. AUTON.				
PLEA				
1. Sueskola Gipuzkoa Fundazioa, prestakuntza-ekintzetarako	Izend.	465	-	
Emakunde				
2. Diagnostikoak egiteko eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasun-planak egin eta ebaluatze laguntza tekniko, udalerrietan, koadriletan eta mankomunitateetan	Lehia	495	-	
3. Elkartegintza sustatzeko eta emakumeek EAEko esparru guztietan parte har dezaten bultzatzeko	Lehia	300	100	A4,5
Habe				
4. 22/25 ikasturteetan euskaltegi pribatuei eta euskara homologatzen duten ikastetxeei.	Lehia	6.012	83.646	A1
Gogora				
5. Memoria demokratikoa berreskuratzeko proiekturako, tokiko erakundeei 2022an .	Lehia	103	35	A4,5
6. Aranzadi Zientzia Elkarteari, pertsona desagertuak eta errepresaliatuak bilatzeko eta ikertzeko, 2022ko ekitaldirako	Izend.	115	-	
IVAP				
7. EAEko toki- eta foru-administrazioetako enplegatuentzako prestakuntza	Lehia	580	-	
8. Osakidetzarekin prestakuntzaren arloan.....	Izend.	452	-	
Kontsumobide				
9. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta defendatzeko, 2022rako, tokiko erakundeei eta haiek sustatutako erakundeei.....	Lehia	795	265	A2,3
Lanbide				
10. EZBetan desgaitasuna duten pertsonen lanpostuak mantentzeko.	Lehia	54.086	-	
11. Ikerketa Programako laguntzak (PRTR)	Lehia	15.732	-	
Osalan				
12. Prebentzio-ordezkaritza trebatzeko prestakuntza-ikastaroak egiteko	Lehia	166	-	
13. Osalaneko Kontseilu Nagusian eta batzordeetan benetan parte hartzeagatik	Izend.	593	-	
FUNDAZIOAK				
Basque Team Fundazioa				
14. Kirolarientzako bekak eta goi-mailako lehiaketetan ordezkari handia ahalbidetzen duten proiektuetarako laguntzak.....	Lehia	802	-	
15. Goi-mailako kirolariren bat duten federazioei/klubei (8 erak.)	Zuz.	229	-	
Hazi Fundazioa				
16. Baskegur-i, baso-egurraren sektorea garatzeko ekintzetarako.....	Zuz.	218	-	
17. Bilboko Gotzaindegia, prestakuntza, berrikuntza eta ikerketa bultzatzeko.itsas arrantzaren sektorean.....	Zuz.	315	-	
18. Basque Cul. Center fundazioari, GOE ekimenaren lehen fasea abian jartzeko.....	Zuz.	400	-	
19. Basque Cul. Center fundazioari, gastronomiaren arloan, oro har, prestakuntza, ikerketa eta berrikuntzarako	Zuz.	250	-	
BIOEF				
20. Janssen Doktoretza-ondoko laguntza, Euskal Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioen Euskal Fundazioarena	Lehia	50	100	

.../...





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

ERAKUNDEA/ AZALPENA	PROZED.	GASTUA 2022	KONPR. KRED.	AKATS.
EEE TALDEA				
EEE				
21. Autokontsumoari eta biltegiatzeari lotutako pizgarriak (BEEP)	Lehia	53.859	-	
SPRI TALDEA				
SPRI				
22. Produkzio-ezarpenak ahalbidetzeko mailegu itzulgarriak (Gauzatu).....	Lehia	-	4.111	A4
23. Informazioaren gizartearen garapena sustatzea (industria digitala).....	Lehia	647	5.487	
24. Makineria berria eta/edo ekipamendu aurreratuan inbertsioa sustatzea (Renove industria 4.0).....	Lehia	4.224	3.631	A4
TALDEEZ KANPOKO ZPEP				
GLEA				
25. 2022rako garapenerako kooperazio proiektuak	Lehia	8.000	24.000	
Etxepare				
26. Atzerriko unibertsitatei, hizkuntzaren eta euskal kulturaren ezagutza sustatzeko (3 hitzarmen).....	Zuz.	548	50	
GUZTIRA		149.436	121.425	
Prozedura:	Izend.: Izenduna.	Lehia: Lehia.	Zuz.: Zuzena.	

Euroak milakotan

AKATSAK	KOPURUA	GASTUA 2022
A1. Ez da argitaratu emakida-proposamena egiteko ardura duen organoaren osaera.....	1	6.012
A2. Eskabideak balioztatzeke irizpideei dagozkien puntuazioak epaimahai kalifikatzaileak zehazten ditu	1	795
A3. Deialdiaren ebazpena berandu egin da.....	1	795
A4. Batzordearen akte ez dituzte emandako puntuazioak justifikatzen	4	4.627
A5. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa baino ez da justifikatzen.....	2	403







EAEKO ADMINISTRAZIO INSTITUZIONALA ETA ERAKUNDE INSTRUMENTALEN TXOSTENARI, 2022KOA, EGINDAKO ALEGAZIOAK

EITB TALDEA

III. IRITZIAREN OINARRIA

III.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIAREN OINARRIA

1. BRTA partzuergoak eta ETS, Aukerak, Unibasq, EEE eta EITB zuzenbide pribatuko erakunde publikoek ez dute 2022ko ekitaldian LPZrik eta horrek Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45. artikulua urratzen du.

ALEGAZIOA

EITBri buruz egindako aipamen horri dagokionez, komeni da argitzea Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Lege berriak lanpostu-zerrenda bat (aurrerantzean, LPZ) izateko betebeharrak ezartzen duela, eta 2022ko abenduaren 27an jarri zela indarrean. Ordura arte Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 4ko C/1S8S Legea zegoen indarrean.

Gauzak horrela, EITBk arduraz hartu zuen bere gain LPZ bat egiteko betebeharrak, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45. artikuluari jarraikiz, baina ez zuen hori egiteko denborarik izan.

2023ko ekitaldian zehar, egoera hori erregularizatzen hasi gara, eta EITB Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45. artikuluen arabera LPZ bat lantzen ari da, erakundearen egungo eta etorkizuneko beharrianak aintzat hartuta. LPZri buruz egindako lana HKEErekin partekatzeak aukera izan dugu 2023ko ekitaldiaren fiskalizazioan, "LPZrako hurbilketa" izeneko dokumentuaren bidez.

Ilido horretan, EITB egoera hori konpontzeko lan egiten ari da, 2024. urteari begira taldeari dagokion LPZ modu eraginkor eta bermatzailean ematen saiatzeko.

2. EITB Media SAUk aldi baterako 118 kontratu mugagabe bihurtzea onartu du 2022an, 20/2021 Legean aurreikusitako aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetan barne hartu gabe eta aurretiazko ebazpen judizialik izan gabe.

ALEGAZIOA

Aipamen horri dagokionez, esan behar da egonkortze-prozesuan zehar EITBko Zuzendaritza ohartu zela ezen, "GAZTAÑAZPI" eta "AENA" izeneko doktrinei jarraikiz, arrisku potentziala zegoela hasieran identifikatutako plazak handitzeko erreklamazio judizialen ondorioz, eta, 20/2021 Legeak bere hitzaurrean oinarritzko premisa gisa ezartzen zuenez hazkunde ekonomikoa eta langile-hazkundera mugatzea, GAZTAÑAZPI eta AENA doktrinen baldintzak betetzen zituzten egonkortze-prozesuko plaza jakin batzuk finkatu egin zirela.





GAZTAÑAZPI doktrinari (Auzitegi Gorenaren 2021eko ekainaren 8ko Autoa, zeinaren bidez EITBk jarritako doktrina bateratzeko kasazio-errekurtsoa ezesten baita, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2020ko urtarrilaren 14ko 133/2020 Epaia 1. irimotasuna berresten baita (CENDOJ identifikatzailea: ECLI:ES:TSJPV:2020:251)) dagokionez, zeina EITB Taldeko langileei buruz hartutako erabaki judizialek sortu baitzuten, Zuzendaritzak, EITBko negozio-unitateko kategoria bakoitzean zeuden egiturazko beharrak aztertu ondoren eta 2022ko otsailaren 11n EITBko Langileen Legezko Ordezkaritzarekin hitzarmena lortu ondoren, EITBko Hitzarmen Kolektiboaren 28. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, lanpostu huts horien kategoria jakin batzuk aitortu zituen; hain zuzen ere, egiturazko premiak izanik, kategoria horretako azken KPE gaitasun zuten hautagaiak zeuden kategoria, merezimendu-, gaitasun-, berdintasun- eta publikitate-printzipioen arabera. Plaza hutsak adierazitako irizpideen arabera aitortu ondoren, esleitu egin ziren, betiere kategoria bakoitzeko azken KPEko behin betiko emaitzen lehentasun-hurrenkeraren arabera eta, logikoki, beharrezko ordena hertsian.

Bestalde, AENA doktrinak (Auzitegi Gorenaren 1112/2021 Epaia, 2021eko azaroaren 16koa (CENDOJ identifikatzailea: ECLI:ES:TS:2021:4328)), laburbilduz, langile mugagabe finkotzat jo zituen une horretan kategoria jakin batean kontratatuta zeuden langileak, baldin eta kontratu-historiak mugagabe jotzeko (edo mugagabe jo ahal izateko) aukera ematen bazuten eta, gainera, kategoria horretako enplegu-deialdi publiko bat gaitasun zuten.

Horregatik guztiatik, egonkortze-prozesuaren ondoriozko plazak argitaratu ondoren, eta langileen legezko ordezkariekin zegozkien akordioak egin ondoren, hasiera batean egonkortze-prozesuan eskainitako plazei dagokienez, finko bihurtutakoak kendu ziren, une hartan indarrean zegoen doktrinarekin eta jurisprudentziarekin bat etorritik, langile asko baitzeuden haien lan-harremana mugagabe finkotzat jotzeko baldintzetan.

Illo horretan, azpimarratu behar da jardun zen moduan jardun aurretik kasuz kasu aztertu zela, Lan Zuzenbidean espezializatutako kanpoko bulego batek ad hoc egindako txosten baten bidez, langile bakoitzaren kasuistika, aipatutako doktrinatan oinarritutako erreklamazio batek aurrera egiteko zegoen arriskua kontuan hartuta. Azterketa horren ondorioz, eta aipatu txostena zorrotz aplikatuz, akordio horri soilik honako hauek heldu zioten:

- Langile mugagabe ez-finkoak.
- Arrisku handiko edo oso handiko langiletzat hartu gabeko langileak.
- Arrisku ertaineko langiletzat hartutako hainbat pertsona, baldin eta, akordioa sinatzeko unean alta emanda egonik, kategoria horretako enplegu-deialdi publiko bat gaitasun zuten eta harremana iruzurrezkoa zela jotzeko arrazoren bat bazegoen.

Horregatik guztiatik, ondoriozta daiteke EITBk Auzitegi Gorenaren jurisprudentziarekin bat datorren kudeaketa egin zuela, baita enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko 20/2021 Legearen izaerarekin bat zetorrena ere, eta aipatutako bi doktrinak aplikatzearen ondorioz sor zitekeen egoerari aurrea hartu ziola, helburu bakar batekin: interes publikoari eragindako kalteak murriztea (kostu prozesalei eta





lan-arrisku handiagoari dagokienez) eta lan-eskubide bat eskuratuta zuten pertsonen eragindako kalteak murriztea.

8. Eusko Jaurlaritzak Itelazpi SA, Neiker SA, EITB Media SAU sozietateak eta EKP zuzenbide pribatuko erakunde publikoa energia elektriko hornitzeko egindako kontratazio zentralizatuaren ondoriozko gastuak 879.080, 398.075, 851.727 eta 91.114 eurotan gainditu du, hurrenez hurren, kontratuaren gehieneko zenbatekoa, espediente horri egin dakizkiokeen kontratu-aldaketak aplikatu ondoren (ikus A.4).

ALEGAZIOA

HKEEk gehiegizko gastutzat jo du, bai EJrena zuzenean (hark izapidetzen duen kontratazio zentralizatuaren oinarrituta), bai Euskal Sektore Publikoko hainbat erakunderena, besteak beste EITB Mediarena.

Gehiegizko gastu hori 2022ko ekitaldian energiaren prezioa ohiz kanpo igo izanari zor zaio, guztiz aurreikusi ezina izan zena. Hornidura hori ezinbestekoa da erakunde honen zerbitzu publikoa normaltasunez garatzeko, eta, gainera, erakundearen izaeragatik eta xedeagatik, elektrizitatea asko erabiltzen da.

Ilido horretan, adierazi behar da 2022ko ekitaldiko elektrizitatearen prezioak –urte garestiena OMIEK (Energiaren Merkatu Iberiarraren Operadorea) emandako datuen serie historikoa hasi zenetik– 2021eko ekitaldiko prezioa ia bikoiztu egin zuela, eta hori, ekitaldiko arrazoi klimatikoaren artean, besteak beste eta batez ere, Errusia Ukraina inbaditzen hasi zelako.

Eusko Jaurlaritzak eta haren mendeko gainerako erakundeek aurreikusi ezin izan zuten energiaren prezioaren igoera ezohikoa eta ustekabekoa izan zen, eta, beraz, ordaindutakogainprezioa justifikatzen du, prezioaren bilakaeraren azkartasunetik harago eta hura kontratua aldatzearen bidez ordaintzeko ezintasunetik harago.

VII. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

VII.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- PLEA erakunde autonomoaren, Finantzen Euskal Institutua zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren eta EJIE, VISESA, EITB Media eta Ihobe sozietate publikoen aurrekontuen likidazioan jasotako konpromiso-kredituen egoera-orrietan ez dago hurrengo ekitaldietarako konprometitutako krediturik, 280.000 eta 715.462 euroak eta 1,5, 6,9, 5,8 eta 3,5 milioi eurorenak, hurrenez hurren.

ALEGAZIOA

Txostenaren aipamen hori 2022ko ekitaldian inbertsio gisa konprometituta geratu ziren baina gauzatu ez ziren zenbatekoei buruzkoa da, zenbateko horien exekuzioa hurrengo aurrekontu-ekitaldira atzeratu zirelarik. 2022ko aurrekontuaren likidazioari buruzko datuak





aztertu ondoren, alderdi honek uste du, errespetu osoz eta defentsa-baldintza zorrotzetan esaten dugu, EITB MEDIARI dagokion zenbatekoa murriztu egin beharko litzatekeela, honako datu hauen ondorioz:

- Lehenik eta behin, HKEEK aipatutako zenbatekoak konprometitutako inbertsioak esleitzeko izapidetutako lizitazioen gehieneko lizitazio-aurrekontuak barne hartzen ditu, eta datu hori eta lizitatzailari esleitutako zenbatekoaren datua ez dira berdinak (guztietan dira baxuagoak, aurrekontu maximoaren mugarekin prezio unitarioetan lizitatutako espedienteak kontutan izan gabe).
- Bestalde, HKEEK kontsideratutako zenbatekoek lizitazio-espedientearen aurreikusitako BEZa barne hartzen dute. Hala ere, EITB MEDIAK %100eko BEZaren kenkaria aplikatzen duela kontuan hartuta, alderdi honen ustez ez da egokia BEZa kontuan hartu beharreko zenbatekoaren barruan sartzea, ez baita egin beharreko inbertsioaren balioaren parte.
- Azkenik, kontuan hartu da NGEU Europako Funtsek finantzatutako espediente bat. Funtse horiek 2022ko ekitaldian gizarte-funtse zabalduz jaso ziren.

Ñabardura horiek kontuan hartuta, EITB MEDIARI legokiokkeen zenbatekoa murriztu beharko litzateke, ez baita Txostenean aipatutako zenbatekora iristen. Horregatik, idazki honen amaieran, EITB MEDIARI buruzko aipamena aldatzeko eskatuko dugu, Txostenaren VII.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA ataleko laugarren gidoian jasota dagoen aipamena, hain zuzen ere.

Konpromiso-kreditu horiek aurrekontuaren likidazioan sartu ez izanari dagokionez, datozen ekitaldietan sartzeko beharrezko ajusteari egin dira.

VII.2 PERTSONALA

- *Musikene eta EGO fundazioen, URA, EKP eta EITB zuzenbide pribatuko erakunde publikoen, eta Eusko Trenbidea SAU eta EITB Media, SAUren organo eskudunek berriaz onartu behar dute urteko ordainsarien goiera.*
- *Itelazpi SA, Ihobe SA, ETS, Finantzen Euskal Institutua, EITB, EEE, BIMEP SA, Teknologia Parkea SA eta Arabako Teknologia Parkea SA kontratu mugagabeko langileak hautatzeko prozedura hobetzeko, komenigarria litzateke prozesuaren faseetan aurkeztutako hautagaitza guztiak ezesteko arrazoiak agiri bidez jasota uzteko betebeharra barne hartzea.*

ALEGAZIOA

EITBren ordainsari-igoerei eta hautaketa-prozedurei buruz HKEEK azpial horietan egindako aipamenei dagokienez, alderdi honek adierazi nahi du EITB taldearen kudeaketa-eta prozedura-ereduan txertatu direla HKEEK aipatutako bi gai horiek -2022ko ekitaldiaren ondoren, baina behin-behineko txosten hau jakinarazi aurretik-.





Hori guztia hautaketa-prozesuak eta ordainsari-politikak prozeduraz eta trazabilitatez hornitzeko, EITBk aplikatzen dituen sektore publikoko printzipio gidarien arabera.

VII.3 KONTRATAZIOA

- 16,7 milioi euroan esleitutako 19 espedientetan (1, 3, 10, 12, 14, 19tik 21era, 24, 26tik 30era, 35, 37, 59, 62 eta 63 zk.), administrazio-baldintza berezien pleguek ez dituzte banakatzen kostu zuzenak, zeharkakoak, behin-behineko beste gastu batzuk eta, hala badagokio, soldaten kostua. Azken gabezia hori 13,4 milioi euroan esleitutako beste 10 espedientetan gertatzen da (4, 7, 17, 18, 36, 61, 64, 65, 70 eta 78. zk.), eta, beraz, horietan guztietan ez da justifikatzen lizitazioaren oinarrizko aurrekontua merkatuko prezioetara egokituta dagoenik.
- 24,4 milioi euroan esleitutako 15 kontraturen (22, 23, 28, 29, 31-39, 72 eta 79 zk.) administrazio-klausula berezien agirietan ez da jasotzen nola zehaztu eskaintza bat anormaltasun-presuntzioan dagoen. Gainera, 36,9 milioi euroan esleitutako beste 16 espedientetan (4, 8tik 10era, 17, 19tik 21era, 26, 30, 40, 43, 45etik 47ra eta 78 zk.), administrazio-baldintza berezien pleguetan ere ez da jasotzen, lizitatzaille bakarra aurkezten denean, eskaintzak balio anormalak edo neurritz kanpokoak dituen baloratzeko modurik.
- 22,8 milioi euroan esleitutako 16 kontraturen (7, 8, 11, 18, 21, 22, 26, 27, 48, 50-53, 57, 58 eta 63 zk.) ABBPetan ez da jasotzen enpresa sortu berrien kaudimen tekniko egiaztatze modua. Gainera, 9,9 milioi euroan esleitutako beste 4 espedientetan (40, 45, 47 eta 72 zk.), pleguek ez dute inolako bitartekorik ezartzen kaudimen tekniko edo ekonomiko eta finantzarioa egiaztatze, eta horietako bitan eta beste batean (38, 40 eta 72 zk.), kaudimen tekniko egiaztatze bitarteko batzuk ez daude araudian jasota. Beste batean (43 zenbakia), 19,2 milioi euroan esleitua, kaudimen teknikoaren barruan sartuko litzatekeen kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eskatzen da.
- 138,6 milioi euroren zenbatekoa egin duten 21 kontraturen esleipena (11, 14, 31tik 33ra, 38tik 40ra, 49tik 53ra, 58, 65, 69, 71, 74tik 77rako zk.) proposamenak ireki zirenetik gehieneko epea gaindituta egin da, eta horietako 4tan eta beste batean (11, 32, 49, 50 eta 55 zk.) kontratua formalizatu da esleipenaren jakinarazpenetik ezarritako epea gaindituta. Bestalde, 3,9 milioi euroan esleitutako kontratazio-arloko errekurso berezia jaso dezaketen beste 11 kontratatutan (2, 3, 19tik 22ra, 57, 58, 62, 63 eta 80 zk-), esleipena jakinarazi zenetik 15 egun baliodun igaro baino lehen formalizatu da kontratua.
- Obra eta zerbitzuetako 56 kontratu esleitzeko ebazpenetan (1, 2, 4tik 21era, 24, 26tik 30era, 32tik 37ra, 41etik 43ra, 48, 51tik 54ra, 57, 59tik 63ra, 65, 66, 68, 69, 74tik 79ra zenbakidunak), guztira 194,1 milioi euroan, kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatu beharreko enpresa esleipendunaren hitzarmen kolektiboa adierazi beharko litzateke.





ALEGAZIOA

HKEEk azpiatal horietan EITB Taldeari dagozkion kontratuei buruz egiten dituen aipamenei dagokienez, adierazi behar da, kasu askotan, ikus-entzunezko eremuari estu lotutako kontratuak direla, hala nola Over The Top plataforma mota bat garatzea edo entzumen-desgaitasuna duten ikusleentzako bikoiztea edo azpitoluak jartzea.

Ilido horretan, adierazi behar da zaila dela EITBk diharduen (eta lehiatzen duen) ikus-entzunezko sektorean HKEEk adierazten dituen gai batzuk definitzea, hala nola oso alderdi bereziak kalkulatzeko, besteak beste: etekin industrialak edo soldatetatik eratorritako zeharkako kostuak kalkulatzeko, eskaintza jakin batek anormaltasun-presuntzioa duela jotzeko parametro objektibo eta arrazoizkoak zehaztea, enpresen kaudimen teknikoko alderdiak (oso teknifikatuta dauden sektore batean eta, askotan, enpresa multinazionalak jarduten duten sektore batean), eta abar.

Era berean, alderdi horiek guztiek zailtasun gehigarria dakarte eskaintza teknikoak eta ekonomikoak baloratzeko orduan, eta diziplina anitzeko taldeak edo laguntza teknikoak behar izaten dira balorazioak egiteko. Horren ondorioz, kasu askotan, kudeaketaren eraginkortasuna galtzen da, izapideetan zentzuzko atzerapena dagoelako, eta gainkostua sortzen da, deskribatutako testuinguruan nekez justifika daitekeena.

Nolanahi ere, EITB Taldeak hobetu egin du prezioen azterketa eta banakapena, bere jarduera-eremuari egokituta, eta neurriak ezarri ditu merkatuko prezioak eta lehia eraginkorra kontrolatzeko.

Azkenik, zerbitzu horietako gehienetan ez zaio erakunde kontratatzaileari eragiten, berez ez dago langileen orduak zehazteko modurik, eta ez dago langileen subrogaziorik; beraz, zaila izateaz gain, enpresa esleipendunari aplikatu beharreko hitzarmena zehazteak ez du eraginik, logikoa denez, esleipendunak dagokion hitzarmena eta lan-betebeharrak betetzeko duen betebeharretik eta adierazpen formaletik harago.

Dena den, EITB Taldea ahalegin handia egiten ari da kontratuen alderdiak eta alderdi formalak etengabe hobetzeko, eta HKEEk bere irizpenean adierazitako gaietan arreta berezia jarriko da.

- 29,3 milioi euroan esleitutako espediente baten (76. zk.) zuinketa egiaztatzeak akta kontratua formalizatu zenetik alderdien artean ezarritako epea igaro ondoren formalizatu da. 540.888 euroan esleitutako beste espediente batean (32. zk.), zuinketa egiaztatzeak akta kontratua formalizatu aurrekoa da, eta akta horretatik aurrera hasi zen obra gauzatzen.

ALEGAZIOA

EITBren alegazioa 32. espedienteari buruzkoa da, aipatzen baita zuinketa-akta kontratua formalizatu aurrekoa dela.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Illo horretan, errespetu handiz eta defendatzeko helburu soilarekin, adierazi behar dugu gure ustez HKEEak akats bat egin duela, zuinketa-akta 2022ko martxoaren 7koa delako eta beste alderdiak kontratua 2022ko martxoaren 4an sinatu zuelako (EITBk formalki sinatzea alde batera utzita, alderdi formal hutsengatik atzeratzen baita, baina kontrako alderdiaren sinadura jasota egoten da).

Horregatik, berariaz eskatu nahi dugu aipamen hori txostenetik kentzeko.

VII.5 BESTE BATZUK

- 2022ko ekitaldian zehar merkataritzako eragiketen batez besteko ordainketa epeak 30 eguneko gehieneko epea gainditu du -merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako borrokan neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeak agindutakoa- Eustat, Kontsumobide eta Lanbide erakunde autonomoetan, BRTA Partzuergoan EITB eta Aukerak zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan.

ALEGAZIOA

Horri dagokionez, adierazi behar da, hain zuzen ere, faktura jakin batzuen izapidetzan izandako arazo baten ondorioz, EITB zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, 2022ko ekitaldian, merkataritza-eragiketak ordaintzeko batez beste 33 egun eman zituela.

Egun, beharrezko neurriak hartu dira mota horretako desbideratzeak saihesteko, eta 2023ko ekitaldian ordainketa-aldi hori 22,42 egunekoa izan da, lege ezarritako gehienekoaren oso azpitik.

EUSTAT

VII.5 BESTE BATZUK

- 2022ko ekitaldian zehar merkataritzako eragiketen batez besteko ordainketa epeak 30 eguneko gehieneko epea gainditu du -merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako borrokan neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeak agindutakoa- Eustat, Kontsumobide eta Lanbide erakunde autonomoetan, BRTA Partzuergoan EITB eta Aukerak zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan.

ALEGAZIOA

Txostenak esaten du, gainera, Eustatek gainditu egin duela merkataritzako eragiketak ordaintzeko batez besteko aldia (Merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 5/2010 Legean 30 eguneko gehieneko epea ezarri zen).





Horren inguruan, esan beharra dago 2022ko urtarrilaren 17an EIKA Informazio eta Kudeaketa Ekonomikorako Sistema berria jarri zela martxan, eta horrek, aplikazio informatiko guztiekin logikokigertatu ohi den bezala, bolada batean nolabaiteko disfuntzioak eragin zituela, eta, ondorioz fakturenordainketa atzeratu egin zela.

EEE TALDEA

III.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIAREN OINARRIA

1. BRTA partzuergoak eta ETS, Aukerak, Unibasq, EEE eta EITB zuzenbide pribatuko erakunde publikoek ez dute 2022ko ekitaldian LPZrik eta horrek Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45. artikulua urratzen du.

ALEGAZIOA

TVCPek (euskaraz, HKEEK) legezkotasuna betetzeari buruz egindako ohar horri dagokionez, honako hau adierazi behar da:

1. Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legea 2022ko abenduaren 26ko EHAA (245 zk.) argitaratu zen, eta argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean.

Horri dagokionez, HKEEK adierazten duen bezala, 11/2022 Legearen 45. artikuluen arabera, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, besteak beste, Lanpostuen Zerrenda bat izan beharko dute, “tresna horren bidez, euskal administrazio publikoek beren barne-egiturak arrazionalizatu eta antolatu, langile- beharrianak zehaztu, lanpostuok betetzeko eskatutako betekizunak zehaztu eta lanpostu bakoitza sailkatzen dute, eraginkortasun-irizpideen arabera”.

Horrez gain, 11/2022 Legearen 46. artikulua adierazten du Lanpostuen Zerrendek, besteak beste, datu hauek jaso beharko dituztela: “[...] g) Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun-data.”

2. Otsailaren 22ko 19/2024 Dekretua, Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzekoa (apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua indargabetuz, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena, zuzenbide pribatuko herri-erakundeei aplikatu behar ez zitzaiena) 2024ko martxoaren 8ko 50. zenbakiko EHAA argitaratu da.

Hau da, 11/2022 Legearen 46. artikulua eskatzen duen moduan, lanpostuen hizkuntza-profilerako balio behar duen euskal sektore publikoko euskararen erabilera normalizatzeko araua ez da onartu 2024ko lehen hiruhilekora arte.

3. Azkenik, aipatu behar da EEE Taldea, bere eginkizunen artean energiaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren egungo eta etorkizuneko jardueren plangintza, koordinazioa eta kontrola dituen erakundea den aldetik, ingurune guztiz aldakor batean murgilduta dagoela eta trantsizioan dagoela. Horrek jarduera konplexua dakar (bai diru-laguntzen arloan, bai plangintza-erregulazioan, bai energia-proiektuen sustapenean) energia-eredu jasangarri bat lortzeko, lehiakortasunari, segurtasunari,



hornidurari eta ikatz-baxuari dagokienez (2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren helburua – 3E2030).

Hori guztia, erakunde gisa eta Administrazio Publikoaren antzeko baldintzetan, belaunaldi-erleleboko prozesu sakon bati aurre egitearekin batera.

Elementu horiek guztiek antolaketa-eraldaketako prozesu bat eragin dute, 2022an hasia, eta sendotze-prozesu betean dago. Horri gehituko zaio datozen hilabeteetan egingo den gogoeta estrategikoa, EEEren jarduera bat etor dadin bai berriki onartu den araudiarekin (Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legea), bai legealdi hasi berrian edo garatzen joan daitezkeen estrategia eta plan berriekin.

Horregatik guztiagatik, erakunde honen iritziz, HKEEk 2022ko ekitaldian Lanpostuen Zerrenda izateko betebeharrari buruz planteatutako oharra ez da zuzena, honako arrazoi hauengatik:

- Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legea 2022ko abenduaren 27an jarri zen indarrean. Hau da, fiskalizazioaren xede den ekitaldia amaitu baino 4 egun lehenago, eta horrek eragozten du, argi eta garbi, hura betetzeko betebeharra duen edozein erakundek, ia existitzen ez den epe horretan, Lanpostuen Zerrenda bat egitea, hura onartzea eta gero argitaratzea, 11/2022 Legeak berak eskatzen duen moduan.
 - Gainera, 11/2022 Legearen 46. artikulua agintzen du Lanpostuen Zerrendetan jaso behar direla, besteak beste, lanpostuaren hizkuntza-eskakizunari buruzko datuak eta, hala badagokio, derrigortasun-data.
46. artikulua atal hori betetzeko, itxaron egin behar izan da euskal sektore publikoan euskararen erabilera normalizatzeko arloan dagokion araua eman arte (19/2024 Dekretua), zeina ez baita indarrean jarri 2024ko martxora arte.
- EEE TALDEA murgilduta dagoen jarduera konplexu eta aldakorak, azken urteotan gertatzen ari den belaunaldi-erleleboko prozesuak, 2022an hasitako antolamendu-aldaketa finkatzeko prozesuak, legealdi-aldaketak eta berekin ekarriko duen gogoeta estrategikoak, modu justifikatuan aholkatzen dute oraindik ez ekitea EEE Taldeko Lanpostuen Zerrenda bat egiteari.

VII.2 PERTSONALA

- *EEE taldeko sozietate diren EEEK, SHESAk eta BIMEPek beren langileekin 2018an sinatutako hitzarmena, zeina 2022eko ekitaldian indarrean baitzegoen, ez da erregistratu Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan, eta, beraz, ez da aldizkari ofizialean argitaratu.*

ALEGAZIOA

Inskribatzeko betebeharrari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko laneko hitzarmen eta akordio kolektiboak erregistratzeari eta gordailutzeari buruzko urtarilaren 25eko 9/2011 Dekretuaren 5. artikulua hau ezartzen du: “Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Hitzarmen





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatuko dira gordailutzeari eta erregistroari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuaren 2. artikuluan jasotako egintzak”.

Ilido horretan, aipatutako 713/2010 Errege Dekretuaren 2. artikulua honako hau dio:

“1. Lan-agintaritza eskudunen hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistroetan honako egintza inskribagarri hauek inskribatuko dira:

a) Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren III. tituluan ezarritakoaren arabera egindako lan-hitzarmen kolektiboak, urte anitzeko hitzarmenetan urtero egiten diren soldata- berrikuspenak eta «soldata-bermearen» klausulak aplikatzearen ondoriozkoak, eta hitzarmenen aldaketak eta luzapenak”.

Eta, azkenik, Langileen Estatutuaren 22.1, 24.1, 29.1, 34.2, 34.3 eta 67.1 artikuluetan arautzen dira enpresaren eta hitzarmen kolektiboen ordezkari langileen ordezkarien arteko akordioak.

Erakunde honen iritziz, enpresak eta langileek 2018ko urriaren 8an sinatutako Hitzarmena hitzarmen kolektiboen ordezkari akordioaren barruan sartzen da. Hitzarmen horiek eraginkortasun juridiko-kontraktuala dute, eta ez da erregistratu edo gordailutu beharrik.

- *Itelazpi SA, Ihobe SA, ETS, Finantzen Euskal Institutua, EITB, EEE, BIMEP SA, Teknologia Parkea SA eta Arabako Teknologia Parkea SA kontratu mugagabeko langileak hautatzeko prozedura hobetzeko, komenigarria litzateke prozesuaren faseetan aurkeztutako hautagaitza guztiak ezesteko arrazoiak agiri bidez jasota uzteko betebeharra barne hartzea.*

ALEGAZIOA

Ilido beretik, aukeraketa-prozesuak bidezkotzen dituzten txostenak hobetzeko ahalegina egiten ari den arren, HKEEK egiten dituen ohar berriak kontuan hartuz, EEEren nahiz EEE TALDEAREN sozietate publikoen hautaketa-prozesuei buruzko txostenetan, aurkeztutako kandidatura guztiak ezesteko izan diren arrazoiak aztertu eta agiri bidez jasoko dira.

VII.5 BESTE BATZUK

- *Gomendagarria litzateke funtsak erabiltzeko baimendutako sinadurak mankomunatuak izatea Haurreskolak eta BRTA partzuergoen diruzaintza-kontu nagusietan, Hazi, EGO eta Musikene fundazioen diruzaintza-kontuetan, EEE, Aukerak, EKP, GLEA, Etxepare, Unibasq eta SPRI zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan, eta Harana-Kontrasta (EEE taldea), Euskadiko Orkestra, Alokabide eta Zumaiako Kirol Portua sozietate publikoetan.*



ALEGAZIOA

EEEn eta Harana-Kontrasta sozietate publikoan ahaldunei funtsak erabiltzeko gaur egun ematen zaizkien ahalmenei dagokienez, hau adierazten da:

EEE:

- EEEko zuzendari nagusiak, goi-kargudunak, funtsak modu solidarioan eta muga ekonomikorik gabe erabiltzeko baimendutako sinadura du.
- EEE TALDEAren finantza-arduradunak funtsak modu solidarioan erabiltzeko baimendutako sinadura du, gehienez ere 50.000 euro eragiketa bakoitzeko.
- EEEko gainerako zuzendariek/arduradunek ez dute ahalmen hori, EEEko Zuzendaritza Kontseiluak emandako ahalmenen artean.

Harana-Kontrasta:

- Sozietatearen kontseilari ahaldungai bakarrak, EEEko Proiektuen Garapeneko zuzendariak, funtsak modu solidarioan eta muga ekonomikorik gabe erabiltzeko baimendutako sinadura du.

HKEEk egiten dituen oharpenei kasu eginez, oraingo ahalmen-eskema aztertzeari ekingo zaio, sinadura mankomunatua eskatzen duen sistema bat bilatzeko.

IHOBE

VII.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- *PLEA erakunde autonomoaren, Finantzen Euskal Institutua zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren eta EJIE, VISESA, EITB Media eta Ihobe sozietate publikoen aurrekontuen likidazioan jasotako konpromiso-kredituen egoera-orrietan ez dago hurrengo ekitaldietarako konprometitutako krediturik, 280.000 715.462 euroak eta 1,5, 6,9, 5,8 eta 3,5 milioi eurorenak, hurrenez hurren.*

ALEGAZIOA

Alde batetik, aurrekontua egiteko arau teknikoen 3.3.8 artikularen arabera: “hainbat urtetarako konpromisoak biltzen dituzten dirulaguntzetarako konpromiso-kredituak jaso beharko dira...ordainketa-kredituaren aurrekontua egingo da abendura arte, eta konpromiso-kreditua hurrengo ekitaldiko urtariletik aurrera”, eta 3.3.12 artikuluan xedaturik dagoenaren arabera, “urte anitzeko” dirulaguntzen aurrekontua eta kontabilitateko egozpena ordainketa- eta konpromiso- kredituekin egingo dira, ordainketen urte anitzeko sekuentziaren arabera; ordainketa horiek diruz lagundutako jarduera gauzatzeko eta justifikatzeko mugarrien arabera zehaztuko dira”... eta “inola ere ez da aurrekontuan sartuko eta kontabilitatean ekitaldiari egotziko ondorengo ekitaldi batean egiten hasiko diren jarduerak finantzatzeko dirulaguntza krediturik.”

Beste alde batetik, 3.3.12. artikulua, dirulaguntzen aurrekontu-egozpenari buruzkoak, honako hau dio: “a) Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-





xedapenen Testu Bateginaren 111.5 artikulua ezartzen duenez, dirulaguntzen gastuetan, kasuan kasuko dirulaguntzak edo bestelako laguntzak emateko uneak zehaztuko du obligazioaren uzkurdura, eta kasu bakoitzean dirulaguntzak emateko ezartzen diren arauak zehazten dutenaren arabera eskatuko da. Gastu horiei aurrekontu-araubide bat aplikatu beharko zaie, aurrekontu-arloan eskumena duen sailak aurrekontu-arloan ematen dituen kreditu-motarekin, ordainketa- edo konpromiso-motarekin bat datorrena, eta egokiagoa dena aurre egin beharreko ordainketekin eta/edo dirulaguntza edo laguntzaren baldintzak benetan betetzearekin, eta, betiere, lege honen 58.2 artikulua aplikatuz aurrekontuak egiteko ematen dituen jarraibide teknikoekin bat etorritik”.

Gidalerroen esparru honi dagokionez, lhobek, bere ezaugarriak eta, bereziki, gastu-aurrekontuaren gaineko ehuneko handia kontuan hartuta, bi alderdi dituen tratamendua ematen dio erregistroari:

- Aurrekontu arlokoa. Ematen ziren laguntzen zenbateko handia kontuan hartuta, lhoberen aurrekontu orokorrari dagokionez, emakidaren ekitaldian finantzaketaren % 100 bermatzen zen neurrian esleitzen ziren, eta urte horretan likidatu beharrekoa zen zenbateko osoa Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuan.
- Kontabilitate arlokoak. Urteko egozpena diru-sarreraren eta gastuen galera eta irabazien kontura, aurrerapen-mailaren arabera; eragin nulua izango du aurrekontuak etorkizuneko ekitaldietan izango duen xedapenaren ikuspegitik.

Aurrekontuaren tratamendu diferentzial horrek esan nahi du likidazioaren ondorengo ekitaldietan ez dela aurrekontu gehigarririk behar, eta, horrenbestez, nekez hitz egin daiteke konpromisoaz laguntzak ematen diren ekitaldian aurrekontua likidatzeari.

Salbuespen horren arrazoiak ekonomikoak da; izan ere, lhoberen aurrekontu osoaren % 20 eta % 25 artekoa bada ere, gerta liteke hartutako konpromisoak ezin heldzea, etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuan murrizketak gertatuz gero. Hori guztia kontuan hartuta lhoberen aurrekontua bakarrik dela proiektuei eta dirulaguntzei ekiteko, eta ez dagoela finantzaketaren ikuspegitik bereizitako partidarik.

Horren ondorioz, lhobek ez du uste 3,5 milioi euroko zenbatekoa konpromiso-kredituen kontzeptuaren barruan sartzen denik.

VII.2 PERTSONALA

- *Itelazpi SA, lhobe SA, ETS, Finantzen Euskal Institutua, EITB, EEE, BIMEP SA, Teknologia Parkea SA eta Arabako Teknologia Parkea SA kontratu mugagabeko langileak hautatzeko prozedura hobetzeko, komenigarria litzateke prozesuaren faseetan aurkeztutako hautagaitza guztiak ezesteko arrazoiak agiri bidez jasota uzteko betebeharra barne hartzea.*

ALEGAZIOA

Kontuan hartu da proposatu den hobekuntza, eta lhobe SAren hitzarmen kolektiboaren eranskinetako dokumentuaren (barne-sustapeneko protokoloa, kanpo-hautaketa eta lan-





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

poltsa) prozesurako laguntza ematen duen enpresaren kudeaketaren 5.4 atalean honako testu hau sartu da:

“Kontratazio-mahaiaren iruzkinak jaso ondoren, hautaketa-enpresak behin betiko txostena idatziko du. Hautaketa-enpresak, nahitaez, behar bezala jasota utzi beharko ditu prozesuko fase guztietan aurkeztu diren hautagai guztiak ezesteko arrazoiak”.

VII.3 KONTRATAZIOA

- *Ihobe SAre*n espediente batean (62. zk.), guztira 661.555 euroan loteka esleitutakoan, zuzendari nagusiak onartu ditu espedienteak abiaraztea eta haren gastua; ordea, balio zenbatetsia aintzat hartuta, Administrazio Kontseiluko presidentek egin beharko zukeen hori.

ALEGAZIOA

2020/11/09ko 2020/1852 zenbakiko eskrituran jasota dagoenaren arabera, uste dugu zuzendari nagusiak ezin duela 300.000 eurotik gorako kontraturik formalizatu, baina ez da ezer esaten kopuru hori gainditzen duten espedienteen gastua onartzeaz eta espediente horren hasieraz. Nolanahi ere, kontuan hartuko da Ihoberen botereak inoizkotan berriro idazterakoan.

A.4 KONTRATAZIOA

Kontratua: Laguntza-programetan espedienteak kudeatzen, izapidetzen eta berrikusten laguntzea.

A1: Zerbitzu juridikoek ez dute karatularen eta/edo administrazio-baldintza berezien pleguaren gainean aldeko berrikuspenik egin

ALEGAZIOA

Bat gatoz oharpenarekin, eta epe laburrean ezarri beharreko kontratazio-prozedurak berrikusteko eta hobetzeko prozeduretan sartzen da.

A2: Eskumena ez duen organoak espedienteak eta gastua onartzea.

ALEGAZIOA

Txosten honen 3. puntuan jorratutako oharra.

A4: ABBP zuzeneko, zeharkako, behin-behineko eta soldatuko kostuak banakatu gabe.





ALEGAZIOA

Bat gatoz oharpenarekin, eta aztertutako egingo da kontratazio-prozedurak berrikusteko eta hobetzeko prozeduretan sartzeko.

A16: Ez da ezarri kontratazio-mahaiko edo kide juridiko edo ekonomikorik edo mahaia ez da behar bezala eratu.

ALEGAZIOA

Bat gatoz oharpenarekin, eta epe laburrean ezarri beharreko kontratazio-prozedurak berrikusteko eta hobetzeko prozeduretan sartzen da.

A17: Kontratazio-mahaiak ez du esleipena egin aurretik kaudimena bete dela jasota utzi.

ALEGAZIOA

Bat gatoz oharpenarekin, eta epe laburrean ezarri beharreko kontratazio- prozedurak berrikusteko eta hobetzeko prozeduretan sartzen da.

B2: Kontratua legezko epea baino lehen formalizatu da.

ALEGAZIOA

Akats puntualtzat identifikatuta dago, eta ohiko moduan betetzen da.

B7: Kontratua ez da kontratatzailearen profilean argitaratu.

ALEGAZIOA

Akats puntualtzat identifikatuta dago, eta ohiko moduan betetzen da.

Kontratua: Basque Circular Summit 2022 kongresuaren komunikazio kabinetea eta idazkaritza teknikoa

A1: Zerbitzu juridikoek ez dute karatularen eta/edo administrazio-baldintza berezien pleguaren gainean aldeko berrikuspenik egin.

ALEGAZIOA

Bat gatoz oharpenarekin, eta epe laburrean ezarri beharreko kontratazio-prozedurak berrikusteko eta hobetzeko prozeduretan sartzen da.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A4: ABBP zuzeneko, zeharkako, behin-behineko eta soldatako kostuak banakatu gabe.

ALEGAZIOA

Bat gatoz oharpenarekin, eta aztertu egingo da kontratazio-prozedurak berrikusteko eta hobetzeko prozeduretan sartzeko.

A17: Kontratazio-mahaiak ez du esleipena egin aurretik kaudimena bete dela jasota utzi.

ALEGAZIOA

Bat gatoz oharpenarekin, eta epe laburrean ezarri beharreko kontratazio- prozedurak berrikusteko eta hobetzeko prozeduretan sartzen da.

B2: Kontratua legezko epea baino lehen formalizatu da.

ALEGAZIOA

Akats puntualtzat identifikatuta dago, eta ohiko moduan betetzen da.

B7: Kontratua ez da kontratatzailearen profilean argitaratu.

ALEGAZIOA

Akats puntualtzat identifikatuta dago, eta ohiko moduan betetzen da.

KONTSUMOBIDE

VII.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- IVAP, Osalan, Emakunde, eta Kontsumobide erakunde autonomoen 2022ko ekitaldiko aurrekontuen aurreproiektuak, EJRi bidaltzen zaizkionak, ez dituzte onartu erakunde bakoitzeko organo eskudunek. Kontsumobideren kasuan, hura sortzeko legearen arabera, Zuzendaritza Kontseilua, gainera, urteko kontuak onartzeko elkartuko da.

ALEGAZIOA

2022ko ekitaldian, ez zen Zuzendaritza Kontseiluaren bilerarik egin; ezohiko egoera hori zuzendu egin da hurrengo ekitaldi guztietan, eta organo horrek agindu zaizkion egitekoak bete ditu.





VII.3 KONTRATAZIOA

- *Kontsumobidek oroharreko prezioan 466.500 euroan esleitutako zerbitzu-kontratu baten (10. zenbakia) 1. lotea gauzatzea ez da iristen preskripzio teknikoen agirian ezarritako prestakuntza-esperientzien eta hezkuntza-proiektuen gutxienekora. Gomendagarria litzateke prezioa unitateko prezioen arabera ezartzea.*

ALEGAZIOA

Gutxieneko horiek lortu ez izana azaltzen duten arrazoi bat baino gehiago daude. Lehenengoa honako hau da: prestakuntza-esperientzien eta heziketa-proiektuen helburuen kalkulua urtarillaren 1etik abenduaren 31ra egin zen arren exekuzioaren hasiera apirilaren 1era atzeratu zela, kontratua izapidetzearekin lotutako arrazoiengatik. Urtean zehar, hilabete batetik bestera prestakuntza-eskaeraren portaera aldatu egiten da; beraz, proiektua apirilean ezartzeak datuak linealki estrapolatzea zailtzen du. Izan ere, abuztua baliogabea da, bai eta abenduaren erdia ere, jaiegunak pilatzen direlako. Lehen hiruhilekoa, ordea, askoz aktiboagoa da. Laburbilduz, ez da egokia zortzi hilabete horietarako kalkulu proportzionala egitea.

Bestalde, helburu horiek kontratu berritzaile baterako ezarri ziren, zeinak eskaintako prestakuntzaren planteamenduan aldaketa esanguratsuak sartzen baitzituen. Zerbitzua ematen zuen enpresak erronka handia zuen; izan ere, ekintza berriak garatzeko lehen fase bati ekin behar zion, eta lehendik zeudenak berrikusi eta egokitu behar zituen, prestakuntza-zerbitzua eskaintzeari utzi gabe eta lehen hiruhilekoan sinatutako konpromisoerantzunez (aurreko kontratua). Aldaketa horiek egin ahal izateko, unitate honek kontratuaren iraupena 2 urtekoa izatea proposatu zuen, eta beste bi urtez luzatu ahal izatea. Izapidetze-epeekin lotutako kontuak zirela eta, epe hori murriztea erabaki zen, eta kontratua urtebeterako lizitatzea, beste urtebetez luzatzeko aukera emanda.

Programan langile berriak sartzeak ere –baldintza teknikoen agirian eskatzen genuen– funtzionamenduan eragina izan zuen.

Azkenik, eskatutako esperientzien eta proiektuen kopurua handiegia izan zen, eta ezin zen lortu, esperientzien eta proiektuen kopurua handitzeko ez baitzen aurrekontu-handitzerik egin.

Kontratu honen lizitazioa izapidetzean atzemandako gorabeherei dagokienez, kontuan hartu behar da kontratua izapidetzeko ardura zuen aholkulari juridikoaren bat-bateko heriotza. Adjudikazio-ebazpena ez argitaratzea bezalako kontuak, adibidez, detektatu eta geroago zuzendu ziren.

- *2022ko ekitaldian zehar, Osalan, Gogora eta Kontsumobide erakunde autonomoek, Hazi, EGO eta Basque Team fundazioek eta EKP zuzenbide pribatuko erakunde publikoak hainbat zerbitzu adjudikatu eta/edo izapidetu dituzte kontratu txiki gisa, 491.041 euroren zenbatekoan guztira; alabaina, zerbitzu horien zenbatekoa, izaera eta/edo jarraitutasuna direla-eta, dagokion esleipen-prozeduraren bidez izapidetu beharko ziratekeen (ikus A.4).*





ALEGAZIOA

Azken baliabideko tarifari (ABT) buruz hedabide desberdinetan egin beharreko publizitatearen kontratuei dagokionez, Kontsumobidek urtero lizitatzen ditu publizitate-ekintzen plangintza zein publizitate-espazioen erosketa; izan ere, publizitateari dagokionez aldiroko premia batzuk daude, baina, horretaz gain, kontsumoaren errealitatea aldakorra denez eta kontsumitzaileen informazio-premia jakin batzuen aurrean azkar erreakzionatu behar denez, gai jakin batzuei buruz informatzeko behar zehatzak sor daitezke. 2022ko ekitaldiko kontratu horien kasuan, Gobernuak onartutako ABT tarifa berriari buruzko kontsultak areagotu egin ziren, eta, horren ondorioz, horri buruzko informazioa berritzeko premia puntuala sortu zen.

A.5 DIRULAGUNTZAK

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta defendatzeko, 2022rako, tokiko erakundeei eta haiek sustatutako erakundeei.

A3: Deialdiaren ebazpena berandu egin da.

ALEGAZIOA

Dirulaguntza-deialdiaren ebazpenaren atzerapena zenbait faktoreren ondorio da. Faktore nagusia hau da: aurkeztutako laguntza guztien eskaeren aldeko ebazpena emate aldera, luzatu egin dira KIUBek dokumentazioa aurkezteko epeak. Kontuan izan behar da, askotan, lehen eskaera horrek forma-akatsak izaten dituela, eta, horren ondorioz, akatsak zuzentzeko errekerimenduak idatzi eta jakinarazi behar izaten direla. Errekerimendu horiek, era berean, beste dokumentazio-errekerimendu batzuk eragin ditzakete, baldin eta eskaera oraindik ere guztiz osatuta ez badago. Zuzenketa horien arrazoa, gehienetan, izaten da KIUBek ez dituztela betetzen deialdiaren ebazpenean ezartzen diren dokumentuen betekizun formalak, hala nola nahitaezko organoak dokumentuak sinatzea edo zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen ziurtagiririk ez aurkeztea.

Egoera horri gehitu behar zaio laguntzen kalifikazio-epaimahaiak erabaki zuela aurreikusitako partidako kopurua 7. kapitulutik 4. kapitulura pasatzea, akta honetan ikus daitekeen bezala: kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta babesteko toki erakundeei eta haiek sustatutako entitateei 2022ko ekitaldirako emandako dirulaguntzen kalifikazio-epaimahaiaren bileraren akta, 2022ko maiatzaren 12koa. "Laguntza-deialdiaren ebazpenaren 11.7 artikulua dioenez, diruz lagundu daitekeen kontzepturen batean, eskabide guztiei erantzun ondoren, esleitutako zuzkidura ekonomikoa agortu ez bada, soberakinak gainerako kontzeptuetara bideratutako zuzkidura handitu ahal izango du. Instalazioaren kontzeptuan, ez da eskaerarik aurkeztu; beraz, 20.000 euroko soberakina dago. Era berean, ikuskapenen lerroan, eskaerak aztertu ondoren, 1.877,71 euroko soberakina dagoela egiaztatu da. Kontuan hartuta funtzionamendu-lerrorako hasierako kreditua –deialdian parte hartzen duten KIUBen % 100ek eskatua– ez dela nahikoa eskaera guztiei erantzuteko, partida hori lehen aipatutako





soberakinekin handitu da. Horregatik, KIUBen funtzionamendu-lerroko eskaerei erantzuteko kreditu-saldoa 981.877,71 eurokoa da, hasierako 960.000 euroen ordeztasunaz.

Hasiera batean dirulaguntza-lerrorako baimendutako gastua birbanatzeko beharrezkoak ziren dokumentuak kontabilizatu behar izan zirenez, astebete atzeratu zen kontabilitate-izapidetzea. Kontabilitate-mugimendu hori baimendu ondoren, dokumentazioa Kontrol Ekonomikoko Bulegora (KEB) bidali behar da, nahitaezko txostena egin dezan. Eta txosten hori egiteak ere epeak luzatzea dakar. Azaldutakoaren ondorioz, 2022ko dirulaguntza ebazteko prozedura nabarmen luzatu zen.

VII.5 BESTE BATZUK

- 2022ko ekitaldian zehar merkataritzako eragiketen batez besteko ordainketa epeak 30 eguneko gehieneko epea gainditu du -merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako borrokan neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeak agindutakoa- Eustat, Kontsumobide eta Lanbide erakunde autonomoetan, BRTA Partzuergoan EITB eta Aukerak zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan.

ALEGAZIOA

Kontsumobiden jasotako fakturak ordaintzeko batez besteko epeak uztailaren 5eko 15/2014 Legean ezarritako parametroak betetzen ditu –Merkataritza-eragiketetan berandutzaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen du lege horrek–, eta erregistratu direnetik 30 eguneko epean ordaindu dira.

Epe hori gainditu duten fakturei dagokienez, kontuan hartu behar da bi ordainketa-mota daudela: alde batetik, funts aurreratuen bidez ordaindutakoak eta Kontsumobiden soilik izapidetzen direnak 46 eguneko epean ordaindu dira gehienez, eta horietako asko ekitaldiaren hasieran jasotakoak dira; une horretan, funtsen bidezko ordainketa ez dago gaituta, harik eta aurrekontu-gaikuntza orokorra egin arte. Gaikuntza orokor hori urtarilaren hirugarren astetik aurrera egiten da, eta, une horretatik aurrera, lehen funtsari kreditu-zuzkidura eman dakioke.

Bestalde, funts aurreratuen sistemaren bidez ordaintzeko baldintzak betetzen ez dituzten ordaindutako gainerako fakturei dagokienez, kontuan hartu behar da Kontsumobideko izapidetzeak faktura jasotzea eta onartzea barne hartzen dituela, eta ordainketa agintzeko "O" kontabilitate-dokumentu bat izapidetzen dela, zeina Kontrol Ekonomikoko Bulegora igortzen baita. Bulego horrek, gainera, "P" ordainketa-dokumentua izapidetzen du, eta, beraz, faktura jakin batzuen ordainketaren izapidetzea atzeratzea faktura horiek ordaintzeko konplexutasunaren ondorio da; izan ere, prozesu horretan ez du Kontsumobidek soilik esku hartzen.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

URA

VII.2 PERTSONALA

- *Musikene eta EGO fundazioen, URA, EKP eta EITB zuzenbide pribatuko erakunde publikoen, eta Eusko Trenbidea SAU eta EITB Media, SAUren organo eskudunek berariaz onartu behar dute urteko ordainsarien igoera.*

ALEGAZIOA

2018. urtera arte, egun hori barne, eta sindikatueta ordezkariekin bilera egin ondoren, berariaz onartu zen erakundearen urteko ordainsari-igoera, Gobernu Kontseiluaren akordioa oinarri hartuta.

2019tik aurrera, Lan Harremanen Zuzendaritzak adierazi digu ez dela beharrezkoa berariazko akordio hori, Gobernu Kontseiluaren erabakiak berak jasotzen duen bezala, zuzenbide pribatuko erakunde publikoei aplikatu dakiekeelako.

ETS-EUSKAL TRANBIDE SAREA

III.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIAREN OINARRIA

1. *BRTA partzuergoak eta ETS, Aukerak, Unibasq, EEE eta EITB zuzenbide pribatuko erakunde publikoek ez dute 2022ko ekitaldian LPZrik eta horrek Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45. artikulua urratzen du.*

ALEGAZIOA

Kontuan hartuta abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 6., 7., 45. eta 47. artikuluetan, eta Erakundean plantillaren barne-egitura antolatze, langile-beharrak zehazteko, eskatzen diren baldintzak definitzeko eta lanpostuak sailkatzeko aplikatzen diren tresnen errealitateari dagokionez, esan daiteke tresna horien edukiak behar bezala betetzen duela Legearen 46. artikulua.

Alde horretatik, ETSn erabiltzen eta aplikatzen diren tresnek honako alderdi hauek behar bezala adierazten dituzte: izena, dotazioa, adskripzio-sail edo -zentro organikoa/funtzionala, lanbide-taldea, betekizunak, hornidura-sistema, lotutako ordainsari osagarria, hizkuntza- eskakizuna, arduraldi-araubidea eta lanpostuaren izaera.

Berez, egia da ETSn gaur egun aplikatzen diren tresnek ez dituztela behar bezala betetzen lanpostuen zerrendetarako arautzen diren publikizitateko eta/edo argitalpeneko alderdi edo eskakizun formalak. abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45.3 eta 45.4 artikuluen arabera, hala ere, uste dugu eta mantentzen dugu Lege horren artikuluen 45.2, 46.1, 46.2 eta 47, berriz, estaldura eraginkorra dute, eta, horregatik, uste dugu, neurri egokian eta hizpide dugun gaiaren garrantziagatik, ETSk ez duela salbuespeneko iritzirik merezi araudia betetzeari eta bere jardura legezkotasunari lotzeari dagokionez.





VII.3 KONTRATAZIOA

- 22,8 milioi euroan esleitutako 16 kontraturen (7, 8, 11, 18, 21, 22, 26, 27, 48, 50-53, 57, 58 eta 63 zk.) ABBPetan ez da jasotzen enpresa sortu berrien kaudimen tekniko egiaztatze modua. Gainera, 9,9 milioi euroan esleitutako beste 4 espedientetan (40, 45, 47 eta 72 zk.), pleguek ez dute inolako bitartekorik ezartzen kaudimen tekniko edo ekonomiko eta finantzarioa egiaztatze, eta horietako bitan eta beste batean (38, 40 eta 72 zk.), kaudimen tekniko egiaztatze bitarteko batzuk ez daude araudian jasota. Beste batean (43 zenbakia), 19,2 milioi euroan esleitua, kaudimen teknikoaren barruan sartuko litzatekeen kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eskatzen da.

ALEGAZIOA

Ez du berariaz jasotzen; hala ere, ulertzen da SPKLk kasu horietarako ezarritakoa aplikatzen dela.

- 138,6 milioi euroren zenbatekoa egin duten 21 kontraturen esleipena (11, 14, 31tik 33ra, 38tik 40ra, 49tik 53ra, 58, 65, 69, 71, 74tik 77rako zk.) proposamenak ireki zirenetik gehieneko epea gaindituta egin da, eta horietako 4tan eta beste batean (11, 32, 49, 50 eta 55 zk.) kontratua formalizatu da esleipenaren jakinarazpenetik ezarritako epea gaindituta. Bestalde, 3,9 milioi euroan esleitutako kontratazio-erloto errekurso berezia jaso dezaketen beste 11 kontratutan (2, 3, 19tik 22ra, 57, 58, 62, 63 eta 80 zk-), esleipena jakinarazi zenetik 15 egun baliodun igaro baino lehen formalizatu da kontratua.

ALEGAZIOA

Alde batetik, 49., 50. eta 51. kontratuen esleipenari dagokionez, esan behar da, SPKLren 150. artikulua hiru garren apartatuaren arabera, "Kontratazio-organoak dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan esleitu du kontratua"; horrekin, epe jakin bat ezarriko du, baina esleipenaren aurreko dokumentazioa jasotzeari dagokionez, eta ez proposamenak irekitzen direnetik.

Hori horrela, eta kontratu bakoitza banan-banan aztertuta:

- Kontratua 49: 2022-07-06an jaso zuen eskaintzarik onena aurkeztu zuen lizitatzaillearen dokumentazioa, eta 2022-07-14an onartu zuen esleipena batzordeak, Kontratazio Batzordea bildu zen lehen egunean, dokumentazioa aztertu ondoren.
- Kontratua 50: Eskaintzarik onena aurkeztu zuen lizitatzaillearen dokumentazioa 2022/10/3an jaso zen, eta batzordeak 2022/10/06an onartu zuen esleipena; beraz, SPKLn ezarritako epea betetzen da.
- Kontratua 51: Eskaintzarik onena aurkeztu zuen lizitatzaillearen dokumentazioa 2021eko azaroaren 25ean jaso zen, eta batzordeak 2021eko abenduaren 2an onartu zuen esleipena; beraz, SPKLn ezarritako epea betetzen da.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Bestalde, 49. eta 50. kontratuak formalizatzeari dagokionez, SPKLren 153.3 artikulua honako hau adierazten du: "formalizazioa ezingo da egin lizitatzaleei eta hautagaiei esleipenaren jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen" erregulazio harmonizatuko kontratuen kasuan; eta "lizitatzaleei eta hautagaiei adjudikazioa jakinarazten zaienetik hamabost egun baliodun igaro baino lehen" gainerako kasuetan.

Hori horrela, eta kontratu bakoitza banan-banan aztertuta, honako hau azaltzen da:

Kontratua 49: Esleipenaren jakinarazpena 2022-07-14an bidali zitzaien lizitatzaleei eta hautagaiei, eta 2022-09-22an formalizatu zen. SARA kontratua dela kontuan hartuta, ikusten da ez dela SPKLn ezarritako epea gainditzen.

Kontratua 50: Esleipenaren jakinarazpena 2022ko urriaren 6an bidali zitzaien lizitatzaleei eta hautagaiei, eta 2022ko abenduaren 14an formalizatu zen. Izan ere, ezarritako epea gainditzen da esleipena jakinarazten denetik.

- *Obra eta zerbitzuetako 56 kontratu esleitzeko ebazpenetan (1, 2, 4tik 21era, 24, 26tik 30era, 32tik 37ra, 41etik 43ra, 48, 51tik 54ra, 57, 59tik 63ra, 65, 66, 68, 69, 74tik 79ra zenbakidunak), guztira 194,1 milioi euroan, kontratuaren xede den jardura egiten duten langileei aplikatu beharreko enpresa esleipendunaren hitzarmen kolektiboa adierazi beharko litzateke.*

ALEGAZIOA

Ez da adierazi.

- *Kontratatzalearen profilean ez dira argitaratu 67 kontratu (4tik 6ra bitartekoak, 8tik 15era bitartekoak, 18, 19, 21etik 47ra bitartekoak, 49tik 55era bitartekoak, 59tik 64ra bitartekoak, 66tik 77ra bitartekoak, 80 eta 81 zk.), 259,2 milioi euroren zenbatekoan, ordea, horien formalizazioa argitaratu da, horietako 3tan izan ezik (5, 8 eta 41 zenbakiak). 19,9 milioi euroko erregulazio harmonizatuko 11 kontraturen kasuan (13-15, 25, 36, 37, 39, 41, 55, 56 eta 68 zk.), formalizazio hori ere ez da argitaratu EBAOn.*

ALEGAZIOA

49., 50. eta 51. kontratu-dokumentuak ez dira argitaratu kontratatzailearen profilean.

- *1,1 milioi euroan esleitutako 3 espedientetan ez da formalizatu aldaketa arautzen duen kontratua (16, 33 eta 51 zk.), eta horietako batean (16 zk.) ez da eskatu berme osagarria gordailutzea.*



ALEGAZIOA

Kontratua formalizatu da.

- *ETSk obra-kontratu bat (51. zk.) aldatzea onartu du, administrazio-klausula berezien agirian aurreikusi ez diren eta gerora sortu diren arrazoiengatik, eta esleitutako zenbatekoa % 19,4 handitu du. Proiektuaren aurretiko definizio desegokiaren ondorio da aldaketa hori, eta, beraz, aldaketa justifikatzen duten arrazoiak ez dira gerora sortutako inguruabarren ondorio.*

ALEGAZIOA

HKEEk, 2024ko uztailaren 22ko behin-behineko txostenaren erabakian, xedatzen du "Bilbao-Donostia lineako Eubako trenbide-pasagunea (25+387 KP) kentzeko bidezubi bat eraikitzeko obra" (P20021746-C22021234) kontraturako izapidetutako kontratazio-agirietan aurreikusi ez ziren aldaketak ez zirela behar bezala justifikatu, izan ere, aldaketa horiek eragin zituzten arrazoiak ez ziren sortu, baizik eta proiektuaren akats batean justifikatu ziren.

Horri dagokionez, esan behar da eraikuntza-proiektu hori 2021eko maiatzaren 4an onartu zela, eta ETSko Kontratazio Batzordeak espedientea onartzeko erabakia 2021eko maiatzaren 6an gauzatu zela.

Ondoren, bi txosten egin eta bidali ziren: batetik, Azpiegitura eta Lurralde Garapen Sailarena (2021eko irailaren 23an sartu zen ETSn), eta, bestetik, Uraren Euskal Agentziarena (2021eko urriaren 18an erregistratu zen).

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 233. artikulua, proiektuen edukari buruzkoak, honako hauek xedatzen ditu, labor-labor: memoria, planoak, preskripzio tekniko partikularren agiria, aurrekontua, programa, zuinketa, segurtasun- eta osasun-azterketa edo oinarritzko azterlana, eta araudian edo erregelamenduetan zehazten den dokumentazio oro.

Bestalde, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 134. artikulua, proiektuaren onarpenari buruzkoak, honako hau ezartzen du: "Hala badagokio, dagokion informazio publikoa eman da, proiektua gainbegiratu da, ezarritako izapideak bete dira, eta nahitaezko txostenak eskatu dira, edo obrak egitean edo ustiatzean eragin dezaketen faktore guztiak hobeto ezagutzeko eskatu behar diren txostenak eskatu dira. Kontratazio-organoak proiektua onartzeari buruzko ebazpena emango du".

Aztertzen ari garen trenbide-sektoreari dagokionez, Trenbide Sektoreari buruzko irailaren 29ko 38/2015 Legeak, seigarren artikuluan, ez du ezartzen eraikuntza- proiektuan konprometituta egon litezkeen administrazioen txostenak jaso behar direnik hura onartu aurretik. Hala ere, lege horren 7. artikulua ezartzen duenez, eraikuntza-obren eraikuntza-proiektuak, onartu aurretik, eskumena duen hirigintza- administrazioari jakinaraziko zaizkio, informazio-azterlanarekin bat datozela egiazta dezan eta txostena egin dezan. Txostena





aldekoa dela ulertuko da jakinarazpena egin eta hilabete igaro ondoren txostenik egin ez bada. Beste edozein administrazioz ari ez direnak.

Goian azaldutakoa kontuan hartuta, beraz, eraikuntza-proiektua onartu zen egunean ez zen nahitaezkoa gerora egin ziren eta, hala bazegokion, proiektuaren idazketa lotu ezin zuten txostenak edukitzea. Horiek jaso ondoren, eraikuntza-proiektua aldatu zen, Bizkaiko Foru Aldundiak eta URAk behar zituzten gai guztiak aztertzeko.

Testuinguru horretan, ETSren kontratazio-organoaren aurrean izapidetu zen 1. proiektu aldatua idazteko baimen-proposamena, eta, ondoren, aldaketaren beraren erabakia, eta ulertu zen premia hori gerora sortutako inguruabarren ondoriozkoa zela; izan ere, administrazio arduratsuak ezin zuen aurreikusi kontratuaren lizitazioa egin zen unean bi erakundeek geroago helaraziko zutena, hau da, izapidetzea betez araudian ezarritakoa, ezin zen zehaztu BFAren eta URAren azken txostena. Horrez gain, akordio honek ez zuen aldatzen kontratuaren izaera globala, eta ez zuen gainditzen legearen % 50 mugatzailea.

Adierazitakoaren ondorioz, ETSren kontratazio-organoaren erabakia izapidetzea legea betetzeko egokitzat jotzen da.

LANBIDE

III.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIAREN OINARRIA

5. Lanbide erakunde autonomoak ez du EBAOn argitaratu komunikabide eta komunikazio-euskarri desberdinetan publizitate-espazioak planifikatzeko eta erosteko zerbitzuaren lizitazioa, 437.550 euroren gehieneko prezioarekin esleitua (ikus A.4).

ALEGAZIOA

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak izapidetu egin zuen kontratuaren lizitazioa EBAOn argitaratzea. Kontratuaren xedea zen Zenbait komunikabidetan eta komunikatzeko euskarritan publizitate-espazioak planifikatu eta erosteko zerbitzua (espedientea: LAN/A28/2022). Hori frogatzeko 1. agiria aurkezten da, hau da, EBAOren Argitalpenen Bulegoak kontratu horren lizitazio-iragarkia bidaltzeagatik emandako txostena.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ez du noiz jakin argitaratu ez zenik.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ateratako ondorioa zuzena da, ez zelako EBAOn argitaratu Zenbait komunikabidetan eta komunikatzeko euskarritan publizitate-espazioak planifikatu eta erosteko zerbitzua izeneko kontratuaren lizitazioa. Baina ondorio horri ñabardura batzuk egin behar zaizkio, erakundea gertaera horren erantzukizunetik aske uzteko; izan ere, erakundeak burutu zituen lizitazioaren iragarkia argitaratzeko beharrezkoak ziren kudeaketak, baina Lanbideren borondatearekin zerikusirik ez duten eta harentzat ezezagunak diren arrazoiak direla medio, EBAOren Argitalpenen Bulegoak ez zuen lizitazio-iragarkia argitaratu.





VII.3 KONTRATAZIOA

- Ez da eskatu 1,7 milioi euroan esleitutako 2 kontratutan aurkeztutako eskaintzen justifikaziorik (bata PLEAren hornidurakoa eta bestea Lanbideren zerbitzuetakoa (3. eta 15. zk.), nahiz eta, administrazio-klausula berezien arabera, anormalki baxutzat jotzekoak diren.

ALEGAZIOA

LAN/A-38/2022 espedientea: "Transformazio digitaleko proiektuen bulego estrategikoa".

LAN/A-38/2022 kontratuaren klausula berezien agirian (azala), 22.3 puntuan, hau ezartzen da ausarkeriazko bajei buruz:

Eskaintza anormalki baxuegiak: Prezioa baloratzeko, parametro edo muga hauek ezartzen dira:

- Lizitatzaille bakarra badago, eskaini den prezioa lizitazioko prezio unitarioa baino 25 portzentaje-unitate txikiagoa denean.
- Bi lizitatzaille badaude, prezio txikiena eskaintzen duenaren prezioa beste lizitatzailleak eskaintako prezioa baino 20 portzentaje-unitate txikiagoa denean.
- Hiru lizitatzaille edo gehiago badaude, prezio txikiena eskaintzen duenaren prezioa lizitatzaille guztiek eskaintako prezioen batezbestekoa baino ehuneko 10 portzentaje-unitate txikiagoa denean. Hala ere, batezbesteko horretatik 10 portzentaje-unitate baino gorago dauden prezioak badaude, beste batezbesteko bat kalkulatu da adierazitako kasuan ez dauden eskaintzekin soilik. Eta gainerako eskaintzen kopurua hiru baino txikiagoa bada, aurreko paragrafoan ezarritako formula aplikatuko da.
- Enpresa-talde bereko enpresek eskaintza bat baino gehiago aurkezten badute banaka lizitatzeko asmoz, eskaintzarik txikiena soilik hartuko da kontuan balio anormalak edo neurritz kanpokoak baloratzeko araubidea aplikatzeko.

Lizitazioan 8 enpresa aurkeztu ziren. Beraz, hiru lizitatzaille edo gehiago aurkezteari buruzko paragrafoan azaldutakoa betez egin behar ziren kalkuluak.

Aurkeztutako 8 enpresen eskaintzen batezbestekoa 72,30 euro (BEZik gabe) izan zen; eta enpresa batek aipatu batez besteko zenbateko hori % 10ean gainditzen zuenez, kanpoan utzi behar zen eta berriz batezbestekoa kalkulatu.

Batezbesteko berria 70,27 euro zen (BEZik gabe). Kopuru hori baino % 10 txikiagoa, hau da, 63,25 eurotik beherako zenbatekoa (BEZik gabe) eskaintzen zuten enpresak eskaintza anormalki baxua izango zuten.

Hain zuzen ere, DELOITTE CONSULTING, S.L. lizitatzaillea egoera horretan egongo litzateke, 59,50 euro eskaini baititu BEZik gabe. Baina puntuazio guztiak batu ostean ENTELGY IBAI, SA izan zen adjudikazioduna.

Kontratazio Mahaiak, azken emaitzen ondorioz kontratua beste enpresa bati adjudikatuko zitzaiola ikusita, ez zuen baloratu Deloitte Consulting S.L.ri errekerimendua





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

egiteko aukera, haren alegazioak onartzeak ez bailuke eraginik izango, ezta azken emaitza aldatuko ere.

Dena den, ez zen sobera egongo Kontratazio Mahaiaren aktan gertatutakoa jasotzea.

KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOA (KEB)

III.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIAREN OINARRIA

1. BRTA partzuergoak eta ETS, Aukerak, Unibasq, EEE eta EITB zuzenbide pribatuko erakunde publikoek ez dute 2022ko ekitaldian LPZrik eta horrek Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45. artikulua urratzen du.

ALEGAZIOA

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legea 2022ko abenduaren 27an jarri zen indarrean, fiskalizatu beharreko ekitaldia amaitu baino 4 egun lehenago, beraz, ezinezkoa da betebeharrak hori duen ezein erakundek hain epe murriztean Lanpostuen Zerrenda bat egin, onartu eta argitaratzea 11/2022 Legeak berak eskatzen duen moduan.

Gainera, 11/2022 Legearen 46. artikulua eskatzen du Lanpostuen Zerrendetan, besteak beste, lanpostuaren hizkuntza eskakizunari eta, hala badagokio, derrigortasun datari buruzko datuak jasotzea. Artikulu hori betetzeko, euskal sektore publikoan euskararen erabilera normalizatzeko dagokion araua ezarri arte (19/2024 Dekretua) itxaron behar izan da, eta 2024ko martxora arte ez da indarrean jarri.

EEE

EEE Taldea jarduera konplexu eta aldakor batean murgilduta dago, eta, horrekin batera, azken urteetan belaunaldien arteko errelebo-prozesu bat gertatzen ari da, 2022an hasitako antolaketa-aldaketa sendotzeko prozesua martxan dago, legegintzaldia aldatu da eta horri lotuta hausnarketa estrategiko bat etorriko da. Hori dena kontuan hartuta, oraindik ez da komeni EEE Taldean Lanpostu Zerrenda bat egitea.

BRTA

Partzuergoaren lehen jarduera-ekitaldiak izanik –2019an eratu zen–, 2022an lau pertsonak osatzen zuten plantilla, eta horietatik hiru estatutuetan aurreikusitako organoetako kideak ziren (Zuzendaritza Nagusia, Batzorde Zientifiko-Teknologikoa eta Industria Batzordea, Estatutuen 14., 15. eta 16. artikulua, 2019ko otsailaren 6ko EHAA, 26. zk.). LPZ lanketa-prozesuan dago.

Aukerak

Aukerak entea irailaren 30eko 3/2021 Legearen bidez sortu zen, eta urte horretako abenduaren 1ean hasi zuen jarduera formala. LPZ egiteko prozesua hasi aurretik, espetxe-





lanaren egitura, zentroetako langile-beharrak eta entearen zerbitzu zentralenak (ZZ) ezagutu behar dira. 2022an hasitako prozesua oso aurreratuta dago gaur egun, eta ekitaldi honen amaieran bukatzea espero da.

EITB

2023ko ekitaldian, EITBk antolakundearen egungo eta etorkizuneko premiekin bat datorren LPZ bat landu du, eta HKEErekin partekatze aukera izan dugu 2023ko ekitaldiaren fiskalizazioan, “LPZrako hurbilpena” izeneko dokumentu baten bidez. EITB, gaur egun, 2024rako taldeari dagokion LPZ modu eraginkorrean eta bermatzailean emateko lanean ari da.

2. EITB Media SAUk aldi baterako 118 kontratu mugagabe bihurtzea onartu du 2022an, 20/2021 Legean aurreikusitako aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetan barne hartu gabe eta aurretiazko ebazpen judizialik izan gabe.

ALEGAZIOA

Egonkortze prozesuan, “GAZTAÑAZPI” eta “AENA” izeneko doktrinen arabera hasieran identifikatutako plazen kopurua erreklamazio judizialen ondorioz handitzeko arrisku potentziala zegoela konturatu zen EITBko Zuzendaritza, eta, 20/2021 Legearen hitzaurrean, hazkunde ekonomikoa eta langileena mugatzea oinarritzko premisa gisa ezartzen zenez, egonkortze-prozesuan aipatutako doktrinen baldintzak betetzen zituzten plaza gisa identifikatutako plaza jakin batzuk finko bihurtzeari ekin zitzaion.

GAZTAÑAZPI doktrinari dagokionez (AGA, 2021eko ekainaren 8koa, ETBk jarritako DBKEa ezestekoa eta 133/2020 EAEJANEa, 2020ko urtarrilaren 14koa, finkatzekoa – CENDOJ: ECLI:ES:TSJPV:2020:251 identifikatzailea), zeinak EITB taldeko langileei buruzko erabaki judizialetan baitu jatorria, Zuzendaritzak, ETBko negozio-unitatearen kategoria bakoitzean dauden egiturazko beharrak aztertu eta ETBko langileen legezko ordezkaritzaarekin 2022/02/11n akordio bat lortu ondoren, ETBren Hitzarmen Kolektiboaren 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz, lanpostu hutsak deklaratu zituen, egiturazko premiak egonda kategoria horretako azken ELPa gainditu zuten hautagaiak zeuden kategorietan, merezimendu-, gaitasun-, berdintasun- eta publizitate-irizpideen arabera. Lanpostu hutsak deklaratu ondoren, adierazitako irizpideen arabera adjudikatu ziren, betiere azken ELPan kategoria bakoitzean izandako behin betiko emaitzen lehentasun-ordenaren arabera eta, logikoa denez, beheranzko hurrenkeran.

Bestalde, AENA doktrinak (Auzitegi Gorenaren 1112/2021 Epaia, 2021eko azaroaren 16koa – CENDOJ: ECLI:ES:TS:2021:4328 identifikatzailea), laburbilduz, langile mugagabe finko izendatu zituen honako hauek: une horretan kategoria jakin batean kontratatuta egonik mugagabetzat hartzea eragin zuen (edo eragin zezakeen) kontratu-historia bat eta kategoria horretako enplegu-deialdi publiko bat gaindituta zuten langileak.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Horregatik guztiagatik, egonkortze-prozesuaren ondoriozko plazak argitaratuta, eta langileen legezko ordezkariekin prozesu horretan hasiera batean eskainitako plazei buruzko akordioak egin ondoren, finko bihurtu zirenak deskontatu egin ziren, une hartan indarrean zegoen doktrinari eta jurisprudentziari jarraituz beren lan-harremana mugagabe finkotzat jotzeko moduan langile asko zeudelako.

Illo horretan, azpimarratzekoa da, egin zena egin aurretik, langile bakoitzaren kasuistika aztertu zela, kasuz kasu, Lan Zuzenbidean espezializatutako kanpoko bulego batek egindako ad hoc txosten baten bidez, aipatutako doktrinatan oinarritutako erreklamazio batek aurrera egiteko zer arrisku-maila zegoen kontuan hartuta. Azterketa horren ondorioz, eta txostena zorrozki aplikatuz, honako hauek bakarrik atxiki ziren akordiora: langile mugagabe ez-finkoak, arrisku handiko edo oso handiko langile gisa identifikatutako langileak eta arrisku ertaineko langile gisa identifikatutako pertsona batzuk, akordioa sinatzeko unean alta emanda egonik kategoria horretako enplegu-deialdi publiko bat gaingiduta zutenak eta harremana iruzurrezkotzat jotzea eragin zezakeen arrazoren bat zutenak.

Horregatik guztiagatik, ondorioztatu daiteke EITBk Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak ezarritakoaren arabera kudeatu zuela gai hori, baita Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko 20/2021 Legearen espirituaren arabera ere, aipatutako bi doktrinak aplikatzearen ondorioz gerta zitekeen egoerari aurrea hartuz, helburu bakar batekin: bai interes publikoari eragin zekizkiokeen kalteak (kostu prozesalei eta lan-arrisku handiagoari dagokienez) bai lan-eskubide bat eskuratuta zuten pertsonari eragin zekizkiokeenak murriztea.

5. Lanbide erakunde autonomoak ez du EBAOn argitaratu komunikabide eta komunikazio-euskarri desberdinetan publizitate-espazioak planifikatzeko eta erosteko zerbitzuaren lizitazioa, 437.550 euroren gehieneko prezioarekin esleitua (ikus A.4).

ALEGAZIOA

Lanbidek ez daki EBAOk Argitalpen Bulegoak zergatik ez duen argitaratu «Hainbat komunikabidetan eta komunikazio-euskarritan publizitate-espazioak planifikatu eta erosteko zerbitzua» helburu zuen kontratuaren lizitazioaren iragarkia (LAN/A28/2022 espedientea); Lanbidek behar bezala izapidetu zuen argitalpena.

7. Bi zerbitzu-kontratu, bata Euskadiko Orkestra SAK esleitua eta bestea EJIE SAK esleitua, gauzatzen jarraitu dute 2022an, hurrenez hurren 2019ko abenduan eta 2021eko abenduan mugaeguneratu ondoren. 2022an, mugaeguneratutako kontratuen egikaritza 60.692 euro eta 5,6 milioi eurorena izan da, hurrenez hurren (ikus A.4).



ALEGAZIOA

“Laguntza Tekniko Profesionalerako zerbitzuaren kontratazioa” kontratazio-espediterearen (EJIE-075-2017) helburua honako hau da: Eusko Jaurlaritzako sailei eta erakunde autonomoei aholkularitza eta laguntza tekniko espezializatua ematea, plan eta proiektu informatikoak definitzeko, bai eta informazio-sistemak garatzeko, mantentzeko eta ezartzeko ere. Espediente horretako loteetatik eratorritako kontratuak 2021eko abenduaren 31n amaituko zirela aurreikusita, EJIEk EJIE-103-2021, EJIE-104-2021 eta EJIE-105-2021 espedienteen izapidetzea hasi zuen, behar berberak estaltzeko, eta 2022ko urtarrilaren 1ean hasia aurreikusten zen.

Aipatutako espedienteen lizitazioan ikusi zenez, 21 loteetatik, lizitatutako lote bakoitzak eskaintza bakarra jaso zuen, EJIE-103-2024 espedientearen 6. lotearen kasuan izan ezik. Horregatik, lehia askea aldatzen ari ez zela egiaztatzeko, EJIEk Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA) esku jarri zuen aipatutako espedienteen dokumentazioa.

Berau aztertu ondoren, LEAren lerketa Zuzendaritza zehapen-espeditere bat inbuitzen hasi zen (LEA/AVC 557-ZEH-2021), Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legeak (LDL) debekatutako ustezko jokabideengatik. Horren ondorioz, EJIEko Administrazio Kontseiluak, kontratazio-organo eskudunak, EJIE-103-2021, EJIE-104-2021 eta EJIE-105-2021 espedienteetan atzera egitea erabaki zuen, konkurrentzia ezagatik, 2021eko abenduaren 22an. Atzera egiteko ebazpena jasotzen duen Administrazio Kontseiluaren Akta “Ebazpena/Ebazpen-dokumentuak” atalean kontsulta daiteke, honako [esteka](#) honetan.

Laguntza tekniko profesionaleko zerbitzua funtsezkoa da Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu informatikoen eta negozio-prozesuen ohiko funtzionamendua bermatzeko, Eusko Jaurlaritzako Informazio eta Komunikazio Teknologien Zuzendaritzak EJIEri aldiro egiten dion IKT zerbitzuen enkarguan jasotzen den bezala –36/2020 Dekretuak arautzen du–. Horren ondorioz, zerbitzu horiei jarraipena eman behar zitzaizkien kontratu berriak adjudikatu arte. Hala, aurreikusi gabeko aldaketa bat egin zen, EJIE-075-2017 espedientetik eratorritako kontratuen epea ordura arte luzatzeko. Horregatik exekutatu ziren espediente honen ondoriozko kontratuak epea amaitu ondoren ere.

EJIEko teknikariek berriz izapidetu zituzten baztertutako espedienteak, lizitazioan lehia hobetzeko. Horretarako, 2022ko otsailaren 2an, LEAri kontsulta bat egin zitzaion. Horri lotuta, espediente horien baldintza-agirien idazketa berria aurkeztu zitzaion, argitaratu aurretik horiei buruzko txosten bat egin zezan. LEAk ondorioztatu zuenez, ez hasierako baldintza-agiriekin ez agiri berriekin ez zuten lehia mugatu zezakeen sarrerako barrerarik. Hala ere, egindako aldaketek sektoreko enpresa gehiagoren konkurrentzia susta zezaketela iriziz, eskatutako kaudimen-baldintzak murriztu zirelako.

LEAren irizpidea ikusita, 2022ko otsailaren 10ean, EJIE-031-2022, EJIE-032-2022 eta EJIE-033-2022 Laguntza Teknikoko espedienteak izapidetu ziren, eta Administrazio Kontseiluak 2022ko irailaren 14an adjudikatu zituen. Egun horretan, 075-2017 espedientea azkendu egin zen. Adjudikazioaren ebazpena jasotzen duen Administrazio Kontseiluaren Akta “Ebazpena/Ebazpen-dokumentuak” atalean kontsulta daiteke, honako [esteka](#) honetan.





VII. BARNE KONTROLERA KO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

VII.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- *PLEA erakunde autonomoaren, Finantzen Euskal Institutua zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren eta EJIE, VISESA, EITB Media eta Ihobe sozietate publikoen aurrekontuen likidazioan jasotako konpromiso-kredituen egoera-orrietan ez dago hurrengo ekitaldietarako konprometitutako krediturik, 280.000 eta 715.462 euroak eta 1,5, 6,9, 5,8 eta 3,5 milioi eurorenak, hurrenez hurren.*

ALEGAZIOA

Behin-behineko txostenean EITB Mediari dagokion zenbatekoa murriztu egin beharko litzateke, honako balorazio hauen ondorioz:

- TVCP-HKEEK adierazitako zenbatekoa inbertsio konprometituak adjudikatzeko izapidetutako kontratuen lizitazio-aurrekontuekin lotuta kalkulatu da; aldiz, kontratu bakoitzean adjudikatutako zenbatekoaren arabera kalkulatu beharko litzateke.
- TVCP-HKEEK adierazitako zenbatekoak BEZa barne hartzen du, baina ez da kontuan hartu behar; izan ere, EITB Mediak % 100eko BEZ kenkaria aplikatzen du, beraz, ez da egin beharreko inbertsioaren balioaren parte.
- NGEU Europako Funtsek finantzatzutako espediente bat kontuan hartu da, baina funts horiek dagoeneko jaso dira 2022ko ekitaldian, gizarte-funtsaren zabalpenaren bidez.

VII.2 PERTSONALA

- *Musikene eta EGO fundazioen, URA, EKP eta EITB zuzenbide pribatuko erakunde publikoen, eta Eusko Trenbidea SAU eta EITB Media, SAUren 79rgano eskudunek berariaz onartu behar dute urteko ordainsarien igoera.*

ALEGAZIOA

Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SAUren Hitzarmen Kolektiboaren 69. artikulua ezartzen duenez, «Hitzarmen honen indarraldi-urte bakoitzeko, ordainsarien igoera orokorra izango da Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak ezarritako igoera orokor berbera, hitzarmen honen eremuan sartutako langileentzat».

- *EEE taldeko sozietate diren EEEK, SHESAk eta BIMEPEk beren langileekin 2018an sinatutako hitzarmena, zeina 2022ko ekitaldian indarrean baitzegoen, ez da erregistratu Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan, eta, beraz, ez da aldizkari ofizialean argitaratu.*





ALEGAZIOA

Inskribatzeko betebeharrari dagokionez, aipatzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroari eta Gordailuari buruzko urtarilaren 25eko 9/2011 Dekretuaren 5. artikulua honako hau ezartzen duela: “Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatuko dira laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuaren 2. artikuluan jasotako egintzak”.

Ildo horretan, 713/2010 Errege Dekretuaren 2.1 artikuluan zera adierazten da: “1. Lan-agintaritza eskudunen laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistroetan inskribatu ahal izango dira honako egintza hauek: a) Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren III. tituluaren ezarritakoaren arabera egindako lan-hitzarmen kolektiboak, bai eta urte anitzeko hitzarmenetan urtero egiten diren soldata-berrikuspenak eta “soldata-bermearen” klausulak, aldaketak eta hitzarmenen luzapenak aplikatzearen ondoriozkoak ere”.

Ente honen iritziz, enpresak eta langileek 2018ko urriaren 8an sinatutako Ituna Langileen Estatutuaren 22.1, 24.1, 29.1, 34.2, 34.3 eta 67.1 artikuluetan arautzen diren “Hitzarmen kolektiboen ordezkoko akordioak” izenekoaren barruan sartzen da. Hitzarmen horiek eraginkortasun juridikoa eta kontratuzkoa dute, eta ez da beharrezkoa erregistratzea edo gordailutzea.

VII.3 KONTRATAZIOA

- 49,9 milioi euroan esleitutako PLEA erakunde autonomoaren 3 espedienteetan (1etik 3ra bitarteko zk.), Haurreskolak partzuergoaren (18 zk.), Hazi fundazioko 5 espedienteetan (19tik 23ra bitarteko zk.), BIOEF fundazioko 2 espedienteetan (26 eta 27 zk.) eta sozietate publikoen eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoen 15 espedientetan (42, 48, 52tik 56ra eta 59tik 66ra bitarteko zk.), zerbitzu juridikoak ez du jasota utzi administrazio-klausula berezien pleguetako klausula espezifikoaren berrikuspen aldekoa. Gainera, Hazi eta BIOEF fundazioen eta Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkearen SA espedienteetan, egindako ABBPen berrikuspena ere jaso beharko litzateke.

ALEGAZIOA

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 122.7 artikulua ezartzen duenez, “baldintza-agiriak eta ereduak onartzeko, zerbitzu juridikoaren txostena beharko da aldez aurretik”, Estatu mailan bakarrik (Estatuko Administrazio Orokorra, haren organismo autonomoak, Gizarte Segurantzako kudeaketa-entitateak eta zerbitzu erkideak eta Estatuko sektore publikoa osatzen duten gainerako administrazio publikoak). Ondorioz, autonomia-erkidegoaren eremuan ez da baldintza hori eskatzen, Lege horren azken xedapenetako lehenengoaren 3. puntuan berresten denez. Horren arabera, 122. artikulua 7. apartatua ez da oinarritzeko legeriatzat hartzen.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.4 KONTRATAZIOA

PLEA

A3: ABBPn aurreikusitako aldaketak, zehaztu gabe. (1., 2., eta 3. kontratuak)

ALEGAZIOA

Aurreikusitako aldaketak AKPAko klausula orokorren 33-“Kontratuaren aldaketa” apartatuan jasotzen dira.

A4: ABBP zuzeneko, zeharkako, behin-behineko eta soldatuko kostuak banakatu gabe. (1., eta 3. kontratuak)

ALEGAZIOA

Kostu horiek espediente bakoitzaren lizitazio-aurrekontuaren justifikazio-memoriaren lehenengo apartatuan daude banakatuta.

A18: Eskaintza neurritz kanpo baxuegietan ez da justifikaziorik eskatu. (3. Kontratua)

ALEGAZIOA

Kontratazio Publikoko Plataforman, eskaintza anormalak edo neurritz kanpokoak (1., 2., 4. eta 9. loteetan) aurkeztu zituzten enpresei egindako justifikazio-errekerimenduak daude.

HABE

7. Euskarako azterketa-probak inprimatzea eta digitalizatzea.

A7: ABBPk ez du barne hartzen enpresa sortu berriek gaitasun tekn. Egiaztatu behar izatea.

ALEGAZIOA

Horrelako entitateek egiaztatu beharreko kaudimen-bitartekoak berariaz zehaztu ez baziren ere, SPKLren 90.4 artikulua bitarteko horiek zerrendatzen ditu, beraz, berariazko aurreikuspenik ezean, horrelako enpresaren bat adjudikazioduna izan balitz, aurreikuspen horretara joko zatekeen.

Beraz, enpresa sortu berriren bat lizitaziora aurkeztu izan balitz, kontratazio-organoak ez zituen baldintza-agirietan jasotako kaudimen teknikoko baldintzak eskatuko; legearen aukeretara joko zukeen nahitaez.



A14: ABBPk kaudimen irizpidea barne hartzen du.

ALEGAZIOA

SPKLren 145.2 artikulua ezartzen duenez, adjudikazio-irizpide kualitatiboetako bat honakoa izan daiteke: «Kontratua egikaritu behar duten eta hari atxikita dauden langileen antolaketa, kualifikazioa eta esperientzia, baldin eta langile horien kalitateak eragin nabarmena izan badezake hobeki egikaritzeko». Bestalde, SPKLren 90.1.e) artikulua ezartzen duenez, zerbitzu-kontratuetan, kaudimen teknikoko bitarteko gisa, honako hauek eskatu ahal izango dira: «Enpresaburuaren eta enpresako zuzendaritza-taldeko kideen titulu akademikoak eta lanbide-tituluak, eta, batez ere, kontratua egikaritzeko arduradunarenak edo arduradunenak, bai eta obraz zuzenean arduratuko diren teknikarienak ere, baldin eta adjudikaziorako irizpide gisa ebaluatzen ez badira». Kontratu horretan, hain zuzen ere, balorazio-irizpide gisa sartzea erabaki da, kaudimen teknikoko bitarteko gisa eskatu beharrean.

Gogoratu behar da irizpide hori kaudimen-irizpide gisa sartu izan balitz kontratua egin den bezala egiteari esker lizitazioan parte hartu ahal izan duten enpresa askok ezingo zutela parte hartu.

A17: Kontratazio-mahaiak ez du esleipena egin aurretik kaudimena bete dela jasota utzi.

ALEGAZIOA

Kontratazio-organoak adjudikazio-ebazpenaren laugarren puntuan adierazi du kaudimen-irizpideak behar bezala betetzen direla.

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak ez du eskatzen contratazio-mahaiak edo dagokion teknikariak egindako egiaztapen hori jasota uztea, beraz, gure ustez, adjudikazio-ebazpenean egiten den aipamena nahikoa da.

Gogora

8. Oinarrizko proiektuaren idazketa eta Erakusketa Proiektuaren obra exekutatzea eta zuzentzea.

B7: Kontratua ez da kontratatzailearen profilean argitaratu.

ALEGAZIOA

Kontratu hori 2022ko apirilaren 20an argitaratu zela egiaztatzen duen agiria erantsi da.





Kontsumobide

10. Kontsumoaren arloko heziketa-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa (2 lote).

C4: 1. lotea exekutatu da baldintza teknikoen agirian ezarritako gutxienekora iritsi gabe.

ALEGAZIOA

Gutxieneko horiek lortu ez izana azaltzen duten arrazoi bat baino gehiago daude. Lehenengoa honako hau da: prestakuntza-esperientzien eta heziketa-proiektuen helburuen kalkulua urtarilaren 1etik abenduaren 31ra egin zen arren exekuzioaren hasiera apirilaren 1era atzeratu zela, kontratua izapidetzearekin lotutako arrazoiengatik. Urtean zehar, hilabete batetik bestera prestakuntza-eskaeraren portaera aldatu egiten da, beraz, proiektua apirilean ezartzeak datuak linealki estrapolatzea zailtzen du. Praktikan, abuztua baliogabea da, bai eta abenduaren erdia ere, jaiegunak pilatzen direlako. Lehen hiruhilekoa, ordea, askoz aktiboagoa da. Laburbilduz, ez da egokia zortzi hilabete horietarako kalkulu proportzionala egitea.

Bestalde, helburu horiek kontratu berritzaile baterako ezarri ziren, zeinak eskaintako prestakuntzaren planteamenduan aldaketa esanguratsuak sartzen baitzituen. Zerbitzua ematen zuen enpresak erronka handia zuen; izan ere, ekintza berriak garatzeko lehen fase bati ekin behar zion, eta lehendik zeudenak berrikusi eta egokitu behar zituen, prestakuntza-zerbitzua eskaintzeari utzi gabe eta lehen hiruhilekoan sinatutako konpromisoerantzunez (aurreko kontratua). Aldaketa horiek egin ahal izateko, unitate honek kontratuaren iraupena 2 urtekoa izatea proposatu zuen, eta beste bi urtez luzatu ahal izatea. Izapidetze-epeekin lotutako kontuak zirela eta, epe hori murriztea erabaki zen, eta kontratua urtebeterako lizitatzea, beste urtebetez luzatzeko aukera emanda.

Programan langile berriak sartzeak ere –baldintza teknikoen agirian eskatzen genuen– funtzionamenduan eragina izan zuen.

Azkenik, eskatutako esperientzien eta proiektuen kopurua handiegia izan zen, eta ezin zen lortu, esperientzien eta proiektuen kopurua handitzeko ez baitzen aurrekontu-handitzerik egin.

Lanbide

15. Eraldaketa digitaleko proiektuen bulego estrategikoa.

A18: Eskaintza neurritz kanpo baxuegietan ez da justifikaziorik eskatu.

ALEGAZIOA

Kontratazio Mahaiak ez zuen beharrezkotzat jo ustez jaitsiera ausartegia egin zuen lizitatzailerak (LAN/A-38/2022 kontratuaren klausula espezifikoaren agiriaren 22.3 puntuan ezarritakoa aplikatuz) eskaintako prezioaren justifikazioa eskatzea, azken emaitzei jarraituz kontratua beste lizitatzailerak bati adjudikatu zitzaioela ikusita, eta hark





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

emandako justifikazioaren balizko onarpenak ez zuela ez eragingo ez aldatuko kontratuaren adjudikazioaren azken emaitza.

Osalan

16. Arabako lurralde-zentroaren lokal berria eraberritzea.

17. Osalanentzako bidaiak eta ekitaldiak antolatzeko laguntza.

A4: ABBP zuzeneko, zeharkako, behin-behineko eta soldatako kostuak banakatu gabe.

ALEGAZIOA

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 100.2 artikulua ezartzen duen kostuen banakapenaren helburua prestazioa merkatuko prezioen barruan egiten dela egiaztatzea da. Kontratu honen tipologia dela eta, ezin da banakapen hori egin, ez baitakigu zenbat bidaia egingo diren eta nora.

Osalanek, aurreko urtean egindako bidaietan oinarrituta, kalkulu bat egin zuen eta KPlaren prezioa erantsi zion; egitura-gastu orokorretan % 14,47ko igoera ezarri zuen (horietan zeharkako kostuak barne hartuta daudela ulertzen da) eta etekin industrialean % 7,12koa.

A5: ABBP ezohiko eskaintzak kalkulatzeko modua zehaztu gabe. (17. Kontratua)

ALEGAZIOA

AKPAren 22.3.1 apartatuan eskaintza bat anormala izan daitekeela hautematea ahalbidetzen duten parametro objektiboak ezartzen dira.

A13: Txosten teknikoak administrazio-baldintza berezien pleguan jasota ez dauden edo justifikatu gabe dauden azpi-irizpideak balioztatzen ditu. (17. Kontratua)

ALEGAZIOA

Azpiirizpideak oinarri teknikoen agirian ezarritakoak dira.

A17: Kontratazio-mahaiak ez du esleipena egin aurretik kaudimena bete dela jasota utzi (16. eta 17. kontratuak)

ALEGAZIOA

Adjudikazio-ebazpenean kaudimen tekniko eta profesionaleko baldintzak betetzen direla adierazten da.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak ez du eskatzen kontratazio-mahaiak edo dagokion teknikariak egindako egiaztapen hori jasota uztea, beraz, gure ustez, adjudikazio-ebazpenean egiten den aipamena nahikoa da.

EITB MEDIA

35. Entzumen-desgaitasuna duten ikusleentzako bikoizketa, azpigituluak (3 lote)

37. "Over The Top" motako plataforma bat garatzea eta kudeatzea.

A5: ABBP ezohiko eskaintzak kalkulatzeko modua zehaztu gabe.

ALEGAZIOA

Ikus-entzunezko arloari estuki lotutako kontratuak dira. Ildo horretan, aipatzekoa da EITBren jardun-esparrua (eta lehia-esparrua) den ikus-entzunezkoen sektorean TVCP-HKEEK aipatzen dituen gai batzuk definitzea zaila dela kasu askotan, adibidez: alderdi oso berezi batzuk kalkulatzeko, hala nola etekin industrial edo soldatetatik eratorritako zeharkako kostuak, eskaintza jakin bat ustez anormaltzat jotzeko parametro objektibo eta zentzuzkoak zehaztea, enpresen kaudimen teknikoaren alderdiak (sektorea oso teknifikatuta dago eta kasu askotan enpresa multinazionalak jarduten dute), etab.

Era berean, alderdi horiek guztiek eskaintza teknikoak eta ekonomikoak baloratzeko zailtasun gehigarri bat dakarte, eta balorazioak egiteko diziplina anitzeko taldeak edo laguntza teknikoak behar dira. Horrek, kasu askotan, kudeaketan eraginkortasuna galtzea dakar, izapideen arrazoizko atzerapenagatik, eta deskribatutako testuinguruan justifikatzea zaila litzatekeen gainkostu bat.

32. EiT Bren Iruñeko egoitzaren barnealdea eraberritzea

C2: Zuinketa egiaztatzeak akta egitean atzerapena edo kontratu aurretik formalizatua.

ALEGAZIOA

Zuinketa-akta 2022ko martxoaren 7koa da (ikus 7. eranskina), kontratua (ikus 8. eranskina), berriz, adjudikaziodunak 2022ko martxoaren 4an sinatu zuen digitalki (EITBk formalki zuinketa-aktaren ondoren sinatu arren).

SPRI

41. EAEko enpresetan gaitasun digital profesionalen sistema bat ezartzeko zerbitzuak emateko Esparru Akordioa.

A13: Txosten teknikoak administrazio-baldintza berezien pleguan jasota ez dauden edo justifikatu gabe dauden azpi-irizpideak balioztatzen ditu.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

Txosten teknikoak zehazten duenez, proposamenen balorazioa AKPAn ezarritako irizpideei eta azpiirizpideei jarraiki egin da, bertan jasotako balorazio-metodoaren arabera (bikaina/ona/ertaina/oinarrizkoa/ez da aurkeztu edo ez dagokio).

Eusko Trenbideak

- 43. *Treneko bidaiarien material mugikorra mantentzea.*
- 44. *Garbiketa-zebitzua (3 lote).*
- 45. *S900eko trenetan P3 azterketak egiteko ordezeko piezak (2 lote).*
- 46. *Autobusak, tren-makinak eta tren-museoa erregaiz hornitzea (2 lote).*
- 47. *Ordezko piezen kitak 900 serieko B3 azterketak egiteko (2 lote).*

A5: ABBP ezohiko eskaintzak kalkulatzeko modua zehaztu gabe. (43., 45., 46., eta 47. Kontratuak)

ALEGAZIOA

Sozietate honi aplikatu beharreko kontratazio publikoko araudiak ez du behartzen eskaintzen anormaltasuna zehazteko baremoak ezartzera; aitzitik, botere adjudikatzailaren hautazko kontu bat da, sozietate publikoei ez baitzaie aplikatzen Administrazio Publikoen Kontratazioari buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duen 1098/2001 Errege Dekretua.

A6: Prezioak KPlari lotuta baimendu gabe berrikustea, edo prezioak errendimenduaren helburua aintzat hartu gabe eguneratzea. (44. Kontratua)

ALEGAZIOA

Eusko Trenbideak-en iritziz, baldintza orokorren agiriko karatularen 5. apartatuan jasotako prezioak eguneratzeko klausula errendimendu-helburuekin lotuta dago, eta zehatz eta argi ezarrita dago, SPKLren 102.6 artikulua ezartzen duen bezala. Apartatu horrek 4. eranskinera bideratzen du.

A9: Kaudimen teknikoa eta ekonomikoa eta finantzarioa, lote bakoitzerako ezarri gabe (44., 45., 46., eta 47. kontratuak).

ALEGAZIOA

Baldintza orokorren agiriaren karatulan ezarritako kaudimena kontratuaren lote bakoitzari dagokio, eta ez lote guztiei, beraz, lote bakoitzerako kaudimen bera eskatzen da.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A13: Txosten teknikoak administrazio-baldintza berezien pleguan jasota ez dauden edo justifikatu gabe dauden azpi-irizpideak balioztatzen ditu. (44. kontratua)

ALEGAZIOA

Eusko Trenbideak-en iritziz, txosten teknikoak lote bakoitzean enpresa lizitatzailerei emandako puntuazioak justifikatu, arrazoitu eta azaltzen ditu.

B3: Behin betiko bermea eratzean atzerapena edo eskatutako aseguru-polizarik aurkeztu gabe. (45. kontratua)

ALEGAZIOA

Kontratu hori otsailaren 4ko 3/2020 Errege Lege Dekretuak arautzen du (3/2020 Errege Lege Dekretua, otsailaren 4koa, presako neurriena eta zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen baitira Europar Batasuneko zenbait zuzentarau honako eremu hauetan: sektore jakin batzuetako kontratazio publikoa, aseguru pribatuak, pentsio-planak eta -funtsak, tributuen eremua eta auzi fiskalak).

Arau horretan ez da ezartzen noiz eratu eta aurkeztu behar den kontratuaren bermea. Gai hori «Hornidura-kontratueterako baldintza orokorren agiriko» 11.A apartatuan adierazten da (ikus 13. eranskina), non aipatzen baita bermea eratzea eta aurkeztea adjudikazioaren ondorengo betebeharra dela.

B7: Kontratua ez da kontratatzailearen profilean argitaratu.

ALEGAZIOA

Egia da kontratatzailearen profilean ez dela kontratua agertzen, baina bai kontratuaren datu garrantzitsuak: kontratuaren formalizazio-data, kontratazio-prozedura, prezioa, enpresa adjudikazioduna, epea, etab. Beraz, gardentasunaren eta publizitatearen printzipioa ez dela urratu uste da.

Alokabide

65. Bezero, hornitzaile, erakunde eta, oro har, herritarren call centera

66. SALESFORCE software-plataformaren garapen ebolutibo, euskarri, mantentze eta lizentziamendua

A17: Kontratazio-mahaiak ez du esleipena egin aurretik kaudimena bete dela jasota utzi.





ALEGAZIOA

Kontratu bakoitzaren adjudikazio-ebazpenetan berariaz adierazten da dokumentazioa aurkezteko eskatu dela, SPKLren 150.2 artikulua arabera, eta, dokumentazioa aztertuta kaudimen-baldintzak betetzen direla egiaztatu dela. Egiaztapen hori Alokabideren zerbitzu teknikoek eta zerbitzu juridikoek egiten dute.

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak ez du eskatzen kontratazio-mahaiak edo dagokion teknikariak egindako egiaztapen hori jasota uztea, beraz, gure ustez, adjudikazio-ebazpenean egiten den aipamena nahikoa da.

B7: Kontratua ez da kontratatzailearen profilean argitaratu. (66. Kontratua)

ALEGAZIOA

SPKLren 154.1 artikulua betez, kontratuaren formalizazioaren iragarkia Kontratatzailearen Profilean eta Kontratuen Erregistroan argitaratu da. Bertan, kontratuaren datu garrantzitsuak jasotzen dira (enpresa adjudikazioduna, adjudikazioaren data eta zenbatekoa, kontratua formalizatzeko data, etab.), eta ez da beharrezkotzat jotzen kontratuaren kopia osoa argitaratzea, datuak babesteko araudiak babestutako datuak baititu (NANak, helbideak, informazio konfidentziala, etab.).

EJIE

67. Zaintza-kontrolerako etxola bat, jangela bat eta inguruko urbanizazioa eraikitzeke obrak.

68. Batera-rako ekipamendu informatikoaren euskarri- eta mantentze-zerbitzuak.

69. Zerbitzu Anitzeko Sarerako datuen transmisioa.

70. 2022rako erabiltzaileentzako arreta eta laguntza (Service Desk).

72. 2022. urterako SAP lizentziak mantendu eta eskuratzeko hornidura (2 lote).

73. Errentamendu-modalitatean (renting) BATERArako ekipamendu informatikoaren hornidura (5 lote).

A4: ABBP zuzeneko, zeharkako, behin-behineko eta soldatako kostuak banakatu gabe. (7. kontratua)

ALEGAZIOA

Aipatutako kostuak AKParen 10. klausulan daude xehatuta.

A5: ABBP ezohiko eskaintzak kalkulatzeko modua zehaztu gabe. (72. kontratua)



ALEGAZIOA

Sozietate honi aplikatu beharreko kontratazio publikoko araudiak ez du behartzen eskaintzen anormaltasuna zehazteko baremoak ezartzera; aitzitik, botere adjudikatzaileraren hautazko kontu bat da, sozietate publikoei ez baitaie aplikatzen Administrazio Publikoen Kontratazioari buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duen 1098/2001 Errege Dekretua.

A11: Proposamenak aurkezteko epea legezkoa baino laburragoa. (72. kontratua)

ALEGAZIOA

Eskaintzak aurkezteko epea aurretiazko informazioaren iragarki bat (2021/S 038-094292) argitaratu zelako murriztu zen.

A15: Kontratazio-mahaiak ez du jarduera guztietan hartutako erabakien berri ematen. (68., 69., 70., 72., eta 73. kontratuak).

ALEGAZIOA

Mahaiak hartutako erabakiak kontratatzailearen profilaren "Ebazpena" erlaitzean jaso ziren, adjudikazioko txosten-proposamenak argitaratuz. Ikus argitalpenaren esteka hemen:

Kontr. zk.	Esteka
68	https://www.contratacion.euskadi.eus/kontratazio_iragarkia/batera-rako-ekipamendu-informatikoaren-euskarri-eta-maintentze-zerbitzuak/webkpe00-kpeperfi/eu/
69	https://www.contratacion.euskadi.eus/kontratazio_iragarkia/ej/gv-zerbitzu-anitzeko-sarerako-datuen-transmisio-zerbitzuak/webkpe00-kpeperfi/eu/
70	https://www.contratacion.euskadi.eus/kontratazio_iragarkia/2022-erabiltzaileentzako-arreta-eta-laguntza-zerbitzuak-service-desk-kontratatzea/webkpe00-kpeperfi/eu/
72	https://www.contratacion.euskadi.eus/kontratazio_iragarkia/2022-urterako-sap-lizentziak-mantendu-eta-eskuratzeko-hornidura/webkpe00-kpeperfi/eu/
73	https://www.contratacion.euskadi.eus/kontratazio_iragarkia/errentamendu-modalitatean-renting-baterarako-ekipamendu-informatikoaren-hornidurak-kontratatzea/webkpe00-kpeperfi/eu/

B7: Kontratua ez da kontratugilearen profilean argitaratu (67., 70., 72., eta 73. kontratuak).



ALEGAZIOA

Kontratuaren formalizazioaren iragarkiek, kontratatzailearen profilean argitaratuek, Kontratuen Euskal Erregistroan (REVASCON) duten erreferentzia eta erregistrorako lotura jasotzen dituzte.

WISESA

*76. Sestaon 180 BOE eta Getxon 58, eranskinak eta lotutako urbanizazioa egitea (2 lote).
C2: Zuinketa egiaztatzeko akta egitean atzerapena edo kontratu aurretik formalizatua.*

ALEGAZIOA

Sestaoko sustapenean, Udalak, aurkeztutako dokumentazioa ikusita, sestra azpiko obrak hasteko baimena eman zuen, baina ez gainerako obrak hasteko, lurzoruaren kalitatearen adierazpena aurkeztu arte. Dokumentu hori lortu zenean, eraikinaren gainerako zatien zuinketa-akta sinatu zen.

Getxoko sustapenean, zuinketaren atzerapena zimendu-sistemaren aldaketa baten eta mugakideekin izandako negoziazioen ondorio izan zen.

Kontsumobide

*ABT tarifari buruzko publizitatea hainbat komunikabidetan (3 kontratu).
A3: ABBPn aurreikusitako aldaketak, zehaztu gabe.*

ALEGAZIOA

Kontsumobidek urtero lizitatzen ditu publizitate-ekintzen plangintza zein publizitate-espazioen erosketa; izan ere, publizitateari dagokionez aldiroko premia batzuk daude, baina horretaz gain, kontsumoaren errealitatea aldakorra denez eta kontsumitzaileen informazio-premia jakin batzuen aurrean azkar erreakzionatu behar denez, gai jakin batzuei buruz informatzeko behar zehatzak sor daitezke. 2022ko ekitaldiko kontratu horien kasuan, Gobernuak onartutako ABT tarifa berriari buruzko kontsultak areagotu egin ziren, eta, horren ondorioz, horri buruzko informazioa berritzeko premia puntuala sortu zen.

VII.4 DIRULAGUNTZAK (ikus A.5)

Lehiaren mendeko dirulaguntzak

PLEA

Dirulaguntzen plan estrategikoa. Dirulaguntza-programen ebaluazioa.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak ez du lehiarekin lotutako dirulaguntzarik izan 2022an, ekitaldi horretan eman zituzten dirulaguntzak izendunak izan baitziren.

A.5 DIRULAGUNTZAK

HABE

4. *Euskaltegi pribatu eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuei 2022-2025 ikasturteetako.*

A1: *Ez da argitaratu emakida-proposamena egiteko ardura duen organoaren osaera.*

ALEGAZIOA

Laguntzen deialdi hau segidako esleipenaren bidez ebazten da, beraz, ez da lehia bidezkoa. Hala, ez dago kide anitzeko organorik HABEko zuzendari nagusiari –eskumena duen organoa– dirulaguntza emateko proposamena egiten dionik.

Kide anitzeko organorik ez dagoenez, ezin da haren osaera EHAAn argitaratu.

VII.5 BESTE BATZUK

- *Gomendagarria litzateke funtsak erabiltzeko baimendutako sinadurak mankomunatuak izatea Haurreskolak eta BRTA partzuergoen diruzaintza-kontu nagusietan, Hazi, EGO eta Musikene fundazioen diruzaintza-kontuetan, EEE, Aukerak, EKP, GLEA, Etxepare, Unibask eta SPRI zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan, eta Harana-Kontrasta (EEE taldea), Euskadiko Orkestra, Alokabide eta Zumaiako Kirol Portua sozietate publikoetan.*

ALEGAZIOA

EGO

Baterako sinadurak oso zaila egingo luke diruzaintzaren kudeaketa; izan ere, Fundazioaren Patronatuko kideek beren lanean mugikortasun handia dute, bulegoak Gasteizen dituzte eta EGOn egoitza operatiboa Donostian dago.

SPRI

Funtsak erabiltzeari dagokionez, SPRIIn jarduteko modua Estatutuen 11.4.f) artikuluan ezarritakoaren ondorio da (160/2018 Dekretua, azaroaren 13koa, 2018ko azaroaren 28ko EHAA, 229. zk.). Artikulu horren arabera, Zuzendaritza Nagusiaren eginkizunetako bat “2.000.000 euroko edo hortik beherako ordainketak agintzea” da.





AVPE

A.3 PERTSONALA

Aldi baterako enplegua sendotzeko eta egonkortzeko prozesua.

ALEGAZIOA

2024ko apirilaren 24ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2024ko martxoaren 21eko Ebazpena argitaratu zen, zeinaren bidez agintzen baita argitara daitezela 2022ko maiatzaren 18ko Ebazpenaren bidez Segurtasun Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako lanpostuak behin betiko eta barne-sustapenaren bidez betetzeko deitutako lehiaketaren ondorioz egindako lanpostu-esleipenak.

Aipatutako enplegua finkatzeko prozesuaren deialdia 2024ko abenduaren 31 baino lehen amaitzea aurreikusten da.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS

CAE	Comunidad Autónoma de Euskadi.
DOUE	Diario Oficial de la Unión Europea.
EPDP	Ente Público de Derecho Privado.
GV	Gobierno Vasco.
IPC	Índice de Precios al Consumo.
Ley 20/2021	Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público.
OOAA	Organismos Autónomos.
OCE	Oficina de Control Económico.
PCAP	Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.
PRTR	Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
TRLCEC	Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.
VPO	Vivienda de Protección Oficial.







Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, conforme a lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, reguladora del mismo, y en su Programa Anual de Trabajo, ha realizado este informe de fiscalización de la administración institucional y entes instrumentales de la CAE para el ejercicio 2022.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legales: cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas relativas al presupuesto, endeudamiento, operaciones financieras, personal, contratación de obras, servicios y suministros, concesión de subvenciones y ayudas públicas e ingresos de derecho público.
- Contables: se analiza si las cuentas anuales se elaboran de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación.

El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

Las entidades que forman la administración institucional de la CAE son las siguientes:

Organismos Autónomos

- Academia Vasca de Policía y Emergencias (AVPE).
- Autoridad Vasca de la Competencia (AVC).
- Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer (Emakunde).
- Instituto Vasco de Estadística (Eustat).
- Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos y de Regulación de los Euskaltegis (Habe).
- Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos (Gogora).
- Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP).
- Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo (Kontsumobide).
- Lanbide-Servicio Vasco de Empleo (Lanbide).
- Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales (Osalan).

Entes Públicos de Derecho Privado

- Osakidetza.
- Ente Vasco de la Energía (EVE).
- Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca (EITB).
- SPRI-Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial (SPRI).
- Instituto Vasco de Finanzas.
- Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea (ETS).





- Agencia Vasca del Agua (URA).
- Agencia Vasca de reinserción social (Aukerak).
- Euskadiko Kirol Portuak (EKP).
- Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo-Elankidetza (AVCD).
- Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua/Basque Institute (Etxepare).
- Unibasq-Agencia de Calidad del Sistema Universitario Vasco (Unibasq).

Las entidades que forman los entes instrumentales de la CAE son los siguientes:

Sociedades Públicas

Grupo EVE

- Centro para el Ahorro y Desarrollo Energético y Minero, SAU (CADEM).
- Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi, SAU (SHESA).
- Hidroeléctrica Harana-Kontrasta, SA (HHK).
- Biscay Marine Energy Platform, SA (BIMEP).
- Grupo EITB
- EITB Media, SAU.

Grupo SPRI

- Parque Tecnológico-Teknologi Elkarte, SA.
- Parque Tecnológico de Álava-Arabako Teknologi Elkarte, SA.
- Parque Científico y Tecnológico de Gipuzkoa-Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea, SA.
- Centro de Empresas e Innovación de Álava-Arabako Eraberrikuntza Industrialdea, SA.
- Euskal Herriko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa, IKEKS-Gestión de Capital Riesgo del País Vasco SGEIC, SA.
- Agencia Vasca de Internacionalización-Basque Trade and Investment, SA.
- USA Basque Trade and Investment Inc.
- Singapore Basque Trade and Investment, Ltd.
- Basque Trade e Investimento do Brasil, SA.
- Sprilur, SA.
- Ibaizabal Behekaldeko Industrialdea, SA.
- Arabako Industrialdea, SA.
- Arratiako Industrialdea, SA.
- Busturialdeko Industrialdea, SA.
- Deba Bailarako Industrialdea, SA.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Goierri Beheko Industrialdea, SA.
- Bidasoa Oarsoko Industrialdea, SA.
- Bizkaia Sortaldeko Industrialdea, SA.
- Urolako Industrialdea, SA.
- Beterri Kostako Industrialdea, SA.
- Tolosaldeko Apattaerreka Industria Lurra, SA.
- Grupo Eusko Trenbideak
- Eusko Trenbideak–Ferrocarriles Vascos, SA.
- Euskotren Participaciones, SA.
- Resto de sociedades
- Osatek, SA.
- Basquetour-Agencia Vasca de Turismo, SA (Basquetour).
- Sociedad Pública de Gestión Ambiental Ihobe, SA (Ihobe).
- Orquesta de Euskadi, SA.
- Alokabide, SA.
- Sociedad Informática del Gobierno Vasco, SA. (EJIE).
- Vivienda y Suelo de Euskadi, SA (VISESA).
- Itelazpi, SA.
- Neiker–Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario, SA. (Neiker).
- Finkatze Kapitala Finkatuz, SA.
- Zumaiaiko Kirol Portua, SA.

Fundaciones del Sector Público

- Eliko Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunarako Euskal Fundazioa-Fundación Vasca para la Seguridad Agroalimentaria (Elika).
- Fundación Basque Team Fundazioa (Basque Team).
- Fundación Hazi Fundazioa (Hazi).
- Fundación Joven Orquesta de Euskal Herria-Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa (EGO).
- Fundación Privada para el Centro Superior de Música del País Vasco (Musikene).
- Fundación Vasca de Innovación e Investigación Sanitarias (BIOEF).





Consortios del Sector Público

- Consorcio Haurreskolak Partzuergoa.
- Consorcio Científico Tecnológico Vasco Basque Research and Technology Alliance (BRTA).

El total de entidades que se incluyen en esta fiscalización, a 31 de diciembre de 2022, es de 67 (ver A.2). El TVCP emite otro informe de fiscalización sobre las cuentas anuales de Osakidetza y Osatek, SA.

A excepción de los 10 organismos autónomos, el resto de entidades que forman la administración institucional y entes instrumentales de la CAE cuentan con auditoría de las cuentas anuales, en 52 entidades realizada por auditores externos y en 5 entidades por auditores de la OCE. Además, se realizan informes de procedimientos acordados sobre el cumplimiento presupuestario y de legalidad, en 52 entidades por auditores externos y en 3 entidades por la OCE.

Nuestro trabajo en estas entidades auditadas ha consistido en revisar los informes de auditoría, realizando aquellas pruebas complementarias u otros procedimientos de auditoría que hemos considerado necesarios.

En los OOAA, hemos analizado los informes realizados por el órgano de control interno (OCE) referidos a los expedientes y áreas analizadas por el TVCP.

De conformidad con lo previsto en el artículo 13 de la Ley 1/1988, de 5 de febrero, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, los resultados provisionales de este trabajo se trasladaron, en el mes de julio de 2024, a la Oficina de Control Interno del Gobierno Vasco y a las Direcciones de las todas las entidades fiscalizadas para que los interesados pudieran realizar las alegaciones y aportar los documentos que considerasen convenientes en relación con la fiscalización realizada.

Todas las alegaciones han sido analizadas y valoradas, suprimiéndose o modificándose el texto del Informe cuando así se ha estimado conveniente, y manteniéndose si se ha considerado que son explicaciones que confirman la situación descrita en el Informe o si no se comparten las justificaciones o si no se justifican documentalmente las afirmaciones mantenidas. Estas alegaciones se adjuntan a este Informe.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD

En nuestra opinión, excepto por los incumplimientos descritos en el siguiente apartado de Fundamento de la opinión, las entidades que integran la administración institucional y los entes instrumentales de la CAE han cumplido razonablemente, en el ejercicio 2022, la normativa legal que regula su actividad económico-financiera.

II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES

En nuestra opinión, excepto por los efectos y los posibles efectos de las cuestiones descritas en el siguiente apartado de Fundamento de la opinión, las cuentas anuales de las entidades que integran la administración institucional y los entes instrumentales de la CAE expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la entidad a 31 de diciembre de 2022, así como de sus resultados y flujos de efectivo y del estado de liquidación del presupuesto correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables y presupuestarios contenidos en el mismo.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. FUNDAMENTO DE LA OPINIÓN

Hemos llevado a cabo nuestro trabajo de conformidad con los Principios fundamentales de fiscalización y las Normas Internacionales de Auditoría adaptadas al Sector Público.

Nuestras responsabilidades de acuerdo con dichas normas se describen más adelante en el apartado de Responsabilidad del TVCP.

Somos independientes de las entidades fiscalizadas de conformidad con los requerimientos de ética y protección de la independencia que son aplicables a nuestra fiscalización según lo exigido por la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y la normativa reguladora de la actividad de fiscalización pública.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión sobre el cumplimiento de la legalidad y sobre las cuentas anuales, ambas con salvedades.

III.1 FUNDAMENTO DE LA OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

1. El Consorcio BRTA y los entes públicos de derecho privado ETS, Aukerak, Unibasq, EVE y EITB, no disponen de RPT en el ejercicio 2022, incumpliendo el artículo 45 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.
2. EITB Media, SAU ha aprobado, durante 2022, la transformación de 118 contratos temporales en indefinidos sin incluirse en los procesos excepcionales de consolidación de empleo temporal previstos en la Ley 20/2021 ni mediar resolución judicial previa.
3. EKP ha formalizado un contrato indefinido con un trabajador, tras la realización de un proceso selectivo por una empresa externa, sin que se haya dejado constancia documental de dicho proceso.
4. Los Consejos de Gobierno de 18 de octubre de 2022, 31 de enero y 7 de marzo de 2023, han autorizado por el procedimiento excepcional previsto en el artículo 24.4 del TRLCEC, el pago de obligaciones reconocidas correspondientes al ejercicio 2022 de OOA por 848.468 euros, que fueron informados negativamente por la OCE. Los incumplimientos observados han sido la realización de prestaciones sin someterse a fiscalización previa, sin realizar reserva de crédito, con omisión de la normativa de contratación, sin tramitar el oportuno expediente contractual y sin observar los principios que hubieran correspondido conforme a lo establecido en la normativa de contratación (ver A.4).
5. El organismo autónomo Lanbide no ha publicado en el DOUE la licitación del servicio de planificación y compra de espacios publicitarios en diferentes medios y soportes de comunicación, adjudicado por un precio máximo de 437.550 euros (ver A.4).
